



COVID-19a:
zenbatu ezin diren
bizipenak

Javier Couso
eurodiputatu ohiari
elkarrizketa



INOIZKO MAILA GORENEAN

Urte bi ditu Mondragon Unibertsitateko senior taldeak, eta dagoeneko igo da Lehenengo Nazional Mailara / 54



"LEHENENGO MAILAN
LEHIAKOR IZATEKO LAN
EGIN BEHAR DUGU"

IÑAKI OGARA 'ARRI'
ENTRENATZAILEA

Mondragon Unibertsitateko jokalariek, harribikoekin batera, igoera ospatzen domekan. ANGEL AYASTUY

Bost aramaioar Arabako Bertsolari Txapelketako finalerdietan, asteburuan / 17

Kataideko bidegorri zatia erabilgarri, lau hilabeteko lanen ostean -300.000 euroko inbertsioa- / 13



PENTEKOSTEAK 2022 / 23

Hamar urtez hutsik den Bergarako Arrizuriagako jauregia berritzeko lanak hasi dituzte / 46

SINADURAK



OSKAR ELIZBURU / 8



MIEL GURDI / 51



MARIXE RUIZ DE AUSTRI / 13



AINZANE OIARBIDE / 64



Kamioi bi, Bizkaia eta Gipuzkoaren arteko mugaren inguruan, Kanpanzarren. JOKIN BEREZIARTUA

Bailarako sareko zenbait bide zati konpontzeko lizitazioak atera dituzte

N-636 errepideko bi zati –Elorriotik Kanpanzarrera doana eta Sara eta Bizkaiko muga artekoa– konpontzeko azterlanak egingo dira eta lehiaketa publikora atera. Bestetik, Arlabanen sortutako hiru lerraduren konpontze-lanak ere lizitatu egingo dira

Uxue Igarza Loiola DEBAGOIENA
Astelehenetik egubakoitzera bitartean, batez beste, 7.700 ibilgailu igarotzen dira Kanpanzar eta Elorrio arteko errepidetik –horietako %19,1 ibilgailu astunak dira–, eta, hain zuzen ere, zati hori da "hobetzeko premian" dagoena, erabiltzaileen eta erakundearen iritziz.

Hala, lizitazioa aterako du Bizkaiko Interbiak sozietate publikoak, eta enpresek eta estudioek aukera izango dute haien ingeniariak proiektuak lehiaketara aurkezteko. Hiru hilabete barru, uda osterako, lizitatu egongo dela aurreikusten dute aldundiek, eta hortik bi urtera bukatuta egongo direla tarte horretako lanak; 2024ko uda osterako.

Erakundeko ordezkarien arabera, trazadura alternatibean azterlanean eraikuntza proiektuak behar dituen parametroak hartuko dituzte kontuan: ingurumen inpaktuak, oztopoak, konponbiderik egokienak... 180.000 euroko aurrekontua izango du obrak, eta finantzaketa erdi bana egingo dute Bizkaiko eta Gipuzkoako aldundiek. Prozesuak jarraipen batzorde bat ere izango du, aldeek "hitzarmenean jasotakoa" eta "beren gain hartutakoa" betetzen dutela gainbegiratzeko.

Kanpanzar mendatea "erosoa" eta "seguruagoa" egitea da obraren helburua, eta, horretarako, aldundiek azaldu dute ez dutela baztertzen inolako azpiegitura motarik; hots, tunelak egitea, erreiak zabaltzea eta beste edozein lan izan daitekeela lizitazioa ateratzen duena, ezarritako baldintzak betez gero. Are, bi foru aldundiek hartu dute konpromisoa lehiaketa publiko irabazten duen proiektu hori gauzatzeko.

Aintzane Oiarbide eta Imanol Pradales Gipuzkoa eta Bizkaiko bide azpiegituretako diputatuek esan dute N-636 errepidea dutela beren jarduketaren "lehentasunen artean" eta azken urteetan "hainbat inbertsio" egin dituztela. Gogoratu dute Beasain-Durango korridorea planteatu zela Goierri, Durango eta Durangaldea lotzeko azpiegitura bezala, eta diputatuek azaldu dute Kanpanzarko zatia konpontzeak "segurtasuna eta gaitasuna" emango diola korridoreari.

BI OBRA LIZITATUKO DITUZTE N-636 ERREPIDEAN, BIDEA "SEGURUAGOA" ETA "HOBEA" IZATEKO

Beste zati bat aztergai

Kanpanzartik Elorriora doan bidea konpontzeaz gain, Gipuzkoako Foru Aldundiak beste lan bat ere lizitatuko du, N-636 errepidean bertan.

Epele eta Sara artean, lehengo 4,5 kilometroetan, hirugarren errei bat dago, baina azken tartean –Sarako eta Bizkaiko mugaren artean– bi bakarrak daude, eta horrek zenbait arazo sortzen dituela azaldu du Aintzane Oiarbide diputatuak; batez ere, bi ibilgailu astun gurutzatu behar direnean. Zazpi metroko zabalera du errepideak, eta bederatzi metrora zabaltzea da Aldundiaren asmoa. Horretarako, aurreratu bezala, lizitazioa aterako du proiektua.

Arlabango obra ere, lehiaketara lazko abenduko euriteek kalteak eragin zituzten eskualdeetako zenbait errepidetan; tartean, GI-627an, Arlabango portuan. Itxita egon zen otsailaren 22ra arte, lurra ezegonkor egoteak bi errailetan sortutako lerraduren eta pitzaduren ondorioz. Lerradura horiek konpontzeko lanak lizitatu ditu orain Gipuzkoako Foru Aldundiak: 1.453.071

HIRU LERRADURA KONPONDUKO DITUZTE ARLABANEN DATORREN URTE HASIERARAKO

euroko aurrekontua dago, eta, aurreikuspenen arabera, udazkenean hasiko dira lanak. Hala, bost hilabete epea jarri dutenez, 2023ko urte hasieran bukatuko duten ustea dute.

Hiru lerradura dira konponduko direnak. Lehengoa 55 metroko luzerako oin-horma da; 1991n sendotu arren, deformazioak gertatu dira. Bigarren lerradurak ere 55 metroko luzera duen errepide zati bati eragiten dio, eta zoladuran eta errepidearen zabalgunean osoan ezegonkortasun eta deformazio zantzuak antzeman dituzte teknikariek. Eta hirugarren lerradura, berriz, 110 metroko luzera duen errepide zatian dago, eta, azpimarratu dutenez, ezegonkortasun eta deformazio zantzuak hauteman dituzte hor ere. Hiru kasuei irtenbidea emateko, bakoitzari egokitu-tako pantailak egingo dituzte, mikropilotez osatuta.

Otsailetik hona, konponketek iraun bitartean, 15 tona baino gutxiagoko ibilgailuetara mugatu da zirkulazioa, eta, Oiarbidek aurreratu duenez, behar horrek indarrean jarraituko du hiru lerraduren obrak bukatu bitartean ere; hau da, 2023 hasierara arte.

Behin bidea konponduta, eremu osoko zorua berrituko dutela azaldu du Gipuzkoako Foru Aldundiak, eta zehaztu du hori konpontzeko jardunak beste 800.000 mila euroko kostua izango duela.



Arlaban, abenduan. GOIENA

Jaiak seguruak izateko tresnak, denen eskura

Emakundek, aldundien eta Eudelen laguntzarekin, jaien testuinguruan eraso sexistak prebenitzeko gida kaleratu du. Era berean, herrietako talde feministak ere tresnak sortzen ari dira; Bergarako Martxanterak Pentekoste jaiari begira ari dira lanean

Uxue Igarza Loiola DEBAGOIENA

Emakundek, foru aldundiek eta Eudelek koordinatzen duten *Beldur barik* programaren baitan, urtero materiala banatu izan da herrietan, jaien testuinguruko eraso sexistak prebenitzeko: pegatinak, eskuorriak, kartelak... Aurten, beste urrats bat egin dute eta gidaliburu bat aurkeztu dute. Eraso matxistak identifikatu eta prebenitzeko gakoak azaltzen dira gidan, eta baita eraso baten biktimei arreta emateko eta erasoari berari erantzun publikoa antolatzeke jarraibideak ere. Horrez gain, ostalaritza-sektoreari eta txosnei zuzendutako eranskin bat ere gehitu dute gidaliburuan.

Bi urtez festarik gabe egon ostean, Beatriz Artolazabal Berdintasun sailburuak gogora ekarri du jaiak "herritar guztiendako seguruak" izan behar dutela eta horretan laguntzeko kaleratu dutela gidaliburu: "Berdintasunezko jaiak nahi ditugu (...) Eraso matxistarik gabeko jaiak gozatzen lagunduko duten prozesuak bultzatzeko eta indartzeko jarraibideak eskaintzen ditu gidak".

Jaiak diseinatzeke eredu eta gizartearen sentsibilizazioa jarri ditu gidak mahai gainean. "Lehenengo uanean, antolatzen hastean,



Azken jaietan, 2019an, Martxanterek jarritako Txoko Morea. MARTXANTERAK

izan behar da gogoan jaiak emakumeentzako gune seguruak izan behar dutela; ez festak, ez alkoholak, ez du pertsonetikiko errespetuan oinarritzen ez den jarrerarik justifikatzen; ezerk ez du eraso matxista bat justifikatzen", adierazi du sailburuak.

Hiru puntuko gida

Jaietan emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitzeko tokiko prozesuak sustatzeko gida da txostenaren izen osoa, eta hiru puntutan banatuta dago. Lehenengo, eraso matxistarik

gabeko jaiak antolatzeko prozesuaren metodologia azaltzen da: lan-bilerak nola dinamizatu eta norekin jarri harremanetan, besteak beste.

Bigarren puntuak protokoloa nola sortu azaltzen du: zein egitura izan behar duen; nork sinatu behar duen; zein erantzun barnebiltzen dituen; biktima nola artatu...

Bukatzeko, taberna eta txosnekin lan egiteko jarraibideak zehazten dira hirugarren puntuan. "Barraren atzean lanean edo jendeari arreta ematen dau-

denak funtsezko elementua dira eraso matxista bat prebenitzeko, detektatzeko eta lehenengo arreta eskaintzeko. Hori dela eta, haien laguntza ezinbestekoa da guztiak askatasunez gozatzeko jai-espazioak sortzeko", jartzen du sarrera gisa. Ondoren, langileentzako baliagarriak izan daitezkeen gomendio eta jarraibideak zehazten dira.

Gida eskuragarri dago Emakunderen webgunean.

Martxanterak ere, lanean

Pentekoste jaiak ospatuko dituzte Bergaran datorren astean, eta Martxanterak talde feministako kideek urrats ugari egin dituzte euren ibilbidean jaiak seguruak izan daitezken. 2018an egin zuten protokoloa, txosnaguneko erasoari "erantzun adostua" emateko eta prebentzio lanak egiteko. Horrez gain, azken urteetan Txoko Morea ere jarri dute, besteak beste, zalantzak argitu eta erasoak salatzeke.

Bestetik, jaietan parte hartzen duten pertsonen formakuntza ematea ere izan da Martxanteren beste apustu bat: "Jai eredu nola irudikatzen den ere bada prebentzioaren parte". Aurtengo jaiari begira, domekan egin zuten ikastaroa txosnetako arduradunekin: "Koordinazio lanetan ari gara: erasoari nola erantzun erabakitzen, protokoloari nola heldu azaltzen, azken urteetako erasoak zeintzuk izan diren aztertzen eta emandako erantzunak partekatzen...". Emakunderen protokoloari dagokionez, azaldu dute "itxura ona" duela, baina paperean geratzen denak "hutsean bukatzeke arriskua" duela. "Espazioak hartu eta esperientziak elkarbanatzea da gakoak", adierazi dute Martxanterek.

II. Komunikazio Campusean izena emateko epea, zabalik

Ekainaren 18ra arte eman daiteke izena Mondragon Unibertsitatearen eta Goienaren Campusean

U. I. L. DEBAGOIENA

Iaz egindako baloraziotik, Komunikazio Camousaren beste edizio bat antolatzea erabaki dute Mondragon Unibertsitateak eta Goiena Komunikazio Taldeak. Bi txanda egongo dira aurten: lehena, uztailaren 4tik 8ra; eta bigarrena, 11tik 15era. Udalekuak DBHko 4. mailako eta baxilergoko lehen mailako gazteentzat daude zuzenduta, eta izena emateko epea zabalik dago ekainaren 18ra arte: www.labur.eus/komunikaziocampusa.

Udalekuen helburua da gazteak komunikazioaren mundura modu praktikoa eta dibertigarria hurbiltzea. Horretarako, besteak beste, honako gai hauek jorratuko dituzte: kamera aurrean nola jarri, fotokazetaritza, podcastak nola egin, sare sozialak kudeaketa... Aurten, gainera, arreta berezia jarriko da telebistako platotik egindako zuzendutako podcast saioetan.

Bestetik, edizio honetan ere, master-eskoletarako gonbidatu bereziak izango dituzte gazteak: Ainhoa Vitoria, Gazteko irratia esataria; Alex Padilla, sare sozialetan aditua; eta Goienako Xabier Urzelai, eskuko telefono adimendunekin ekoiztutako edukietan aditua.

Hariak ehundu, pertsonak konektatu



Bakardadeei aurre egiteko
Gipuzkoako estrategia
Etorkizuna Eraikiz



Zatoz Arrasatera eta bat egin!

Ekainak 3 16.30 | Azoka kalea
19.00 | Kulturate

Izen ematea: hariak.adinberri.eus



Euskararen erabilera, duela bost urteko mailan

Bost urtean behin egiten duen 'Hizkuntzen erabileraren kale neurketa'-ren emaitzak eman ditu Soziolinguistika Klusterrak: iazko landa-lanean Euskal Herriko kaleetan behatutako zortzi pertsonatik bat (%12,6) ari zen euskaraz, 2016an beste

Julen Iriondo M. de Zuazo ARRASATE Euskararen lurralde osoko kaleetan –145 udalerritakoak, lurralde eta gune soziolinguistiko guztietakoak, biztanle kopuru desberdinetakoak– 600.000 pertsona baino gehiago eta 200.000tik gora elkarrizketa behatuz egin zen neurketa 2021eko irailean eta urrian; Debagoieneko herrietan ere egin zuten landa-la-

na, Leintz Gatzagan eta Elgetan ez, gainerako guztietan –nahiz eta Soziolinguistika Klusterrak oraingoan ez duen herriz herriko daturik helarazi–.

Emaitza nagusia da behatutako zortzi pertsonatik bat ari zela euskaraz (%12,6). Datu orokor hau 2016ko *Hizkuntzen erabileraren kale neurketa*-n jasotako berdina da. 1989tik 2021era eus-

kararen kale-erabilera 1,8 puntu hazi da. 2006an neurtu zen erabilera-mailarik altuena (%13,7), eta hurrengo hamar urteetan (2006-2016) beherakada jaso ostean, azken bosturtekoan egonkor mantendu da datua, ez gora eta ez behera.

Ipar Euskal Herrian euskararen erabilera beherantz jarraitzen du; beste lurraldeetan go-

rabeherak daude. Hiru multzotan sailka daitezke, euskararen erabilera-mailari dagokionez: Gipuzkoan hitz egiten da gehien, %31; hurrengo postuan dago Bizkaia, %9ko erabilerarekin; eta %5-6 inguruko erabilera-maila dago Araban, Nafarroa Garaian eta Ipar Euskal Herrian

Eremurik euskaldunenean, herritarren %75-100ek euskararen ezagutza duten eremuan, behera egin du euskararen kale-erabilera azken bost urteotan. Hego Euskal Herriko gainerako eremuetan igo egin da erabilera 1993tik hona.

Haurren erabilera, gora

2016tik hona, haurren erabilera gora egin du. 1989tik aurrera, euskararen kale-erabilera gora egin du adin-tarte guztietan, adinekoen salbuespenarekin. Euskararen kale-erabilera altuenetik txikienera hau da adin-talde hurrenkerak: haurrak, gazteak, helduak eta adinekoak.

Zenbat eta gazteago, orduan eta gehiago gailentzen zaio emakumezkoen euskararen kale-erabilera gizonezkoenari. Portaera hori aurreko edizioetan ere behatu da. Adinekoen kasuan, gizonezkoek emakumezkoek baino gehiago darabilte euskara.

Haurrak eta nagusiak batera daudenean euskararen erabilera altuagoa da berezita daudenean baino. Haurrak solaskide izateak nagusien erabilera bikoiztea edo hirukoiztea dakar, lurralde guztietan.

Donostian, euskararen kale-erabilera %15,3koa da, eta gainerako hiriburuetan %2,5 eta %4 artean dago. Aipagarria da, hiriburuen hurrenkeran, Gasteiz bigarren postuan kokatu izana –Araba da erabilera baxuena duen lurraldea–.



GOIENA

"Ahal beste esparru behar ditu euskarak"

ESTEPAN PLAZAOLA
BERGARAKO UDALEKO
EUSKARA TEKNIKARIA

Kezkaz dihardu Plazaolak. **Zer deritzazu emaitzei?** Kaleko erabilera baloratzean joera handia dugu azkeneko edo azken bi emaitzak aintzat hartuta egiteko. Egokiagoa iruditzen zait tarte luze samar bateko bilakaera baloratzea. Eta hala eginda, ikusten dugu azken hogeitaz puntu erdi egin duela behera eta une honetan ez dagoela joera garbirik. Eta hori, bere horretan, kezkarria da. Ez dugu Debagoieneko datu orokorrik, baina, Bergarakoak oinarri hartuta, esango nuke egoera antzekoa dela. **Eta horren aurrean, zer?** Ez dago miraririk. Euskarari ahalik eta esparru gehien eskaintzea: eskolaz kanpo, lagunartean, lan-arloan, hedabide eta kultur kontsumoan...



Soziolinguistika Klusterreko kideak, astean, neurketaren txostena eskuan. SOZIOINGUISTIKA KLUSTERRA

Arizmendiarrietaren omenezko eskultura jarri du MUK Bilbon

AS Fabrik campusaren sarreran dago unibertsitatearen 25. urteurrenaren aitzakian egindako eskultura

J.I. ARRASATE

Mondragon Unibertsitateak eta Bilboko Udalak Jose Maria Arizmendiarrietaren omenezko eskultura inauguratu zuten eguaztenez AS Fabrik campusean; gradu-titulazioak eta unibertsitate-

masterrak eskaintzen dituzten MUK, 2021eko urtarrilaz geroztik, Bilboko Udalarekin duen lankidetzari esker.

Unibertsitateko ordezkariarekin batera, Bilboko alkate Juan Mari Aburto izan zen es-

kulturaren inaugurazioan, baita Mondragoneko presidente Iñigo Ucin eta Arizmendiarrietaren hainbat senide ere.

Gaur egun, zazpi unibertsitate-titulu ematen dituzte Bilbao AS Fabrik campusean, eta "ekin-tzailtza- eta berrikuntza-eko-sistema" gisa definitzen dute: "Unibertsitate-prestakuntza eta enpresa-ekimen berritzaileen eragileen komunitatea uztartzen ditu". MUKen 6.022 ikasleetatik 643 ari dira Bilbon gradu edo master ikasketak egiten.



Eskultura, eta inaugurazioan parte hartu zuten lagunetako batzuk. MUK



Aintzane Oiarbide, Maite Agirre eta Basili Ormazabal, egueneko agerraldian. J.I.

Ekiola Leintzetik harago hedatzea eskatu du EAJk

Bergarako, Antzuolako eta Elgetako udaletako EH Bilduren gobernuek energia berriztagarriarekin lotuta ezer gutxi egin dutela salatu dute jeltzaleek, eta Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzagak hasitako bidea jarraitzeko eskatu

Julen Iriondo M. de Zuazo BERGARA "Energia berde eta zero kilometrokoa" sortzeko Bergaran, Antzuolan eta Elgetan ere pausoak emateko eskatu dute aipatu hiru herrietako Eusko Alderdi Jeltzalearen udal taldeetako bozeramaileek, Maite Agirre, Basili Ormazabal eta Aintzane Oiarbidek –eguen goizean egin zuten agerraldia–. "Bertan sortu eta kudeatuko den energia kontsumitzeko ekoizpen berriztagarrien aldeko apustua egitea lehentasunezko erronka da", jeltzaleen arabera. Eta EH Bilduren udal gobernuek, "azken hiru urteetan", zentzu horretan ez dutela apenas ezer egin salatu dute, "erregai fosilen kontsumotik eguzki energiaren kontsumora eman beharreko pausoak ematea" exijitzearekin batera.

Jeltzaleek ohartarazi dute "bailaran kontsumitzen den energiaren %95 baino gehiago kanpotik datorrela eta zati handi batean, gainera, jatorria fosila dela; alegia, ez berriztaga-

ria". Horregatik, "trantsizio energetikoari ekiteko ordua" dela adierazi dute, "Leintz bailaran egingo duten moduan", azaldu dutenez.

Ekiola eredua

"Proiektu honen helburua bazkideak –herritarrak– instalazio fotovoltaikoen jabe izatea da, eta argindar kontsumoaren zati handi bati erantzuteko besteko energia-bolumena sortzea", adierazi dute EAJko ordezkariak: "Beste modu batera esanda, kanpoko energia iturrietako menpekotasuna murriztea eta energia berdearen alde egitea, hori da jeltzaleon apustua".

Leintzkoaren moduko egitasmoa aurrera eramateko, sortu-

"ENERGIA BERDE ETA ZERO KILOMETROKOA" BULTZATZEKO ESKATU DUTE JELTZALEEK AGERRALDIAN

ko litzatekeen kooperatiban "gutxienez 400 etxebizitzak" parte hartu beharko luketela azaldu dute, eta kontuan hartu beharreko aukera jo dute Antzuola, Elgeta eta Bergara elkarrekin sartzeko ekimenean.

EAJko eledunek gehitu dute Leintz bailaran dagoeneko martxan dagoen proiektua "urtebetean" egongo dela lanean, eta Bergaran, Antzuolan eta Elgetan ere "energia berdeen alde egiteko" garaiz dela oraindik, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzagako proiektura batuta edo pareko beste bat sortuta.

"Orain da momentua energia berriztagarrien alde egiteko. Eusko Jaurlaritzak laguntza asko ematen ditu, eta gure udalerriek ere egin ditzakete lurren kudeaketak, proiektu hauek garatzeko", adierazi dute Aintzane Oiarbidek, Maite Agirrek eta Basili Ormazabalek Bergarako batzokian egindako agerraldian.

GOIENA aldizkaria da audientzia handieneko hedabidea

Goienaren papereko euskarriak 24.000 irakurle ditu astero; lurraldeko papereko nagusiak, 7.000 egunero

Eneko Azkarate Laspiur ARRASATE GOIENA aldizkaria da audientzia edo irakurle kopururik handieneko Debagoieneko hedabidea. 24.000 irakurle ditu astero eskualdean –29.000 Gipuzkoan–. Hala dio CIES erakundeak Euskal Herriko hedabideen audientziari buruz egin duen 2022ko lehen neurketak. Goienaren beste euskarriek honako datu hauek dituzte: *Goiena.eus*-ek, egunero, 7.000 bisita (Google Analytics) eta Goiena telebistak, egunero, 6.000 ikus-entzule Debagoienean –Gipuzkoan, berriz,

8.000–. Goiena telebista da Gipuzkoako euskarazko tokiko telebisten artean ikusiena.

ETB2, ETB1, Euskadi Irratia eta Radio Euskadi dira Debagoienean ikus-entzule gehien dituzten telebista eta irratiak. ETB2k 21.000 ikus-entzule ditu egunero, ETB1ek 16.000 eta Euskadi Irratiak eta Radio Euskadik, 9.000 entzule.

El Diario Vasco-k, Gipuzkoako egunkaririk irakurrienak, 7.000 irakurle ditu egunero eskualdean. Debagoienean kontsumitzen da egunkari gutxien.

GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA KOOP. ELKARTEAREN

BATZAR OROKORRERAKO DEIA

Honen bidez, 2022ko ekainaren 16an, eguna, egingo dugun urteroko ohiko batzar orokorrerako deia egiten dut. Batzarra Arrasateko Kulturaren izango da, Jokin Zaitegi gelan, 17:30ean lehen deialdian eta 18:00etan bigarrenean.

GAI ZERRENDIA

1. Batzarreko akta onartzeko bi bazkide izendatzea.
2. 2021eko ekainaren 22ko batzar orokorrerako aktaren onarpen txostena irakurtzea.
3. 2021eko kudeaketaren memoria onartzea.
4. 2021eko kontuak onartzea.
5. 2021eko emaitzen erabilera onartzea.
6. Zaintza Batzordeko kideen txostena irakurtzea.
7. 2022ko kudeaketa plana onartzea.
8. 2022ko aurrekontua onartzea.
9. Errektore Kontseiluko kideak izendatzea.
10. Bazkide ekarpenen eguneratzea onartzea.
11. Kontuen auditoretza enpresarekin hitzarmena sinatzea onartzea.
12. Galderak eta eskaerak.

1. Euskadiko Kooperatiben Legearen 24.4 artikuluan arabera, bazkideei jakinarazten zaie euren eskura ditzutela kooperatibaren egoitza sozialean, ekitaldi Urteko Kontuak, emaitzen aplikaziorako proposamena eta Kudeaketa txostena jasotzen dituzten dokumentuak.
2. Era berean, Euskadiko Kooperatiben Legearen 36.7 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, beraz adierazten da bazkide guztiek eskubidea dutela kooperatibaren **egoitza sozialean aztertze**ko gai-zerrendako puntuei dagozkien agirik.

Arrasaten, 2022ko maiatzaren 23an

Monica Belastegi Aranzabal
Errektore Kontseiluko presidentea

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

"Badalab inorena ez denez, denona da"

MIKEL IRIZAR BADALAB-EKO LEHENDAKARIA

Berrikuntza eta hizkuntza uztartu nahi ditu Badalab egitasmoak; gauzak "beste era batera egin", emaitza desberdinak lortzeko. Eragile eta erakunde ugari batu ditu

Uxue Igarza Loiola DEBAGOIENA

Berrikuntza esparru askotan aplikatzen da egun, eta zenbait eragile eta erakunde hizkuntzara ekarri nahi izan dute. Horrela, Badalab sortu dute, Gipuzkoako Foru Aldundiaren *Etorkizuna eraikiz* ekosistemaren baitan.

Zergatik sortu da Badalab?

Euskararen biziberritze prozesuan, ahulezia edo neke zantzu batzuk sumatzen genituen –aspalditik ari gara horren inguruan hausnartzen– eta premia ikusi zen eremu horretan ere berrikuntza txertatzeko.

Noiztik ari zarete hau egosten?

Duela sei bat urtetik. Aldundian zuzendari nintzen garaian, gogoeta prozesu bati ekin genion euskalgintza sozialaren bueltan; *euskalgintzaren palanka* deitu genion. Euskararen biziberritze prozesuan neke zantzuak ikusten diren momentuan, zer egin pentsatu behar da. Gauzak berdin eginez gero, antzeko emaitzak lortuko dira; hortaz, galdera honako hau da: zer egin behar dugu desberdin? Gogoeta kolektiboa abiatu zen; deliberazio prozesu oso indartsua, hiru bat urtez. Ondorioztatu zen erreferentzia zentro egonkorra behar zela, berrikuntza sistematikoki esperimentatu, esploratu eta asmatzeko. Ideia guztiak –zoroak izan arren– batzeko leku bat sortu behar genuela, alegia. Eta hortik probatzen joan eta funtzionatzen duena politika publikoetara eta gizarte dinamiketara txertatzea zen asmoa.

Eragile ugari eta garrantzitsuak daude proiektuan: Soziolinguistika Klusterra, AEK, Elhuyar, EHU, Eusko Jaurilaritza, Euskalgintzaren Kontseilua...

Aliantza handia sortu da, sorreratik izan delako deliberazio partekatua bat eta lankidetzak publiko-sozialari garrantzi handia eman diogulako. Azken horri dagokionez, Debagoiengan



Mikel Irizar, Goienaren eraikinaren aurrean. ENEKO AZKARATE

"EMAITZAK BETIKOAK IZANGO DIRA GAUZAK BERTIN EGITEN BADITUGU; ZER EGIN, HORTAZ, DESBERDIN?"

badago eragile sozialek eta erakunde publikoek batera jarduteko esperientzia, eta guk ere eredu horri tiraka jardun dugu.

Momentuz, gobernu batzordean hamabost elkarte daude, baina horri deliberazio geruza handiagoa ere erantsi diogu; hau da, ez dago agintzen duen elitetik. Badago teoria bat esaten duena 40 pertsona arruntek lau adituk baino emaitza hobekak ematen dituztela. Hala, guk ere pertsona arruntez osatutako foroak sortzea erabaki dugu; hortik irtengo baitira emaitzak. **Eragileen artean, Debagoieneko ordezkariak zabalago dago, ezta?**

Bai, eta, gainera, normala da. Esan bezala, bailarak baduelako aspalditik gobernantza partekatuetan esperientzia eta halako dinamiketan zeresan handia.

Hizkuntzari dagokionez ere, irakurketa partekatua egiten duzue?

Bai; hortik etorri da dena, diagnostiko edo premia partekatutik. Soluzio partekatua bilatzeko asmoa dago, eta soluzio hori elkarrekin diseinatu eta elkarrekin gauzatu nahi da. Alde horretatik, Badalaben gobernantza oso esperimentu garrantzitsua izan daiteke, herri honen garpenerako ezinbesteko elementua baita lankidetzak publiko-soziala; hau da, gizarteko ekimenen eta erakundeen arteko harremana modu egonkorrean osatzea eta blindatuta egotea. Beste molde batzuk sortu nahi ditugu eta besteentzat erabilgarri egin.

Zein da erronkei heltzeko erabiliko duzuen modua?

Badalaben aditz bat erabiltzen dugu gehienbat: eragin. Esan nahi duguna da ez gatozela egitera –ez gara izango zentro handi bat eta ez dugu izango aurrekontu potolo bat–; gu eragitera etorri gara. Inor ordezkatu gabe, dagoen horretan eragin nahi dugu; gauzak beste modu batera eginez edo gauza berriak sortuz. Guk egingo dugun gauza bat, adibidez, lotura inprobableak sortzea da; asko gustatzen zaigu bestelako egoeretan harremanetan jarriko ez lirite-

keen eragileak uztartzea. Eta, jakina, euskaratik askoz harago dauden esparruetan ere muturra sartuko dugu. Esperimentuetan arituko gara. Teknologia berriak baliatu, aukera berriak sortu, esperientzia interesgarriak gurrera ekarri... Eta ahaleginduko gara guztiari irtenbideak ematen, askotariko jendea harremanetan jartzen eta txinpartak sortzen... Egingarria den hori prototipo batera eramango dugu, eta frogatu ostean funtzionatzen badu, politika publikoetara edo gizarte dinamiketara eramango dugu. Produktu bat bada, bestalde, enpresa edo aholkularitzaren batera bideratuko dugu. Hortxe ibiliko gara; kuxkuxean, loturak egiten, katalizatzaile lanetan.

Arantzazun egindako lehen lan-saioan 50 lagunetik gora elkartzin zireten. Nolako izan zen?

Erabaki-guneetako kideak egoiteaz gain, bidean zerbaitengatik Badalabekin topo egin dutenak ere bazeuden. Erantzun bikaina izan zuen. "Ez dut ia inor ezagutzen", esaten zuen jendeak, eta hori euskararen alorreko bileretan gutxitan gertatzen da. "24 urte ditut eta ez naiz gazteena", zioen beste batek. Beste freskotasan bat sumatzen da; hiltun trebeak ez izan arren euskararekin lan egiteko prest daudenak daude proiektuan murgilduta. Horrelako konplizeak beharko ditugu.

Egoitza fisikoa ere izango duzue. Bai, Errenterian; oso aurrerata dago. Halere, Badalab nomadaz ere hitz egiten dugu. Gure partaideak dauden tokian ere egongo da Badalab; ez dugu nahi toki fisiko edo lurralde batera mugatu. Hiltun komunitatearentzat sortu da hau eta Euskal Herri osoa elikatu nahi dugu. **Badalaben antzeko esperientziarik badago beste inon?**

Dakigula, ez. Ez dago berrikuntza eta hizkuntza propio lotzen dituen beste laborategirik, baina egon badaude hizkuntza txikien aldeko dinamika. Munduko hainbat txokotan problematika konpartituak ditugu, eta harreman zuzenak egin ditugu Europako zenbait elkarterekin; Garabide elkartearekin ere lankidetzak egingo ditugu. Naturan aintzasuna zaindu behar den moduan, hizkuntza terminoetan ere hala egin behar da.

Ateak zabalik ditu Badalabek?

Jakina. Badalab inorena ez denez, denona da.

Ines Osinagaren asmoak irabazi du Korrika-AEK beka

Ines Osinaga arrasatearra eta Olatz Salvador daude, besteak beste, Korrika-AEK kultur sorkuntzarako beka irabazi duen proiektuaren atzean. Beste hainbat lagunekin batera *#badon* proiektua aurkeztu dute: diziplinarteko hausnarketa artistiko kolektiborako sormen laborategi bat. Azaldu dutenez, artista garaikideen eta diziplinen arteko "zubiak eta elkarlanak bultzatzeko helburua" du proiektuak: "Euskal kulturaren transmisiorako egitasmo sendoak eraikitzea da erronka, horretarako askotariko eragileak saretzeko egiturak harilkatuz".

Aurkeztu diren hamahiru egitasmoak aztertu ondoren, epaimahaiak aho batez hartu du erabakia: "Ikuskizun bat egongo bada ere, oinarri bat utzi nahi du aurrera begira lantzen jarraitzeko (...) Hori gutxi balitz, orain arte ertzetan egon diren ideiak, ahotsak, gorputzak eta abar erdigunera ekartzeko proposamena egiten du".

Internet erabiltzen ikasteko egitasmoa, ikasleen eskutik

Mondragon Unibertsitateko LEINN graduko ikasleek –Guuk telekomunikazio konpainiak babestuta– *Konekta-tu* programa abiatu dute, adineko pertsonen eten digitala gainditzen laguntzeko. Oñatiko Campusean izango dira saioak, doan, astelehen eta egubakoitzetan, 10:00etatik 11:30era. Hilaren 30ean izango da lehenengo saioa, eta azkena, ekainaren 24an. 623 16 58 37 telefono zenbakira deituz eman daiteke izena.

Saioetan, eskuko telefonoak eta ordenagailuak nola erabili erakutsiko da, eta baita Whatsapp, Google Maps, Google Calendar eta antzeko aplikazioek nola funtzionatzen duten ere. "Adineko pertsonen %68k ez dute teknologia eguneroko bizitzan erabiltzeko adinako trebetasun digitalik. Testuinguru horretan, prestakuntza funtsezkoa da eten digitala murrizteko eta adineko pertsonen gizarte-bazterketa gutxitzeko", azaldu dute egitasmoaren sustatzaileek.

TXATXILIPURDI ELKARTEA

Aisialdiaren plazeretik, unean uneko jendartean eragiten

Hitz baten erroaren atzean kokatzen den morfema da atzikia. *-ago* graduatzaileak, esaterako, izaera edo neurria jartzen dio adierazi nahi den horri. Altuago; lasaiago; gertuago.

Txatxilipurdi Elkarteak ia hiru hamarkada daramatza haurren, nerabeen eta familien aisialdia graduatzen. Gizartearen unean uneko errealitatetik abiatuz, jendartean eragiten.

Zubiak

Arrasate Euskaldun Dezagun elkartearen baitan, aisialdi hezitzaile euskaldunagoa bultzatzeko sortu zen, 1988an, Txatxilipurdi. Ekin Emakumeak elkarteak bezala, egitura propio gisa bidea egiten hasi zen sei urte geroago. Antzekoak dira Goiena Komunikazio Taldearen hastapenak ere.

Egiturak banatu arren, elkartearen arteko zubiek bere horretan dira: elkarlanean, euskararen biziberritze prozesuan eragiten. Kasu honetan, hezkuntza ez-formalean eta aisialdiko plazerak baliatuz.



Txatxilipurdiko hainbat kide, hezitzaileei eskainitako formazio saioetako batean.

"Ibilbide dinamikoa"

Oinarri izan arren, gizarte euskaldunagoa bilakatzea ez da Txatxilipurdiren aisialdi eskaintzek bilatzen duten eragite esparru bakarra; "beste jendarte" eredu baten alde "lan eraginkor eta

koherentea" egitea dute bide-orri gisa hartuta.

Aipatutako sorrerako oinarritik harago, jendarte zoriontsuagoa, kritikoagoa, zaintzaileagoa, hezitzaileagoa, parte hartzaileagoa, sortzaileagoa, feministagoa,

inklusiboagoa eta horizontalagoa dute helburu. Eta *-ago* atzikia gehitzen diote helburu orori, "ibilbide dinamiko" gisa ulertzen baitute prozesua, egungo errealitatetik abiatzen den ibilbidea, alegia.

Aniztasuna

Askotarikoa da Txatxilipurdik gizarteari egiten dion eskaintza. Jardun nagusia udaletxeetako Ludoteka eta Gaztetxokoen kudeaketara bideratzen duten arren, herriz herri aritzen dira Euskal Herrian haurrentzako, nerabeentzako eta familientzako kultur eskaintzak antolatuz. Baita *Berramesten* sailean irakasleentzako eta hezitzaileentzako formakuntza saioak eskaintzen, udaleku irekiak eta itxiak kudeatzen, eta gurasotasunaren eta hezkuntzaren inguruan hausnartzeko *guraso.eus* atari digitala elikatzen.

Hamaika dira eragite esparruak, eta beste hainbeste dira Txatxilipurdik esku artean dituen egitasmo eta eskaintzak.



📍 Nafarroa Etorbidea 23, Arrasate

☎ 943 79 54 46

✉ txatxilipurdi@txatxilipurdi.eus

🌐 www.txatxilipurdi.eus

SAIOLAN

Ekintzaileen eta proiektu berritzaileen bidelagun

Ongarriak lur eta landareekin bezala, ekintzailetza kulturaren baitan bada Garaia Parke Teknologikoan proiektu eta prototipo berriei laguntza eta tutoretza eskaintzen dien enpresa bat: BIC Gipuzkoa Saiolan.

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko ikasleei "enpresen kudeaketa arloan formakuntza emateko eta euren enpresak osatzen laguntzeko" sortu zen 2010ean, helburu

bakarra gomutan: industriari lotutako lanpostuak sortzea.

Geroztik, 100 bat proiektu edo kontsulta jasotzen dituzte urtero, eta dirulaguntza, promozio zein garapenetan eskainitako bitartekaritzaren ondorioz, 15-16 enpresa berri edo dibertsifikazio sortzen dira. Komunitateari laguntzea xede, proiektu berritzaile bat esku artean duen edonork ditu Saiolaneko atea irekita; baita Goiena Komunikazio Taldeak ere.



📍 Goiuri kalea 1 A-4, Arrasate

☎ 943 71 20 72

✉ info@saiolan.com

🌐 www.saiolan.com



Garaia Parke Teknologikoan daude Saiolanen bulegoak.

goiena[“]
kide

Okm: batzen gaituen distantzia



www.goiena.eus/kideak



ZABALIK

OSKAR ELIZBURU

Ateak zabal-zabalik

Larunbatean Donostia tope jendez beteta! Eguraldi onagatik hondartzara? Turistak pintxo janera? Izango ziren horietatik ere, jakina; baina ez, *Euskara aurrera* manifestazioak bildu zuen jende andana azpimarratu gura dut.

Poztekoa da milaka eta milaka euskaltzale, adin eta izaera askotarikoak, elkarrekin ikustea; giro onean, baina aldarrikapen argiekin: euskaraz bizi ahal izatea ez dago normalizatuta; hizkuntz politika eraginkorra jarri behar dugu martxan berehala; guztiok eta bakoitzak dugu ardura aldaketa e(ra)giteko.

Poztekoa da azken ekitaldian parte hartzeko eta aldarrikapenerako dagoen herri gogoa ikustea, sentitzea... 22. Korrikan, Herri Urratsen eta larunbateko manifestazioan euskararen aldeko ekina ikusi dugu, argi eta indartsu. Euskara

ODOL BERRIA ERAKARRI NAHI NUKE ANTOLAKUNTZARA: IDEIAK EMATERA, MOLDEAK ALDATZERA...

kalera ekartzeko beharra eta premia ikusi dugu, azken urteotako etenaldiari eta beheranzko joerari aurre egiteko, baita erasoei ere.

Poztekoa da, halaber, manifestaziorako deialdia gazteek egin izana,

euskalgintzakoen eta gizarte eragileen atxikimenduari. Odol berriak indar handiagoa dauka; eta gazteak konpromiso honetan ikusteak animatu gaitu, dudarik gabe, horrelakoetan aspaldi etengabe gabiltzanak. Lan-modu berriak eta lidergo berriak behar ditugu, dudarik gabe.

Poztekoa da, bukatzeko, ekimenerako gogoa izatea; eta hori da gaur aldarrikatu nahi dudana: konpromisoa behar da ekintzetan parte hartzeko, hizkuntza egunero erabiltzeko, euskara ikasteko eta hobetzeko eta, jakina, antolaketarako.

Azken atal honetan indarra jartzeko beharra ikusten dut, odol berria erakarrari nahi nuke antolakuntzara; hau da, ideiak ematera, moldeak aldatzera, barrutik lidergoak hartzera. Horretarako aukera ezin hobea izango da 3. Euskaraldian, eta orain da heltzeko uena, antolaketarako ateak zabal-zabalik daude. Aterako al dugu euskara aurrera?

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Azken astea

AITZOL ATUTXA

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Nora iritsi nahi duzu? Zein da zure helburua? Zein pauso eman behar dituzu? Nor izango da zure bidelagun? Zergatik? Zertarako? Izan daiteke bizitzako edozein esparrutan. Lanean, etxean, festan edo kirolean; berdin du.

Jarri duzu helmuga, aukeratu dituzu bidelagunak. Bilatu dituzu bultzatzen zaituzten akuiluak, eta hasi zara bidea egiten. Hasieran gogotsu, fresko-fresko, baina lasaitasun handiz. Urruti dago azken pausoa. Ez duzu presarik eta zure gogo bero horiek epeldu egin dira.

Baliteke bukaera horretara heldu gabe geratzea; beraz, gozatu bideaz, gozatu bidelagunez eta jarraitu ingurura begiratzen, momentu batez zure helburua lausotu egin daiteke tontorra lainoz bete eta ibilbidea besterik ez da geratuko gure oroitzenen kutxan.

Azken txanpa dator, azken pausoak, azken hasperenak, azken loak. Gutxi aurreratu daiteke lasterketa baten azken kilometroan, gutxi ikas daiteke azterketa baten sartu aurreko azken minutuetan. Baina zein garrantzitsuak diren azken pauso horiek, askotan azken horrek markatzen baitu ezberdintasuna. Bukaera

horrek ematen dio oreka aurretik egindako lan horri guztiorri.

Nola bilatu oreka hori? Baina nola kudeatzen da? Nola uztartzen dira urduritasuna eta pazientzia? Errezeta horren bila dihardut. Joan den urteetan, eta milaka plazatan eta tokitan aritu naizen arren, sekula ez da bat ohitzen azken momentu horietara.

Astebete besterik ez da falta euskal pentatloia hasteko, lehenbiziko kanporaketa izango da maiatzaren 28an. Eta kanpotik beste kirol ekitaldi bat ikusten baldin bada ere, egunerokotasuneko gauza guztiok badute lehen aldi bat eta lehen aldi guztiok ekartzeko dute udaberri bat berarekin.

goiena

KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantxabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza,
Edurne Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Bereziabar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X

Tirada: 19.000 ale

Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

BERBAGAI

"Hemen jaio arren etorkin gisa ikusten ditugu gazte asko"

ARKAITZ FULLAONDO IMMIGRAZIOAREN EUSKAL BEHATOKIKO IKERLARIA

Larraitz Zeberio Lekuona ARRASATE

Gazte migratzaileen integrazioari buruz aritu da asteon, Arrasaten, Arkaitz Fullaondo (Leioa, 1980).

Zenbat gazte migratzaile ditugu euskal gizarteak?

Gaur egun, jatorri atzerritarreko -Espainiatik kanpo jaiotakoak- 0-15 urte arteko 17.000 gazte daude Euskal Herrian erroldatuta. Gehitzen baditugu Euskal Herrian jaio diren baina jatorri atzerritarreko familiak dituzten 0-15 urte arteko gazteak, 25.000 dira.

Handitzen doan fenomeno da?

Bai; arrazoi nagusiak bi dira: alde batetik, migrazio fluxuek gora egiten duten heinean, jatorri atzerritarreko populazioak gora egiten du; bestalde, finkatuta dauden familiek seme-alabak dituzte, eta hemen bereizi behar ditugu gazte migratzaileak -kanpotik etorri direnak- eta jatorri atzerritarreko familia batean jaiotako euskal gazteak. Askotan, nahastu



Arkaitz Fullaondo. L.Z.L.

egiten ditugu, eta migratzaile bezala tratatzen ditugu, baina haur eta gazte horiek hemen jaiotakoak dira, eta, beraz, euskal herritarra dira.

Bigarren belaunaldi horiek zein ezaugarri dituzte?

Askotan, *integratio* hitza erabiltzen dugu. Esaten dugu immigrazioa integratu egin behar dela, baina hemen jaiotako ume batek ez du integratu behar. Inklusioari eta kohesio sozialari buruz

hitz egin beharko genuke. Kontua da gizarteak etorkin bezala tratatzen dituela, eta bazterketa bezala sentitzen dute hori. Euskal gizarteak gero eta naturaltasun handiagoarekin bizi du aniztasuna, baina argi dagoena da, oraindik ere, etorkin bezala tratatzen ditugula bizitza osoa hemen egin duten hainbat pertsona. Denborarekin horrek aldatu egin beharko luke.

Zeintzuk dira aldaketa horretarako gakoak?

Hainbat dimentsio daude. Bat eta oso argia da dimentsio sozioekonomikoa. Jatorri atzerritarreko populazioaren %30 bizi da pobrezia egoeran, eta langabezia tasa %20-30 da. Arrakala soziala nabarmena da. Eta gazte eta ume horien mugikortasun soziala ere badao. Hemen hezkuntza da gakoa. Hezkuntza sistema mugikortasun sozial positibo bat izateko tresna izango da ala ez? Hor beste erronka bat. Hirugarrenik, nabarmenduko nituzke kultura aniztasuna eta aniztasun linguistikoa. Hizkuntzaren ezagutza oso garrantzitsua da. Etorkinei galdetzen diegunean zein den haien integratio pertzepzioa, euskara dakitenek sentitzen dute hobeto integratuta daudela.

Integratioari buruz ari garenean, zeri buruz ari gara? Zeintzuk dira integratio maila neurtzeko parametroak?

Integratioa neurtzen da giza harremanen nolakotasunean; noizekin eta nolako harremanak dituzte etorkinek? Parte-hartze soziala ere garrantzitsua da; zein elkartetan eta ekintzatan hartzen dute parte? Garrantzitsua da baita ere egoera sozioekonomikoa, laborala, linguistikoa...

Jatorriaren arabera bereizketak egiten ditugu euskal gizarteak?

Argi ikusten da baiet ikuspegik urtero egiten duen barometroan. Euskal gizarteak ez dio sinpatia handirik islamari, eta erlijio horrekin lotura duten kolektiboek adeitasun gutxi jasotzen dute: Pakistan, Maroko...

Egoera zailagoa da emakume izateagatik?

Askoz ere zailagoa da emakumeendako. Interseksionalitateari erreparatuta, askotan diskriminatuak dira etorkinak direlako, beste arraza batekoak direlako, eta, baita ere, emakumeak direlako. Diskriminazio multzoak askoz ere handiagoak dira.

ITURRI ONETIK

Puntaik Punta Arrasaten urrian

Puntaik Punta Debagoieneko Bidezidorren Jaialdia Arrasaten ospatuko da aurten, urriaren 14an, 15ean eta 16an. Seigarrena izango da eta iaz Antzuolarekin hasitako bideari segida emango zaio, udazkenean eginez udaberrian egin ordez. 2016an egin zen lehenekoz jaialdia, Leintz Gatzagan; ostean, Bergaran, Aretxabaletan, Eskoriatzan eta Antzuolan egin da; 2020an ez zen egin, COVID-19agatik. Iaz, 50.000 euroko aurrekontua izan zuen. Mendi ibilaldiak, natura-jarduerak eta musika emanaldiak dira jaialdiaren oinarria.

ALBISTE IZAN ZEN

2009-05-22

AP-1 autobide osoa amaituta eta zabalik

Maltzaga eta Etxabarri Ibiña arteko autobidea erabat amaituta, 2009ko maiatzaren 22an ireki zuten. Arrasate eta Eskoriatza artekoa izan zen azken zatia. Egun historikotzat jo zuen Markel Olano Gipuzkoako ahaldu nagusiak. Zinta mozteko ekitaldian, Ino Galparsoro Arrasateko alkateak eta Iñaki Arriola sailburuak ere hartu zuten parte. Hamar urte behar izan zituzten autobide osoa egiteko. Bergaran hasi zituzten lanak, 1999an.



GOIENA

HAU BE BADOGU!

Euskararen erabilera berbagai Twitterren

Kaleko erabilera datuek zeresana eman dute *txiolandia*-n, #euskara traolarekin:

@*ibon_iza*: "Minorizatuta, zapalduta, menperatuta, baztertuta dagoen hizkuntza da gurea. Eskubideez eta elkarbizitzaz hitz egiten digutenean, hori da gure abiapuntua".

@*zihortz*: "Azken hamarkadan Gipuzkoan erabilerak 2 puntuko beherakada auki dau. Gogoeta egin beharko giñuke gutariko bakoitzak zer in ahal dogun azterketako emaitzak hurrengo baten hobeagoak izan daitezen".

D2030: ELKARRIZKETA

Miren Arregi ANTZUOLA

Erronka globalei txikitik eragiteak duen pisuaren jakitun, Beñardo Kortabarriak eskualde mailan lan egiteak duen ahalmenean sinisten du. D2030en sareko kide, azkar batean martxan jarriko diren hainbat proiektuekin bat egin du Udalak.

Zein da Antzuolak eraldaketa sozialarekiko duen lotura?

Antzuolan dauden hiru enpresa handitatik bi kooperatibak dira, bertako jendeak bertan sortutakoak. Eraldaketa sozialarekin lotura duten enpresak dira, badutelako tradizioa bertako ekonomian eraginez elkarlanetik lan egitekoa. Hori kooperatiben ikuspegitik, baina lan arlo hori alde batera utzita, esango nuke gurea komunitatean lan egitera ohituta dagoen herri bat dela. Hor dago eskolako eraikuntza bera, Alardeari eman zaion buelta hori edo beste hainbat arlotan, bai kirolean edo kulturaren egiten diren ekintzak. Guztiak elkartasunetik eta inor bazterrean utzi barik egiten dira.

Herri txikietan zein izaera hartzen du gai horrek?

Nik uste dut ez dugula gai moduan hautematen. Ez gabilta zerbait egiten eraldaketa sozialean sinisten dugulako. Nik uste dut gauzak egiteko modu bat dela, halabeharrez sortutakoa. Baliabideak ere murriztazagoak dira eta denon artean gauzak egitea ezinbestekoa da. Horrenbeste aipatzen den auzolana egiteko modu bat da. Gaur egun esango nuke zailagoa dela, egia da kosta egiten zaigula. Administrazioa zerbitzuak ematen hasi zen momentutik apur bat lausotu egin da auzolana; halere, oraindik ere badago. Izan ere, herri txikietan parte hartzerik ez da falta izaten.

Udaletik bultzatzen dituzue parte hartze eta elkarlan bideak?

Guri tokatzen zaigu parte hartze bideak zabaltzea. Batzuetan lortuko da, beste batzuetan ez. Besteak beste, gure helburua da herritarrek sentitzea herri bat garela. Ez dela erdaldunen herri bat, edo

"Energia berriztagarrien alde egin behar dugu, hori argi dago, baina ez edozein modutan"

BEÑARDO KORTABARRIA ANTZUOLAKO ALKATEA

D2030ek hasitako eraldaketa prozesua bere egiten du Antzuolako Udalak. Alkateak argi du sektore publikoak izan behar duela prozesu horretan gidari



Beñardo Kortabarria, Antzuolako udaletxearen. B.K.

bakarrrik euskaldunena; edo bakarrrik gizonezkoena, edo bakarrrik emakumezkoena; edo bakarrrik dirua dutenena... Guk gure ekarpena egiten dugu hortik.

Herri txiki moduan badituzue abantailak erronka globalei – klima, inklusioa, lana, osasuna... – erantzunak emateko garaian?

Oso zaila da erronka globalei aurre egitea, baina txikitik egin behar da handian eragiteko. Horretan saiatzen gara, behintzat.

Energia berriztagarrien gaia dago orain pil-pilean.

Bai, eta energia berriztagarrien alde egin behar dugu, baina ez edozein modutan. Esaterako, Irimo gainean bi aerosorgailu jartzeko planteamendua egin dute, eta bai, energia berriztagarriak beharrekoak dira, baina pentsatu dezagun zer, zela eta non. Hemen bi erraldoi jartzea, zeintzuek sortuko duten Zumarragak, Urretxuk eta Antzuolak behar

duten energia baino askoz gehiago... Gainera, seguru enpresa pribatu batek eraikiko dituela diru publikoarekin. **Herriko eraikin publikoak energia berriztagarri hornitzeko proiektua martxan duzue dagoeneko. Zelan dago?**

Eskolako eta frontoiko teilatueta plaka fotovoltaikoak jarri genituen. Biak zabalak dira eta orientazio ona dute. Horrekin lortzen duguna da 500 metroko erradioan dauzkagun eraikin publikoen energia hortik asetzera. Bestetik, Energia Berriztagarrien Komunitateak bultzatzen ere badihardugu. Bada herrian natur baliabideen inguruan lanean ari den talde bat, auzoz auzo bilerak egiten ari dena, eguzki energia erabiltzearen abantailak proposatuz. Udalak ere badu ordezkari talde horretan.

Antzuolarendako proiektu estrategikoa da?

Estrategikoa baino gehiago, goazen norabidean eman beharreko pauso bat da. Nik uste dut lehenengo eta behin kontsumoan aldaketak eman behar ditugula. Hondakinetan egiten den moduan, ahalik eta gutxien sortu behar dugu, gero bereizi, eta bereizi ondoren, birziklatu. Energiaren kasuan berdina da. Fabrikara autoz joan beharrean bizikletaz joan bagaitzke, aldaketa hori egin behar genuke. Horrek erregaiaren kontsumoa jaistea ekarriko luke; gainera, modu

osasuntsuan egiten da... lantegira joateko bidegorriak egin beharko ditugu, agian... Baina murrizketarena bultzatu behar dugu, ezinbestean etorriko da. Argindarra hartzen ari den prezioarekin, ohiturak ere aldatuko dira. **Zein beste proiektu duzue esku artean?**

Kaleko argiteria aztertzen ere badihardugu, merkeago eta energia gutxiago erabiliz argiztatzeko. Energia sortzeko uraren sistema erabili genezakeen aztertzen ere badihardugu. Bestetik, ura Urkulutik ekartzen dugu une honetan eta gura duguna da Antzuolako ura erabili ahal izateko zein inbertsio egin beharko litzatekeen aztertu.

D2030ekin elkarlan bideak ireki dituzue. Zergatik?

Hasteko, Antzuola Debagoiena da, eta gure herriak badu eskualde mailan ekarpenik egiteko, baita jasotzeko ere. Esaterako, D2030ek laster batean martxan jarriko duen energia trantsizioan eragiteko esku-hartzearen baitan, Antzuolak parte hartuko du hainbat proiektutan. Birgaitzen proiektua dago hor –etxebizitzaren isolamenduan laguntzeko proiektua–, pobrezia energetikoaren inguruko lanketa ere martxan dugu D2030ekin batera, ikastetxeekin garatuko den beste proiektu baten ere egongo gara. Guk bat egiten dugu ekimenarekin eta uste dut, gainera, ezinbestekoa dela sektore publikoak horren lidergoa hartzea. Goazen erantzutera eskualde moduan datozten erronkei, bestela ez gara-eta ongi ibiliko.

"USTE DUT EZINBESTEKOA DELA SEKTORE PUBLIKOAK D2030EN LIDERGOA HARTZEA"

"KONTSUMO OHITURAK ALDATU BEHAR DITUGU, MURRIZTEA EZINBESTEKOA DA"

Herrian egin diren pintaketen harira, Andramanuelak-en oharra

AMAIA RAMIREZ DE OKARIZ

ANDRAMANUELAK TALDEA
ANTZUOLA

Pintaketa ugari egin dira azken asteotan herrian, zenbait eremu eta jabetza kaltetuz, eta hori bera salatu nahiko genuke lehenbizi. Herria guztiona den heinean, zaindu beharrekoa da.

Dena den, pintaketen edukian jarri nahiko genuke arreta. Irudi horien margoketa ez

baita kasualitatea. Bai, zakilak dira gehienak. Baina zerk garamatza horretara?

Falozentrismoak adiera bat baino gehiago izan ditzake, baina bada nabarmen azaleratzen den bat: zakila erdigunean jarrita, gizartearen ordenan nagusi izateko nahia. Gizontasunaren adierazlea. Hori da errepresentatzen duen puntuetako bat, egungo gizartean oraindik ere, eta tamalez, egon badagoena.

Espazio publikoak pribatizatu egiten dira,

gizontasun horretatik okupatu, irudi bakar batek gaitasun hori ere izan dezakeelako. Baina errotik egin behar da aldaketa.

Norberarengandik hasi, eta onar ditzagun gure gorputzak, hitz egin dezagun gure gorputzei buruz, eta gorputzetatik.

Guztionez lekua dagoelako, egon beharko lukeelako. Egin ditzagun espazioak ere gure.

Herri feminista eraikitzen jarraituko dugu, feminismoa ez delako zerrendetan

egon behar duen balioetako bat, egunerokoan halabeharrezkoa baizik.

Eskerrik asko!

NEREA AGIRRE, AMAIA ARREGI ETA IRATXE AGIRRE

URGAINEN GURASO ELKARTEEN IZENEAN
ONATI

Guraso elkarteetatik eskerrik asko erraldoia bidaltzea besterik ez zaigu ateratzen hilaren 14ko egun borobilaren biharamun ederretik.

Eskerrik asko urgaindar komunitate oso-osoari. Frogatuta gelditu zen

ilusioz eta, batez ere, elkarlanean gauza ederrak lor daitezkeela. Zapatu hartakoa mundiala izan zen!

Mila esker denoi hor egoteagatik, lan ikusgarri eta ikusezin pila bat egiteagatik, parte hartzeagatik, izateagatik eta elkarrekin ametsak egia bihurtu daitezkeela frogatzeagatik.

Ziurrenik, harien bat zintzilik utziko genuen, ertzen bat zorrotz... Baina, denaren gainetik, urtetik eta urtera hobetzeko ahaleginean... bidelagun izaten jarrai dezagun! Bejondeizuela denoi!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakararekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus


Salaketa-gutuna Eskertza-gutuna Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali gutunak@goiena.eus helbidera!

Erantzun-gutuna Aldarrikapen-gutuna Kexa-gutuna

HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA



Bizilagunen iritziak jaso, berrurbanizazioa egiteko

Santa Teresa, Doneztebe Portuko, Agerre eta Galizia kaleak berrurbanizatu gura ditu Udal Gobernuak; horretarako, baina, bizilagunen iritziak jaso gura ditu, lehenik, eta Deitel Direct SL enpresa arduratuko da azken horretaz, etxez etxe inkesta bat eginez

Eneko Azurmendi ARRASATE

Auzoko igogailu sistema egiteko lanak hastearekin batera eman du Gobernuak parte-hartze prozesuaren berri. Udaleko Obrak, Zerbitzuak, Mantentzea eta Auzoak Sailak eta Santa Marina auzo-alkatetzak elkarlanean egingo dute prozesu hori, eta Deitel Direct SL enpresa arduratuko bizilagunen iritzia jasotzeko. Patxi Arratibel enpresako ordezkariaren esanetan, ahalik eta lagin zabalena lortu gura dute, "ahalik eta auzotar gehien iritziak jasoz". Metodologiari dagokionez, lehenik, telefono bidezko inkestak egingo dituzte eta auzoan dauden 450 bat etxebizitzetara iristen saiatuko dira. "Inkestetan galdera zehatzak egingo ditugu, 10-12 galdera inguru oinarritzko informazioa jasotzeko".

Ostean, "gaian sakontzeko", elkarriketa luzeagoak egingo dituzte auzoko agente sozialekin: auzo-alkatetzarekin, Avesantes elkartearekin, Toki Argi erretiratuaren elkartearekin, Arizmendi Ikastolarekin eta abarrekin.

Batutako informazioarekin txosten bat egingo dute, ondorio guztiak jasoko dituen. "Behar nagusiek edo gehien errepikatzen diren inportantzia nabarmenagoa izango dute txosten horretan, eta, behin bukatuta, Udal Gobernuari helaraziko dizkiogu". Inkestak ekainean egingo dituzte, eta ostean, elkarriketekin hasiko dira. "Beraz, irail bukarako txostena bukatuta izatea aurreikusten dugu".

Victoriano Fuentes Obrak, Zerbitzuak, Mantentzea eta Auzoak Saileko zinegotziak parte hartzeko eskatu die bizilagunei. "Deia jasotzen dutenean, inkesta erantzun dezatela eskatu gura diet, lanak errazteko".

2005etik, "kaxoi batean"

Maria Ubarretxena alkateak adierazi duenez, 2005ean egin



Udal ordezkariak, auzo-alkatearekin eta Deitel Direct SL enpresako kidearekin. E.A.

EKAINEAN TELEFONO BIDEZKO INKESTAK EGINGO DIZKIETE AUZOTARREI, 10-12 BAT GALDERAKOAK

zen auzoaren berrurbanizazio proiektu bat, baina orain arte "kaxoi batean sartuta egon da" udaletxean eta "inork" ez dio horri heldu. "Orain, proiektu hori oinarri moduan hartu eta eguneratu egingo dugu, auzotarren iritzia aintzat hartuta".

Arratibelek gaineratu du haien txostena "erraza" izatea gura dutela, "hau da, aurretik eginda dagoen proiektuan txertatzeko arazorik ez duena izango".

Datorren agintaldira begira

Parte-hartze prozesua bukatzean, proiektua eguneratu eta idatzi egin beharko da. Gero, obrarako pleguak atera, eta ondoren, lizitatu. "Epe horiek kontuan hartuta, urte eta erdi edo bi urte pasa beharko dute obra egiten hasteko. Beraz, agintaldi honean proiektua bukatuta utziko dugu", azaldu du Ubarretxenak.

Hala ere, 2023an udal hauteskundeak direla kontuan hartuta, hurrengo Gobernuaren esku geratuko da proiektu hori gauzatu edo ez.

Avesantes elkarte "haserre" agertu da azken horregatik. "Orain arte Gobernuan egon den inork ez du interesik erakutsi auzoa hobetzeko, eta berandudator hau. Izoratu egiten gaitu, orain martxan jarritako prozesu hau guztia, agian, ez delako gauzatuko, Gobernu aldaketa gertatzen bada ez dakigulako zer egingo duen hurrengoak", adierazi dute.

Hainbat eskaera dituzte

Avesantes elkarteak argi ditu eskakizun nagusiak: mendi-magaletik datozen urak behar bezala kanalizatu eta batu: "Izan ere, auzo osoan filtrazioak eragiten dituzte ur horiek"; eskailera kendu eta arrapalak jarri, irisgarritasuna hobetzeko; Doneztebe Portuko kalerako sarre-rra hobetu; Agerre kalearen atzeko aldean espaloi bat jarri, "bizilagunek eskailera arrisku-tsu horiek igo beharrik ez izateko"; eta ikastola ondoko apartamentuak hobetu.



E.A.

'Dragoi dantza', kartel irabazlea

Naiara Errasti eskoriatzarraren *Dragoi dantza*-k irudikatuko ditu aurtengo sanjuanak. "Dragoia hartu dut oinarri. Gero, sua eta suaren inguruan sortzen den dantza magiko antzeko hori irudikatu gura izan dut, elementu ezberdinekin eta testurekin. Tipografia ere suaren adierazgarri izan dadin saiatu naiz eta kolore beroak erabili ditut, morearekin batera", azaldu du.

Aurtengo kanpaina 3.339 liztor beltz erregina harrapatu dituzte

"Espezie inbaditzaile horren" habia berriak ikusiz gero jakinarazteko eskatu die herritarrei udal teknikariak

E.A. ARRASATE

Apiril hasierako elurtea tarteko, astebete atzeratu dute kanpaina, eta maiatzaren lehen astean kendu dituzte herrian zehar sakabanatuta jarritako 44 tranpak. Udalak jarritako tranpa horietan 2.139 liztor beltz erregina harrapatu dituzte eta modu boluntarioan herritarrek jarritako tranpetan, berriz, 1.200. Beraz, guztira, 3.339 izan dira kanpaina harrapatu dituztenak.

Halaber, dagoeneko lehenengo liztor habia txikiak kentzen hasita daude, eta hemendik aurre-

ra, "handitzen eta nabarmentzen" hasiko dira liztorrak egiten dituzten lehen mailako habiak. "Etxeetako teilatu-hegal, garaje, txabola eta antzeko teilatupeak izaten dituzte gustukoen habiak egiteko. Gerora, lehen mailako habiak garatutakoan, zuhaitz-tara joango dira bigarren mailako habiak egitera", dio Xabier Herrarte udal teknikariak.

Hala, herritarren parte-hartzea "funtsezkoa" dela dio, "espezie inbaditzaile kontrolatzeko", eta habia berriak ikusiz gero 628 11 56 73ra dei egiteko eskatu du.

OHARRAK

Abaroa elkartearen batzar orokorra

Ekainaren 9an egingo dute, Etxaluze eraikinean, 16:30ean.

'Adin-adin' bertso saioa Iturbide egoitzan

Gaur, egubakoitza, Maider Arregi eta Anjel Mari Peñagarikano ariko dira bertsoetan, 19:00etan hasita.

'Harristi'-ren erretiroa ospatzeko bazkaria

400 lagunendako bazkaria egingo dute Uarkapen, 14:00etan.

1946an jaiotakoek kintada egingo dute bihar

Hotel Mondragonen izango da. Informazio gehiagorako, bi telefono zenbaki: 688 64 81 27 (Luis) edo 665 70 41 11 (Osane).

Kataideko bidegorri zati berria erabilgarri dago

Azkenean bai, guztiz berritu dute Kataide poligonotik Elorregirantz doan 690 metroko bidegorri zatia; 2019an lortu zuten horretarako akordioa Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Arrasateko Udalak, eta, hainbat gorabehera tarteko, asko atzeratu da exekuzioa



Bi herritar, berritu berri duten bidegorri zatian oinez. E.A.

Eneko Azurmendi ARRASATE

Ander Iturri Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko zuzendaria "pozik" agertu da egin den lanarekin. Era berean, balioa eman dio Debagoienean egin den bizikleta bidezko eta oinezko mugikortasunaren aldeko apustuari: "Foru bidegorri sarea osatzen ari gara pixkanaka, eta egoera soziosanitarioen ondoriozko erabilera berrietara egokitutako mugikortasun ziklistako azpiegiturak ere sustatzen ditugu".

Pandemiaren harira, mugikortasun aktiboa asko hazi dela dio Iturrik eta horri azpiegiturerekin erantzun behar zaiola gaineratu du. "Aldaketa sozialei apustu politikoei erantzun behar zaie".

Akordiotik hiru urtera

Hainbat gorabehera tarteko, hiru urte geroago gauzatu da bi aldeek adostutakoa. Eragin duen elementuetako bat Deba ibaia

izan da. "Ibaiaren ondotik doan bidea da eta horrek gainbegiraketa gehiago egin beharra dakar. Uraren Euskal Agentziarekin elkarlanean aritu gara, obra honek ez zezan eragin ibaiaren bidean. Horrez gain, garrantzitsua zen obrako hondakinek ibaiko faunan eta floran inolako eraginik ez izatea. Jarraipen zehatza egin behar izan diogu obrari, baina, trukean, emaitza bikaina izan da".

Mugikortasun seguruaren alde

Ander Garay zinegotziak adierazi du helburu nagusia dela "ibilgailuek duten inpaktua murriztea eta mugikortasun aukera berriak sustatzea". Mugitzeko bizikleta aukeratzen dutenen mugikortasun seguruaren alde egin du, eta Arrasaten bide horretan lanean ari direla gaineratu. Victor Fuentes zinegotzia ere pozik azaldu da emaitzarekin. "Zoragarri geratu da; erabiltzaileek goza dezatela".



NIRE USTEZ

MARIXE RUIZ DE AUSTRI

Erreka gorria

AK-47 bat eskuetan jendeari tiroka merkatu batean. Errifle automatiko baten laguntzaz eskola bateko umeen sarraskia. Bomba auto bat lehertu eta hamarnaka hildako. Gorputz zatiak lurtean zehar barreiatuta eta erreka gorria. Burua poltsa batez estalita duenari lepoa moztu labana batekin. Norbait harrikatu.

Baita hondarretan kamiseta zartatu bat eta metro batzuk haratago haur bat zena, orain gorpu. Senarrak kolpeka erail duen emakumearen berrian "hil egin da" jartzen du. Lanean ari zela istripua izan eta erail duten langilea ere "hil egin da". Laneko elkarrizketan hautagai batzuei haurdun geratzeko asmorik duten galdetzen da oraindik. Familia bat etxegabetu dute eta beste bati elektrizitatea moztu, negua da. Prezioak gora eta etxe askotan armairuak hutsago. Gaztelera z ondo ez aritzearren barre egin dio medikuak 10 urteko haurrari.

Ez dira hizkuntza eskubideak, ez langileenak, ez migratzaileenak, ez emakumeenak, ez talde gutxituenak, ez nazio zapalduenak betetzen. Indarkeriak baditu milaka aurpegi. Eta denek dakarte erreka gorri hotsa.

Maiatzak 28

MARIACHI FESTA

Tolin el Mariachi

13:00 Txoko

Mariachi Zacateca

19:00 Herriko Plaza

Establezimendu bat baduzu eta parte hartu nahi baduzu deitu 688 73 41 49 telefonora

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON

Euskeradi, euzelana, hiru omen

EUSKO LEGEBILTZARIA
GOBIERNO VASCO

"Nahiago dut bizikidetza aipatu, ez gizarteratzea"

IKRAM BOUZALMAT MIGRATZAILEA ETA AKTIBISTA FEMINISTA

Aniztasun Astearen baitan, 'Ikram: Emakume bat, istorio bat, eredu bat' dokumentala aurkeztu du Ekin Emakumeak elkarteak. Protagonistarekin egin du berba GOIENAK

Eneko Azurmendi ARRASATE

Ikram Bouzalmat (Maroko, 1995) gazte migratzailearen bizipen-tan oinarritutako lana da aurkeztu dutena. Migrazio prozesua, "oso luzea" izateaz gain, "eten-gabeko ikasketa" izan dela adierazi du emakumeen aldeko ekintzaile ere badenak.

Nolakoa izan da zure migrazio prozesua?

Oso bide luzea izan da, errusiar mendi bat bezalakoa, gorabehera handiekin. Emozio eta tentsazio berri asko izan ditut bide horretan. Azken hamar urte hauetan jende asko ezagutu dut eta prozesu aberasgarria da. Askok ikasi dut eta ausartzen naiz esatera erabateko aldaketa izan dudala nire pentsatzeko moduan, jokatzeko moduan eta gainontzekoak tratatzeko moduan. Etengabeko ikasketa da. Badu alde zail, ilun eta negatibo bat, zure familia, herrialdea faltan igartzen duzulako. Baina, bestalde, gizarteratuta sentitzen naiz, nahiz eta hitz hori ez dudan gustuko. Nahiago dut bizikidetzaz hitz egitea. Hala ere, bat gehiago sentitzeko bidean nago. Gauzak hautemateko modua aldatu egin da nigan. Lehen, erru guztia neure buruarengan jartzen nuen, pisu negatibo bat nuen nigan. Orain, berriz, ez diot horrenbeste buelta ematen.

Escolaritzean baliabideak jartzearen garrantzia azpimarratu duzu. Ikaslearen bigarren etxea ikas-tetxea da, denbora gehien pasatzen duen lekua eta inguruko pertsonak ezagutzen dituen. Hor garatzen du identitatea. Horrenbestez, lur emankor bat izan behar dugu hor, ikasle hori ahalik eta osasuntsuen haz dadin, babestuta senti dadin, haren beharrak asebeteta senti ditzan.

Zure kasuan ez zen hala izan. Ez. 16 urterekin hona iritsi nintzenean, arazo nagusia hizkuntzarena izan zen, eta ez nekien ze ikasgelatara bidali behar



Ikram Bouzalmat, Arrasaten. E.A.

"EZ DUT USTE ENERITZEK EDO AINHOAK JASOTZEN DUTEN TRATU BERA JASOTZEN DUDANIK"

ninduten. Izan ere, hutsune handia dago sisteman, alde horretatik. Ez dago protokolo bat zehazteko zer egin behar den ikasle migratzaile bat datorrenean. Gauza horiek zehaztuta egon behar dute, haurraren behar psikologikoak zaindu behar dira. Nik horren falta handia nabaritu nuen. Ezin zaituzte behartu hizkuntza bat ikastera edo modu jakin batean jokatzera. Beraz, eskatu nahiko nuke protokolo bat ezarri dezaten hezkuntza sisteman, atzerritik datozen ikasleei behar bezalako hezkuntza eskaintzeko.

Euskara ikasten ari zara.

Bai. Batxilergora iritsi nintzenean, ikasgaietako bat Euskara zen eta gainditu beharra neukan. Nituen zailtasunak ikusita, ikasgaiarekiko salbuespena eskatzeko aholkatu zidaten, eta hori egin nuen. Beraz, ez nintzen

Euskara eskoletara joaten. Egia esan, damu naiz, euskara ikasteko aukera polita galdu nuelako bi urte haietan. Hori dela eta, hizkuntza ikasten ari naiz orain, pixkanaka bada ere.

Ze zailtasun ditu European emakume musulman izateak?

Europako emakume musulmanok ez gara ulertuak sentitzen, eta hor sortzen dira arazo guztiak. Sentitzen dugu gu alde batetik ari garela borrokan eta gizartea beste alde batetik. Marokoarrok, gainera, borroka bikoitza daukagu: Marokoko gizartearekikoa eta hemengo gizartearekikoa. Etengabeko borrokan ari gara. Esaterako, lana aurkitzeko arazo handiak ditugu. Nola da posible emakume argi bati, unibertsitateko ikasketa gorenak edukita, lanerako eskubidea ukatzea buruan hijaba edo zapia eramate hutsagatik? Arlo horretan lan handia dago egiteko oraindik, gazteei benetako berdintasuna eskaintzeko. Ez dut uste Eneritzek edo Ainhoak jasotzen duten tratua jasotzen dudanik. Aldea handia da oraindik. Beraz, uste dut bizikidetzaren berdintzalea erraztu beharko lukeela gizarteak.



MONDRAGON CF

Mujikaren eta Iregiren agurra

Denboraldi amaierarekin batera, Jokin Mujika kapitainak eta Jesus Mari Iregi delegatuak agur esan diote Mondrari. Era berean, urte askoan harrobian lanean aritu den *Urzu* entrenatzaileak ere utzi egin du. Leintz Arizmendin, bestalde, omenaldi batekin agurtu zuten Olatz Legarda kapitaina; Goiena telebistak elkarriketa egingo dio *Luzapena* tartean.

Zapatei kobazuloa garbitzeko auzolana ekainaren 4an

Besaide Mendizale Elkartek egin du deialdia, Euskal Herriko Espeleologia Elkartarekin eta Arrasateko Udalarekin elkarlanean. Meatzerreka auzoko koba horretan hiru tona zabor daude, eta kanporatzeko 30-40 boluntarioren partaidetza behar dutela kalkulatu dute. Parte hartzeko, izen-abizenak eta nortasun agiri zenbakia eman beharko dira Besaideren bulegoan –Garibai hiribidea 3–, martitzen edo eguaztenean, 19:30etik 20:30era, aseguru egin ahal izateko. Telefonoz ere egin daiteke: 943 77 30 66.

Bestalde, egun berean, espeleologia irteera egingo dute Dimara. Informazio gehiago, *Goiena.eus* webgunean.

Urrezko domina Portugalen Aitor Madinabeitiarentzat

Saioa Karate Taldeko Aitor Madinabeitia karatekak urrezko domina eskuratu zuen joan den asteburuan Trofa hirian jokatu zuten Portugalgo II. Kyokushin Openean, 70 kiloz azpiko kumite modalitatean. Europa osoko 100 bat karateka aritu ziren, orotara, txapelketan. "Denboraldi ikaragarria egin du", dio Carlos Sanchez entrenatzaileak.

Udako eskubaloik udako campusa, ekainaren 27tik uztailaren 8ra

Arrasate Eskubaloik udako campusa antolatu du, beste urte batez, eta ekainaren 27an abiatuko dute aurtengoa. Musakolako kiroldegian eta Iturripen egingo dituzte saioak, asteleheneetik egubakoitzera, 10:00etatik 13:00etara. Azaldu dutenez, 2009 eta 2013 urte artean jaiotakoei zuzenduta egongo da campusa (bi urteak barne).

Bi aste iraungo du campusak, ekainaren 8ra arte, eta aste bakoitzak 30 euroko prezioa dauka. Era berean, banaka zein taldeka izena emateko aukera dago eta horretarako bi bide daude: *aeb@arrasateeskubaloi.eus* helbidera idatzi edota 619 67 26 96 zenbakira deitu.

Dragoiko gimnastak Valentziara doaz gaur, Espainiakora

Step/Senior kategorian, Nora Marco, Sara Yan Azkarate, Mairder Agirreurreta, Nahia Irazola, Maddi Etxagibel eta Maria Martiarena ariko dira; bikoteka (N6), Uxue Azkue, Nahia Irazola, Eider Vazquez eta Nira Cid; bakarka (N6), Zihara Etxebarria eta Maddi Etxagibel; hiruak (N7), Nora Marco, Sara Yan Azkarate eta Mairder Agirreurreta.



Margolariak, iaz egindako arte merkatuan. ARRASATE MARGO TALDEA

Artelanak kalera aterako dituzte zapatu goizean

Arrasate Margo Taldeko kideak Seber Altuben egongo dira bihar, urtero egin ohi duten arte merkatuan. Hitzordua "goiz-pasa polita" egiteko aprobetxatuko dute Kulturolan egoitza hartu dutenek: "Halako ekintzak elkar ezagutzeko baliatzen ditugu"

Hasier Larrea ARRASATE

Herriko margolarien kolektiboak urtean zehar egindako lanak saltzeko helburuarekin egiten du urtero, maiatz bukaeran, arte merkatua. Baina, berez, elkar-teko kideen artean harremanak estutzeko baliatzen dute eguna, halako topaketak egiteko beharra izaten baitute. "Tailerrera bakoitza bere margolanak egitera joaten denez, ez diogu behar besteko denborarik eskaintzen elkar ezagutzeari; kontrara, kanpoko ekintzetan garatzen ditugu elkarrekintza sakonagoak", adierazi du AMTko kide Marga Zubiak.

Gaur egun, iaz baino hiru bazkide gehiago dituzte; 24 daude Kulturolan estreinatuta duten lokalean: "Tamalez, ez dugu gehiagorendako tokirik, eta sei lagun dauzkagu itxarote-zerrendan zain". Udalak eskaini dien eraikin berriak talde moduan proiektuak garatzeko hauspoa eman diela aipatu du Zubiak. Asteazkenero, adibidez, ikasta-

roa jasotzen dute Rikardo Azkargorta margolari bergararren eskutik, olio, akriliko eta akuarela teknikak hobetzeko eta aspektu teorikoei buruz gehiago jakiteko. Udan ikastaro horiek eten egingo dituzte, baina ekintza ludikoak ez dituzte alde batera lagako: "Ziurrenik, hiru irteera egingo ditugu, inguruko mendi, herri eta paraje ezberdinak bisitatu, ikusi eta mihiseetan irudikatzen. Eta, tartean, parranda pixka bat egiteko, noski".

Lehengora bueltatu guran

Zubiak ez du ukatzen taldea osasuntsu dagoenik, baina jakitun da pandemia aurretik egin ohi zituzten zenbait dinamika

GUZTIRA, HAMALAU MARGOLARIK JARRIKO DITUZTE EUREN ARTELANAK IKUSGAI ETA SALGAI

berreskuratzea kosta egingo zaiela; sanjuanetako pintura lehiaketa, esaterako: "2019ra arte sariketa irekia antolatu izan dugu, kanpoko margolariek ere parte har zezaketena; iaz, modu sinbolikoan, bi pertsonaren arteko ekitaldi bat antolatu genuen Herriko Plazan. Badugu asmoa ohiko lehiaketa berreskuratzeke, nahiz eta hutsarte honek ez digun onik egin".

Azaroan Kulturateko klausuroan erakusketa irekitzeko asmoa dutela ere aurreratu du AMTko kideak. Ekitaldi horrek biharko azokarekin ze desberdintasun dituen azaldu du: "Seber Altubeko merkatuan parte hartzen dugunok orotariko lanak eraman ohi ditugu, duela urte batzuk margotutakoak ere bai; erakusketara, aldiz, saiateren gara margolan berrienak eramanen. Tailerrean asko igartzen dira hitzordu horren aurretiko asteak, taldekideok gogotik egiten baitugu lan esku artean dugun hori bukatzeko".

Rebel Noise talde gazteak lehen lana aurkeztuko du gaztetxean

Boskoteak gaur gauean emango du zuzeneko, 22:30ean hasita; Estutu banda elorriarrak ere joko du

H.L. ARRASATE

Infernuko atean, halaxe jarri dio izena Aramaio, Oñati eta Arrasateko musikariz osatutako Rebel Noise talde punk-rockerrak estreinako lanari. Andoni Agirre gitarra-jotzailearen esanetan, albumeko abestiak ondoen definitzen dituen hitzak dira: "Gu inguruko musika eszenan sartzen ari gara, eta iruditzen zaigu nahiko zatituta dagoela, gizartea bera bezala; hargatik, kantuen hitz asko etsipenetik idatzi ditugu".

Iluntasun hori abestien melodiek argitzen dutela gaineratu du, "Bardulia mugimenduko eta Far From Finished, Social Distorsion eta Anti-Flag taldeen iturrietatik edatearen ondorioz". Jendeak komentatu die espero zutela halako estiloarekin topo egitea, baina asko harritu dira "emaitza hain txukuna" izatea-



Rebel Noise, Gatzagan. GOIENA

gatik. Youtuben entzungai dagoen diskoa DATen eta Taupan eskura daiteke, besteak beste. Atsedetik hartu gabe, bihar gauean Debako gaztetxean joko dute -Kontralde taldeak ere joko du-. Datozen asteetan egutegi bete ia izango dute, gainera.

Zahartzaroaren gaineko saio berezia gaur Kulturaten

Mari Luz Estebanek idatzitako *Andrezaharraren manifestua* poesia-liburuko poemekin performance bat taularatuko dute idazleak berak eta Metrokoadro kolektiboko kideek. Biolinaren musika, pintura, antzerkia eta koreografia performatiboak modu umoretsu zein aldarrikatzailean aurkeztuko dituzte, 19:00etan, areto nagusian.

Mariatxien bi emanaldi zapatuan, Ibai-arteren eskutik

Mexikoko kantuek hartuko dute kalea bihar, Santurtziko Tolin el Mariachi artista eta Nafarroako Mariachi Tocatejas talde ezaguna gonbidatu baititu herriko merkataritza-elkartek. Lehenengoak 13:00etan girotuko du Otalora Lizentziaduna kaleko poteoa -Txoko taberna parean- eta bigarrenak Herriko Plazan arituko dira, 19:00etan.





Mendizale elkarteko zuzendaritzako kideak, urteurreneko kamisetarekin. ORIXOL MENDIZALE ELKARTEA

Elkartearen parte izan direnekin ospatu nahi dute 50. urteurrena

Aramaioko Mendi Astea egingo dute ekainaren 4tik 12ra bitartean. Mende erdia bete dutela ospatu nahi dute Orixoleko kideek; ekitaldi nagusia datorren zapatuan izango da, ekainaren 4an. Bazkaria egingo dute herriko plazan, 15:00etan, 14 euroren truke

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO Urteurren borobila ospatzen dabilta Orixol Mendizale Elkartean. Mende erdia ez da eguneroko betetzen, eta, horregatik, ospakizun-ekitaldi bereziak egiten dabilta aurtan. Ekitaldi nagusia ekainaren 4an egingo dute, zapatua. Egun osoko egitarauak hasiera emango die aste osoko ospakizunei. Ekainaren 4tik 12ra bitartean, Aramaixoko Mendi Astea ospatuko dute.

Elkarteko zuzendaritza hartu duten sei gazteak gogotsu dabilta prestakizun lanetan. "Orixoleko puntan hasiko dugu eguna. Bere egunean Besaidekoek jarri zuten plaka aldatu eta plaka berria jarriko dugu", azaldu du zuzendaritzako kide Eider Ballinak. Horrez gain, Aitor Ugartek eta Xabi Igoak bertsoan egingo dute Orixoleko puntan, eta hamaiketako eguna da.

Argazki erraldoia

Bazkalaurretik, talde argazkia egingo dute plazan: "Orixolen parte izan direnekin egin nahi dugu argazkia. Zuzendaritza ezberdinetako kideei abisatu diegu, euren garaikoei esan diezaieten. Ez dakigu zenbat elkartuko garen". Deialdia egin nahi dute zapatuan jendea urteurrenerako atera duten kamisetarekin joan dadin. Kamiseta erosi nahi duenak mezua idatz dezake orixolme@hotmail.com helbidera. 15:00etan, herri bazkaria egingo dute, plazan. Bazkarirako txartelak 14 eurotan jarri

**BERE GARAIAN
BESAIDEK IPINITAKO
PLAKA ALDATU
EGINGO DUTE; BERRIA
JARRIKO DUTE**

dituzte salgai. Bazkariaren ondoren, Battuere batukadak girotuko ditu herriko kaleak. Zapatuko ospakizunak amaitzeko, musika emanaldiak izango dituzte, plazan: punk-rock azkarrak eta zuzena egiten duen Txakurrak taldea eta Sofocao talde nafarra igoko dira taula gainera. Azken horiek *Errealitatearen beste aurpegia* lana argitaratu berri dute.

Umeendako tailerra

Domekan, ekainaren 5ean, Basonako kideen eskutik *Baso-bainua* esperimendazio tailerra egingo dute –zehazteke dago lekua–. Bi taldetan banatuta egingo dituzte ekintzak: 6 eta 10 urte bitartekoak alde batetik eta 11-14 urte bitartekoak bestetik. Txikienek heldu batekin joan beharko dute; nagusiak, aldiz, bakarrik joan daitezke.

Pirinioetara mendi irteera

Ekainaren 17tik 19ra Pirinioetara mendi irteera egingo dute, Orixolek antolatuta. Garmu Negrora igoera izango da, eta ondoko izango da egitaraua: Aramaiotik egubakoitzean irtengo dira, 18:30ean. Gaua Casa de Piedran pasako dute, eta zapatuan, Baciasetik pasata Bachimañara igoko dira. Gaua Bachimañako aterpean pasako dute eta domekan Garmu Negro igoko dute (3.051 metro). Ibilaldia Baños de Panticosan bukatuko dute. Itzulerako autobusa 17:00etan irtengo da, domekan, Panticosatik. Izena eman nahi duenak mezua idatzi beharko du orixolme@hotmail.com helbidera, eta ordainagiria aurkeztu beharko du. Prezioa da: bazkideek 100 euro eta bazkide ez direnek 110 euro. Izena emateko azkeneko eguna ekainaren 8a izango da.

Elikadura mendian

Ekainaren 8an, eguaztena, Garazi Abasolo nutrizionista aretxabaletarrak hitzaldia egingo du Sastiñan, 18:30ean. "Oso mendizaleak direnei eta ez hain mendizaleak" direnei zuzenduta egingo da. Elikaduraz eta hidratazioaz jardungo du Abasolok eta kasu praktikoak jarriko ditu adibide moduan.

Musika eta zinema

Eguenean, ekainaren 9an, mendi-pote musikatua egingo dute Danborralden. "Edana eta jana eramango dugu, baita musika-generadore bat ere", azaldu du Ballinak. 18:30etik aurrera izango da mendi-pote musikatua.

Ekainaren 10ean, aldiz, kale erronken txanda izango da. 19:00etan hasita izango dira erronkak. Herrian zehar poteoa egingo dute eta erronkak egingo dituzte parkean, Añai-Eki inguruan, plazan... Animatzen diren guztiek egin ahal izango dituzte erronkak, bai umeek eta baita helduek ere.

Astea amaituko dute bi ikus-entzunezkorekin. Ekainaren 12an, 18:30ean hasita emango dituzte filmak, kultura etxean. Mendi Film Festivalerako Euskarazko Film Onenaren saria jaso duen *Amagana* lana emango dute, batetik –Itziar Zabala eskalatzailarekin–; eta *Mendiak 1976* filma, bestetik, jaialdiko Mendiko Film Onenaren saria jasotako lana.

**EKAINAREN 8AN,
EGUAZTENA, GARAZI
ABASOLOK
ELIKADURAZ
JARDUNGO DU**

Urteurrena ospatzeko ekitaldiak

Urte guztiko ekitaldi sorta antolatu du Orixol Mendizale Elkartea. Hala ere, ospakizun handia datorren zapatuan egingo dute, ekainaren 4an.

Ekainak 4

- **10:30** Orixoleko puntan bertsoak, plaka aldaketa eta hamaiketako.
- **14:00** Elkarteko kide izen direnekin argazkia, plazan.
- **15:00** Herri bazkaria, plazan.
- **18:30** Batukada herrian zehar.
- **22:00** Kontzertuak plazan: Txakurrak eta Sofocao.

Oharra: urteurrena ospatzeko atera duten kamisetarekin joateko deialdia egin dute.

Kamisetak salgai

50. urteurrena irudikatze, kamisetak egin dituzte. Herriko artisten laguntza izan dute horretarako: aurrealdean Maider Aldairen irudia du eta atzealdean, Edurne Kortabarriaren ilustrazioa. 10 euroren truke eros daitezke.

Aukera guztiak zabalik Gasteizko finalerako

Arabako Bertsolari Txapelketako final erdiak jokatu dituzte asteburuan hamabi bertsolarik, aramaioarren presentzia nabarmenarekin: Amilburu, Igoa, Agirre eta Abarrategi Izarran arituko dira domekan; Arriolabengoa, berriz, Araian, zapatuan

Hasier Larrea ARAMAIO

Aurtengo sariketa "serio" hartu dute Aramaioko bertso eskolan. Parte hartu duten zazpi herri-tarretatik bostek lortu dute azken kanporaketarako sailkatzea, eta pauso bakarrera dute ekainaren 11n Gasteizko Europako Biltzar jauregian jokatu den finalerako txartela eskuratzea. Asteburu honetan erabakiko dute epaimahaikideek lehian geratzen diren hamabi bertsolarietatik zeintzuk izango diren finala jokatzeko gehien merezi duten sei partaideak.

Orain arteko kanporaketak nola joan diren ikusita, inor ez da ausartzen faborito argirik



Aramaio Kultur Etxean maiatzaren 14an jokatu den final aurrekoa. 'BERTSOZALE.EUS'

izendatzera. "Albiste ona" ei da hori, bai bertsolarientzat, eta baita sariketarentzat ere. Iñaki Viñaspre izan zen 2019ko buruz buruko txapela jantzi zuena, baina iazko binakako formatu berezian Manex Agirrek eta Martin Abarrategik lortu zuten balentria. Agirre bitan izan da buruz buruko irabazle, gainera: 2015ean eta 2011n. Hura ez da Arabako txapela jantzi zer den dakien finalerdietako partaide bakarra: hortxe dago Viñaspre bera; eta baita Asier Otamendi eta Oihane Perea ere. Otamendik lau aldiz irabazi baitu Arabakoa, eta Perek hirutan.

Xabi Igoa eta Andere Arriolabengoa, gainera, sari preziatua azken hatsera arte lehiatzen aritutakoak dira, Gasteizko finalerako sailkatzea lortu baitzuten, lehenak 2019an eta bigarrenak 2008an.

Txakur zaharrek, beraz, esperientziaren jakinduria izango dute euren alde. Gazteek freskotasan eta anbizioz egingo diete aurre, ordea. Talde horretan sar daitezke Peru Abarrategi eta Paula Amilburu, esaterako. Aramaiotik kanpo ere bada

finalerdietan sartzea lortu duen aurpegi berririk. Maddi Agirre gasteiztarren kasua da: "Bagenekien ederto egiten zuela bertsotan, eta ez da sorpresa hura hamabi onenen artean ikustea; baina hain gaztea izanda, oso pozgarria da haren presentzia", aipatu du Igoak.

"Maila altuko sariketa"

Bost bertsolari aramaioarrak gustura daude, orokorrean, kanporaketetan bizi izan dutenarekin. Aurtengo maila kolektiboa "igo" egin dela diote, eta, ondorioz, horrek "zaildu" egiten duela faborito argiren bat izendatzea. Gustatuko litzaike bost herrikideak sailkatzea finalera, probabilitateari dagokionez "ia ezinezkoa" izan arren.

Abarrategik, Agirrek, Amilburuk eta Igoak batera abestuko dute Izarran, domekan, 17:30ean hasita. "Elkarri babesa" emango diotela aurreratu dute, ahalik eta puntu gehien lortzeko. Arriolabengoa, berriz, zapatuan arituko da Araian, 17:30ean baita ere. Aramaioaren izena goian mantenduko dutela, beste ezer ezin ziurtatu.



PERU ABARRATEGI
BERTSOLARIA

"Azken saioa behetik gorakoa egin nuen, baina urduri aritu nintzen, ez nuen gozatu momentuan. Ea etzi nire tokia egin eta gai naizen gozatzeko".




MANEX AGIRRE
BERTSOLARIA

"Konfiantzarekin eta lasai nago, azken saioa nahiko borobila egin bainuen. Aramaioarrok saiatuko gara domekan talde-izaerari eusten eta maila ematen".




ANDERE ARRIOLABENGOA
BERTSOLARIA

"Zapatuan saiatuko naiz azken kanporaketan bezala gozaten, baina presioa handiagoa izango da. Ea finalera iritsi naitekeen, 2008an bezala; hori da erronka".



PAULA AMILBURU
BERTSOLARIA

"Aurtengo txapelketa oso indartsua eta estua izaten ari da, eta denok arriskatu beharko dugu. Pozik nago partaideok ematen ari garen mailarekin".



XABI IGOA
BERTSOLARIA

"Argi dago Arabako bertsolaritzak pauso bat eman duela aurrera. Bertso dezente bota beharko ditugunez, erregularrenek lortuko dute finalerako txartela".

Adineko pertsonen topaketa Eltziegoren egingo dute uztailean

Datorren uztailearen 8an, ostirala, batuko dira Eltziegoren Gorbealdeko Kuadrillako adineko pertsonak. Izena emateko orria gorbealdekokuadrilla.eus webgunean deskargatu eta ekainaren 10aren aurretik entregatu beharko da udaletxean. Bisita gidatua, meza, La Huerta Vieja jatetxean bazkaria, bingoa eta dantzaldia daude programatuta.

Oletako Herriko Taberna kudeatzeko esleipena zabalik da

Ekainaren 7a izango da Oleta auzoko Herriko Taberna kudeatzeko interesa dutenek euren proposamenak udaletxean aurkezteko azken eguna. Arabako Buletin Ofizialean argitaratu zuten esleipena maiatzaren 16an, eta aramaio.eus webgunean eskura daitezke bete beharreko baldintza tekniko eta administrazioen dokumentuak.

Musika Astea, azken txanpan

Musika erdigunean jarri duen egitarauaz gozaten ari dira asteon herriarrak. Sastiñan Alaiak kantu taldea eta Ekiñe Casado aritu dira eta kultur etxean, Musika Eskolako ikasleak. Gaur, jazz kontzertua egongo da parkean, 19:00etan. Bihar, musika klasikoko kontzertua emango dute, eta etzi, *La familia Belier* filma; biak kultura etxean, 19:00etan hasita.





Kultura Saileko ordezkariak, Jaiki elkarteak, Basotxokoak, Leizarra musika eskolakoak eta Auzoko taldekoak. MIRARI ALTUBE

Kultura ekitaldiak beteko dira herriko bazterrak datorren hilabetean

'7x7 kultura kalean' eta 'Dantzastea' ekimenek bat egingo dute, eta, ondorioz, antzezlanak, musika eta dantza emanaldiak eta beste hainbat ikuskizun izango dira han eta hemen, domekan hasi eta ekainaren 22ra bitartean

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Osasun egoera oneratu ahala tokia irabazten hasi da kultura, eta Aretxabaletan ere kalera aterako dute datozen asteetan. *7x7 kultura kalean* eta *Dantzastea* programen eskutik hogeit bat ekitaldi egingo dira maiatzaren 29tik ekainaren 22ra bitartean herriko hainbat txokotan. Horiek gertatu dituzte Udaleko Kultura Sailak eta Jaiki elkarteak, Leizarra musika eskolarekin batera, eta herriko beste hainbat talderen parte-hartzearekin; Basotxo eta Auzoko, esaterako.

Zazpi ekitaldi zazpi txokotan

Herriko bazterrak girotzera dator, beste urte batez, *7x7 kultura kalean*. "Kulturak ez du etenik izan herrian pandemian ere, nahiz eta egokitu egin behar izan ditugun ekitaldiak; baina dagoeneko hasi gara jarduerak berreskura-

tzen eta ohiko formatuetara itzultzen", adierazi du Ainhoa Cabero, Kultura zinegotziak. Hala, herriko zazpi txokotan zazpi kultura ekitaldi egingo dituzte, ekaineko zazpi egunetan.

Programari eguaztenean emango dio hasiera Bihar taldeak *Adarbakar urdina* txotxongilo emanaldiarekin Santa Kurtz plazan (19:00). Horrez gain, musika ikuskizunak egingo dituzte Ameztu Produkzioak konpainiak *-DJ Kaktus eta bere Flow!* eta Harresian Zulok *-Ezinbestean kolorez-*; zirkuko jokoen *Urbasa* emanaldia Hutsun eta Ortzi tal-

deek; eta Erre Produkzioak konpainiak *Grimm anaien parkea* antzezlanak.

Bandaren kontzertua

Leizarra Musika eskolako bandari ere egin diote tokia; hilaren 17an emango du kontzertua, Santa Ritako lorategian (19:00). "Pasaian egingo den Musikaldira joango gara, eta harako gertatzen gabiltzan piezak joko ditugu, batez ere. Horrez gain, Meat Loaf abeslariari omenalditxo egingo diogu", azaldu du bandako zuzendari Jon Lopezek. 25-30 kide inguru ditu taldeak, helduak batzuk eta gazteak asko: "Eta helburua da gazteei bandan eustea".

'Dantzastea', bosgarrenez

Jaiki elkarteak bosgarrenez antolatu du *Dantzastea*, Udalaren laguntzarekin. "Dantza talde

Kultura hitzorduak bueltan datoz?



AINHOA CABERO
KULTURA ZINEGOTZIA

"Kultura ekitaldiak ez dira erabat gelditu Aretxabaletan, baina poztasun handiarekin aurkeztu dugu 7x7 programa hau, normaltasunerako itzulera adierazten duelako. Bizipozerako antidotorik onena da kultura, eta herritarrek eta kaleak animatzera bideratu dugu".



MAIER ETXEBARRIA
JAIKI ELKARTEKO KIDEA

"Herriko hainbat taldek animatu gaituzte dantzari eskaintako astea antolatzera. Eta, hain zuzen ere, bertako taldeak dira parte hartuko duten gehienak. Dantzan asko egin izan den herria da gurea eta orain ere askotariko dantza motak lantzen dituzten talde asko daude".

asko ditugu herrian eta horiek ezagutzera ematea zen gure asmoa orduan", dio Maier Etxebarria kidea, eta gaineratu du: "Dantzan egitea gustuko duen herritar asko ere badago, eta haiei aukera eskaini nahi genien; badutela non egin eta zeinekin egin erakutsi, hain zuzen ere". Debagoienean egiten den dantza aste bakarra da eta hasierako helburuari eutsita dator aurten-go: "Basotxoko erretiratuek kalean dantzan egiteko gogo handia dute, eta haien demandari erantzunez gatz". Onartu du denbora gutxi izan dutela antolatzeko, eta, horregatik, herriko taldeak izango dira protagonista: "Kanpotik dator dantza garaikidea egiten duen LaRutan talde indartsua; gainerakoak hemengoak dira. Herrian egingakoa kalera aterako da eta egitarau osatua lortu dugu, modalitate ezberdinak uztartuta".

Egitarauari domekan emango diote hasiera, Leizarra dantza taldearen egunarekin: "Haur Dantzarien Eguna geuk bakarrik ospatuko dugu aurten", jakinarazi du Marian Uribesalgok, musika eskolako ordezkariak. Kalejira egingo dute 11:30ean, eta alardea 13:00etan, plazan.

HERRIKO DANTZA TALDEAK IZANGO DIRA PROTAGONISTAK DOMEKAN HASIKO DEN 'DANTZASTEAN'

'Dantzastea'

Maiatzak 29

- **11:30** Leizarra dantza taldearen eguna; kaleak eta plaza.

Maiatzak 30

- **18:00** Kontakids saioa; Kuku Miku elkarte.
- **19:00** Lindy Hop dantzak (Jaiki); Mitarte.

Maiatzak 31

- **18:00** Areto dantzak (Basotxo); Mitarte.
- **19:00** Bat-bateko saioa (Jaiki); kaleak.

Ekainak 1

- **17:45** Plaza dantzak (Basotxo); Durana.
- **18:30** Rueda cubana; Durana.
- **19:30** Leizarra dantza taldea; Durana.

Ekainak 2

- **17:30** Dantza urbanoak (Candem Town); plaza.
- **18:15** Munduko dantzak (Auzoko); Durana.

Ekainak 3

- **19:00** Dantza garaikidea (LaRutan); plaza.
- **19:30** Kizomba; plaza.
- **20:30** Dantzagarriak; plaza.

Ekainak 4

- Butoh ikastaroa (Jaiki).
- **19:00** Gozategi taldea; plaza.

Onartu dute igogailua jartzea Iturrizar plazan

Gerakinaren diruaren zati bat beste proiektu batzuetara bideratzea proposatu du Udal Gobernuak, eta hori aho batez onartu du udalbatzak; EH Bilduk beste lan batzuei heltzeko eskaera sorta bideratu dio Gobernuari, eta hori aztertzekotan geratu da

Mirari Altube ARETXABALETA

2021eko gerakinetik 2,2 milioi euro aurrekontuetan jasota ez dauden hainbat lanetara bideratzea proposatu du Udal Gobernuak, eta proposamenean jasotako proiektuak ontzat eman ditu udalbatzak, aho batez.

Zubia eraiki eta harresia bota

Igogailu publikoa jarriko da Iturrizar plazan, Deba ibaiaren pasealekua eta Txarapea lotuz. Horretarako hitzarmena iaz sinatu zutela jakinarazi du Unai Elkoro alkateak: "Etxebizitza lanak aurrera doaz eta igogailuarendako unea hauxe da". Ondoren, komentu ingurua berurbanizatzeko dute: "Lanik garrantzitsuenak zubia eraikitzea izango da. Gainera, argindar dorrea eta transformadorea lurperatu egingo dira eta komentua inguratzen duen harresia bota". Lan horietara guztietara milioi bat euro bideratu dituzte.

Txarapeako ezpondan lurrak mugitu egin direla berriro jakinarazi du alkateak, eta mendi hegala hori egonkortzeko dirua jarri beharko dutela. Arkupeko klimatizazio-sistema berrira ere bideratu dute dirua, eta Ibarra futbol zelaia ureztatzeko sistema berritzera. Eta argindarraren, gasaren eta zaborraren igoerei



Iturrizar plaza, igogailua egingo den tokia, eta zubia eraikiko den ingurua. M. ALTUBE

aurre egiteko 400.000 euro pasatxo gorde dituzte. Gaineratu du urte bukaeran erabakiko dutela lan gehiagori heldu edo ez.

EH Bilduren proposamenak

Udal Gobernuak proposatutako partida batzuk "ezinbestekoak" direla onartu du EH Bilduk; Txarapeako mendi hegala egonkortzeko eta gastuen igoerei aurre egiteko sortutakoak, esaterako. Eta pozik agertu da Txarapea herriarekin batzeko proposamenarekin. "Guk planteatutakoa zen, hain zuzen ere.

Horiez gain, beste zazpi bat ideia jarri ditugu mahai gainean, zuhurtasuna lehenetsita, eta 200.000 euroko eskaerak egin", dio Ion Albizuk. Hona hemen proposatutako batzuk: landa eremuan konponketa txikiak (100.000 euro); pilotalekuaren proiektua indartu (60.000 euro); Iralabarri eta Copreci arteko bidegorria bukatu (15.000 euro); kiroldegiko kuotak egokitu (10.000 euro); eta beste hainbat konponketa lan. Udal Gobernuak proposamenak aztertzekotan geratu da: "Batzuk logikoak dira eta".



ARETXABALETA LANBIDE ESKOLA

Euskelec-era ALEko ibilgailua

Ibilgailu elektriko bostgarren Euskelec lehiaketan hartuko du parte Aretxabaleta Lanbide Eskolak. Domekan jokatu da, Donostian, eta EAeko zein kanpoko 30 eskola baino gehiagorekin nor baino nor gehiago lehiatu da Aretxabaletan sortu duten ibilgailua (argazkian). Elektromekanikako hamabost ikasle joango dira, bi irakasle lagun eginda.

LEKek ikasturte bukaerako jaia ospatuko du bihar

Leintz Eskola Kiroleko neska-mutikoen, 6 eta 14 urte bitartekoek, ikasturteari agur esango diote bihar, zapatua, Aretxabaletan –Ibarra kiroldegian eta futbol zelaian–. Herriko gaztetxoekin batera elkartuko dira Arrasateko, Aramaiokoko, Eskoriatzako eta Leintz Gatzagakoak.

Kirola eginez hasiko dute jaia; 10:00etan abiatuta, euskal joko tradizioarekin eta herri kirolarekin jardungo dute, baita ginkana jolasean ere, eta *ultimate* eta xumba topaketak ere izango dira, besteak beste. Ekitaldia bukatzeko, 12:30ean, opariak zozketatuko dituzte parte hartzaileen artean, Ibarra futbol zelaian.

OHARRAK

Odol ematea

Odola emateko aukera izango dute aretxabaletarrek astelehenean, 16:45etik 20:00etara, Durana kalean.

Igerilekua, itxita

Bihar, zapatua, igeriketa txapelketa jokatu da, eta, ondorioz, 16:00etatik 18:00etara ez dira erabilgarri egongo igerilekuak.

UDA Festa

UDAREN 75. urteurrenaren baitan, festa eguna egingo dute ekainaren 4an. Mus txapelketa, hiruko txapelketa, paella eta txahal-pintxoak, *street futbola* eta Gozategi taldearekin erromeria izango dira, besteak beste.



RPS: 83/19



ORTODONTZIA IKUSEZINA

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

ZURE IRRIBARREA HOBETU AHAL IZANGO DUZU INORK IGARRI GABE.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETA • TEL.: 943 79 93 55

Herritik haratago doan jaialdiak, atepak irekitzear

Bihar ospatuko da II. Kuartel Eguneko jaialdia. Askotariko estiloetako musikaz gain, bazkaria egingo dute eta bertaraten diren herritarrei kuarteleko atepak irekiko zaizkie, bertan batzen diren sortzaileen guneak bertatik bertara ikus ditzaten

Maidar Arregi ARETXABALETA

Formatu berrituan dator bigarren egungo duten Kuartel Eguna. Izan ere, pandemia aurretik ospatu zuten lehenengoz musika ardatz duen ekimena. Aurtengoan, ordea, Aretxabaletatik harago joan direla kontatu du Eñaut Zubizarreta antolatzaileak: "Orain hiru urte, egun bakarreko jaia egin genuen eta bertako musika taldeak izan ziren protagonista. Aurtun, bi eguneko ospakizuna gertatu dugu, eta bailaratik haragoko musika taldeak izango ditugu. Beste herri batzuetakoei ere aukera zabaldu nahi izan diegu, zeren guk ere gaztetxe zein bestelako antolatzaileei esker emanaldiak eskaintzeko aukera izan baitugu. Horregatik, guk ere harrera-gune hori eskaini nahi izan dugu oraingoan".

Bestalde, Peio Uribeberriak gaineratu du herrian sumatzen dela gogoia eta ilusioa: "Kartel indartsua dugu, eta horrelako taldeak Aretxabaletan ikustea aukera ezin hobea da herritarrendako; orokorrean, talde horiek ikusteko aukera ez da horren erraza izaten".

Herritarrek batzea eta nahi dutenei eraikina erakustea ere badute asmo. "Gaur, zazpiak aldera irekiko ditugu atepak eta



Peio Uribeberria eta Eñaut Zubizarreta kartela eskuan dutela. M.A.

50 LAGUNENDAKO BAZKARIA EGINGO DUTE ZAPATUAN KUARTELAREN KANPOKO GUNEAN

zortziak aldera hasiko dira kontzertuak, goizaldeko ordu bata arte. Bihar, berriz, eguerdian irekiko ditugu atepak, eta, ondoren, askotariko musikarekin gozatzeko aukera izango da. Eguerdirako, aldiz, 50 lagunendako bazkaria antolatu dugu, eta gero, musika emanaldiei emango zaie bide". -Bazkarirako sarrerak agortuta daude-.

Askotariko diziplinak

Aurtengo jaia musikaren inguruan antolatu duten arren, antolatzaileek nabarmendu dute kuartelean musika ez ezik, bestelako arte eta kultura arloak ere batzen direla. "Dantzek, serigrafiek, gaitariak eta arte plastikoaren arloak, besteak beste, badute gune propioa kuartelean".

Getariako Txakolina jatorri izena duten ardoak protagonista bihar

Gaintza, Gañeta, Inazio Urruzola, Kataide, Murgialdai eta Rezabalgo txakolinak dastatzeko aukera izango da

Maidar Arregi ARETXABALETA

Txakolin Eguna bihar, maiatzaren 28an, itzuliko da Aretxabaletera. Mitarte kalean, 12:30etik 14:30era bitartean, Getariako Txakolina jatorri izena duten sei upategitako ardoak dastatzeko aukera egongo da: Gaintza, Gañeta, Inazio Urruzola, Kataide, Murgialdai eta Rezabal, hain zuzen ere.

Hala, bost euroren truke bost tiket erosi ahal izango dira bertan, eta, beste horrenbeste trago hartzeko, kopa bat barne izango da.

Nabarmendu behar da tiketak saltzen Senegalen garapenerako lankidetzaren proiektuak aurrera eramaten dituen Yaakar Elkarrekin lagunduko duela.

Txakolinaz gain, bertako ekoizleek prestatuko dituzten pintxoak eta hanburesak ere dastatu ahal izango dituzte elkartzen diren herritarrek.

Kaleak alaitzeaz, berriz, Iruñeko Buztintxuri eta Urduñako Bihotza erraldi eta buruhandien konpartsak arduratuko dira, bertaraten diren gaztetxoenen gozamenerako.



MIRARI ALTUBE

Saskibaloiarekin bat eginda

Ointxe saskibaloia elkarteko errendimenduko kadeteak Aretxabaleako GSR Debagoiena egoitzan izan dira. Baloiak eta saskiak eroan zituzten hara, eta saskibaloian jardun zuten egoiliarrekin batera. Goiz-pasa ezin politagoa izan zen batzuentzat zein besteentzat. GSR babesle du taldeak, eta eskaintako laguntza eskertu gura izan diete.

Igerian ikasteko saioak antolatu dituzte uztaileko

Igeriketako ikastaro trinkoak eskainiko dituzte Ibarra kiroldegian, uztailean zehar, 6 hilabete eta 9 urte arteko umeentzat.

Saioak astelehenean ostiralean izango dira, eta bi txanda zehaztu dituzte, aukeran -maila bakoitzaren ordutegiak eta txandak dagoeneko zehaztuta daude www.goiena.eu/aretxabaleta helbidean-.

Hala, hauexek izango dira emango diren ikastaroen mailak: *Haurtxoak*: 6 hilabete eta 3 urte artekoendako; *Karramarroak*: 3 eta 4 urte dituztenendako; *Zapaburuak*: 5, 6 eta 7 urtekoendako; eta *Olagarroak*: 7, 8 eta 9 urte dituztenendako aukera izango da.

Izena aurretik eman behar da -leku mugatuak daude- Ibarra kiroldegian eta argibideetarako ere hara bideratu behar da: 943 03 98 42 eta www.ibarrakiroldegia.eus.

Kuartel Eguneko egitaraua

Gaurko, egubakoitza, eta biharko, zapatua, musika protagonista den egitaraua zabaldu aurkeztu dute II. Kuartel Egunerako:

Maiatzak 27, egubakoitza

Kontzertu sorta antolatu dute. Sarrerak salgai Kuartelean bertan, 5 eurotan.

- John Dealer and The Coconuts.
- Rodeo.
- Etxekalte.
- Vibora.

Maiatzak 28, zapatua

Eguerdiko hamabietan atepak zabalduko ditu kuartelak eta nahi duen orok eraikina eta bertan dauden askotariko guneak ezagutzeko aukera izango du. 12:30ean hasita:

- Bat-bateko saioa.
- Ekiñe Casado.

- Joe Pieman & Gusilu Ondoren, 50 lagunendako bazkaria egingo da kuartel kanpoko gunean, 14:30ean; eta arratsaldeko bostetan hasiko da makina bat kontzertu: Jot Abe, Inalektrik, Dear Flakutxo, Trigger, Oihu!, Lehen Lerroa, Eten eta amaiera DJek emango diote Kuartel Eguneko festari: BRGS, Margumision eta Gorka.



Eskoriatza Kirol Elkartearen Eguneko talde argazki bat, Fernando Eskoriatzan jokoak amaitu berri. GOIENA

Lau gunetan banatuta, kirol elkartearen festa

Herriko lau txoko ezberdinetan –Fernando Eskoriatza plaza, Manuel Muñoz kiroldegia, Zaldibar antzokia eta Ibarraundi museoa– banatuta izango dira ekintzak, eta egun handia zapatukoa izango da. Hala ere, domekan ere jarraituko du festak

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Atzo, eguna, hasi ziren Eskoriatzako Kirol Elkartearen Festako ekintzak, *Izan Eskozale* kanpainaren gaineko aurkezpenarekin. Bazkideak eta laguntzaileak kirol elkartera batu nahi dituzte, eta, horrekin batera, Eskoriatza kirol Elkarteko zuzendaritza taldera batuko

direnak ere aurkeztu zituzten, antzokian. "Beti dugu laguntza beharra, eta lau lagun gutxienez batuko zaizkigu juntara; hiru emakumezkoak dira eta bat gizona, adierazi du Jabi Corbalek, Eskoriatza Kirol Elkarteko presidentea.

Gaur, berriz, areto futbolearen erreferente bat den Jesus Can-

delas entrenatzailearen hitzaldia izango da, Ibarraundin. "Gurean aski ezaguna da Candelas, eta zenbait bider egon da haren jakituria transmititzen, egun honen bueltan. Hala, oraingoan ere areto futbolaren gainekoak ekarriko ditu, eta seguru interesgarria izango dela...", adierazi du Corbalek.

Programa betea zapatuan

Zapatuan, 10:00etan, *Masters partidua* izango da; Eskoriatza Kirol Elkarteko jokalaririk ohien partidua jokatuko da kiroldegian. Ondoren, 12:30ean, bigarren eskuko merkatua izango da, plazan. Bertan, kirol elkarteko *vintage* arropa salmenta izango da. Hau da, Eskoriatza Kirol Elkartearen historiaren zatitxo bat erosi ahal izango dute interesdunek. Horrekin batera, Urolatarrak txaranga goiza giroten izango da, eta umeentzako eskularen txokoa ere jarriko dute.

Eguerdian, paella erraldoia egingo dute, eta, bapo jan ostean, bazkalostean jarraituko du festak. 16:00etan, saskibaloitiro lehiaketa izango da, bikoteka, eta 17:15ean, berriz, kalejira egingo da plazatik Manuel Muñoz kiroldegiraino, Hirugarren Maila Nazionalako Eskoriatza areto futbol taldearen eta Sasikoaren aurkako partidua ikusteko eta animatzeko. Partidua amaitzean, DJ Goiko izango da musika jartzeko, plazan, eta ordu berean parrillada erraldoia prestatzen hasiko dira. Eguna amaitzeko, 23:59an, suziria jaurtiko dute. Zapatukoak eginda, festari amaiera emateko, areto futboleko eskola mailako topaketa egingo da, 09:00etatik 13:00etara bitartean, kiroldegian. "Kasu honetan gaztetxoentzat zuzenduta dago, eta Tolosako eta Lasarteko klubetako gaztetxoaren bisita ere izango dugu".

Eskoriatza Kirol Elkarteko Festa

Egubakoitza, 27

- **20:00** Jesus Candelasen hitzaldia, Ibarraundin.

Zapatua, 28

- **10:00** Kirol elkarteko jokalaririk ohien areto futboleko partidua, kiroldegian.
- **12:30** Bigarren eskuko merkatua. Kirol elkarteko kamiseta historikoak... plazan.
- **12:00** Urolatarrak txaranga.
- **12:00** Haurrentzako eskulana, plazan.
- **14:45** Paella erraldoia, plazan.
- **16:00** Binakako saskibaloitxapelketa, plazan.
- **17:15** Kalejira plazatik kiroldegira.
- **18:00** Eskoriatza-Sasikoa, kiroldegian.
- **19:30** DJ Goiko, plazan.
- **19:30** Parrillada, plazan.
- **23:59** Txupinazoa, plazan.

Domeka, 29

- **09:00** Areto futbol topaketa, kiroldegian.

Eskoriatzako I. Rallysprinta uztailaren 16an egingo dute

Zortzi kilometro izango ditu eta lau txanda: bi bira alde batera eta beste bi kontrako noranzkoan

I.B. ESKORIATZA

Uztailaren 16an Eskoriatzako lehenengo rallysprinta egiteko asmoa agertu du EskoMotor taldeak. Eguna zehaztu dute, eta, Euskadiko Automobilismo Federazioari ere ibilbidearen nondik norakoak erakutsi eta hark begi onez ikusi arren, aurrekontu bila ari dira antolatzailerak, diru-bilketa prozesuan.

Rallysprinta lau txandatan banatuta egongo da: "Tramu berean, bi alde baterako noranzkoan egingo dira eta beste bi kontrako noranzkoan. Hori ho-

rrela, Mendiola elizateko lehenengo aldapatik hasiko da, Lete, Eraña, Bolibar eta Agiñatik pasata, Atxorrotzeko zementuzko bidetik behera; helmuga bertan izango da. Lehenengo bi txandak hala izango dira, Aretxabaletatik Eskoriatzara bitartean. Hurrengoko bi txandak, berriz, Fernando Eskoriatza plazatik irtenda, aurkako noranzkoan, goranzko noranzkoan atera, eta ezkerrean eginda, Namaste belar-dendatik gora, depositu zaharretik gora, Atxorrotzeko zementuzko bidetik gora,



Gatzagakako auto igoera ostean, ibilgailuak Eskoriatzako plazan ikusgai. I. SORIANO

Bolibar, Eraña, Lete eta Mendiola amaituko da". Hala, zortzi kilometroko bidea egingo dute Aretxabaleta eta Eskoriatza herriak hartuz, eta Eskoriatzako elizateetako bideei ere balioa emango diete, bide batez.

Diru pixka bat ateratzeko, kamisetak atera dituzte antolatzailerak, 15 eurotan. Eskoriatzako eta Aretxabaletako hainbat tabernatan jarri nahi dituzte salgai, eta egunean bertan ere erosi ahal izango dira.

Odola emateko autobusa ekainaren 1ean eta 8an

Euskadiko Odol Emaileen Elkartek *Eman odola, nigan bizi* kanpainaren baitan antolatuta, odola emateko autobusa ezarriko dute Fernando Eskoriatza plazan, datozen bi egunetan, ekainaren 1ean eta 8an –eguztenak–.

Beti bezala, odolaren beharra dagoela azpimarratu dute Euskadiko Odol Emaileen Elkartetik; gaineratu dute odol emateen kopurua handitzea premiazkoa dela, euskal ospitaleen odol osagaien beharrei erantzuteko. Hala, herritarrek odola ematera gonbidatzen dituzte Eskoriatzan bi egun hauetan. Autobusa, berriz, ohiko ordutegian izango da, 16:30etik 20:15era bitartean.

"Forbes-en aitortzarekin, jauzia eman dugu"

MARIA JARA PEREA SMALLOPS ENPRESAKO SORTZAILETAKO KIDE BAT 23 urteko gazte ekintzailea 'Forbes' aldizkari ezagunean agertu berri da, '30 Under 30' Europako zerrendan, Smallops enpresako bi sortzailerekin batera

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Maria Jara Lidergo, Ekintzailatza eta Enpresa Berrikuntzan (LEINN) lizentziatua da Mondragon Unibertsitatean, Oñatin (2020), eta haren enpresako kideekin batera *Forbes* aldizkarian agertu izanak hautsak harrotu ditu. Lizentziaturaz gain, Harvard Manage Mentor-en ziurtagiri ugari atera ditu, eta, gaur egun, MBA ari da ikasten, The Power Business Schooleko *ThePowerDigital-Marketing* programan.

Forbes aldizkari ezagunean agertu zara, Smallops enpresako kide. Zer da Smallops? Zer egiten duzue?

Smallopsen oliba-olioa egitean sortzen diren hondakinak baliotatzeko teknologia garatu dugu. Hondakin horri tratamendu bat aplikatzen diogu eta tratamendu horretatik karbonoan kapsulatutako burdin nanopartikulak lortzen ditugu. Gaur egun, nanopartikula hauek biogasa ekoizteko prozesuak hobetzeko erabiltzean zentratuta gaude, onura desberdinak ematen baitizkiote prozesuari.

Zer da zuretzat Forbes aldizkari zerrendan agertzea?

Sorpresa izan zen guretzat *Forbes* aldizkarian agertzea. Oso pozik eta harro gaude eman diguten aitortza handiagatik. Horrez gain, aldizkariari esker, elkarlanerako aukera berriak sortzen ari gara biogasaren eta oliba-olioaren sektoreetan.

Zer dela-eta agertu zarete bertan?

Forbes aldizkarian agertzeko, izendatua izan behar duzu. Behin izendatuta, zure lorpen pertsonal eta profesionali buruzko hainbat galdera egiten dizkizute. Antza denez, ikusi zuten Smallopseko kideek biogasaren eta nanoteknologiaren industria iraultzeko ahalmena dugula, eta hori izan da aldizkarian Smallopsen hiru bazkide sortzaileak agertu izanaren arrazoia.



Jara, berrikuntza sariarekin. MARIA JARA

Zein kargu duzu Smallops enpresan? COO (Chief Operating Officer). Enpresako produktuak sortzeko eta banatzeko sistema nola funtzionatzen ari den gainbegiratzen dut, sistema guztiek ondo funtzionatzen dutela ziurtatzeko. Hala ere, gaur egun, pertsona

"BIOGASAREN ETA NANOTEKNOLOGIAREN INDUSTRIA IRAULTZEKO AHALMENA DUGU"

gutxi gara enpresan, eta, beraz, gauza asko egitea tokatzen zait. Gainera, enpresaren garapen fasearen arabera gauza desberdinak egin behar ditut, finantzaketa publiko/pribatua lortzeko, gure teknologia hazten eta eboluzionatzen jarraitzeko aliantza estrategikoak zaintzera.

Aurrera begira dituzuen proiektuentzat jauzia izan da aldizkarian agertzea?

Bai. Momentu honetan, 5 m³-ko nanopartikulen ekoizpen planta bat jartzen ari gara bazkide baten instalazioetan. *Forbes*-en aitortpenari esker, enpresen eskaera gehiago jaso ditugu haien instalazioetan gure teknologia sartzeko eta gurekin kolaboratzen hasteko.

Hondakinak sortzea saihestea eta ekonomia zirkularra sustatzea du helburu zuen enpresak, oker ez banago, ezta? Gaur egun, denon ahotan dagoen gaia da. Konpetentzia handia dago alor horretan?

Gaur egun, hondakinak hainbat teknologiaren bidez kudeatzen dituzten hainbat enpresa daude. Besteekiko dugun abantaila da gure teknologiarekin oliba-olioaren sektoreko hondakinak *zero hondakin* metodoarekin baloratzeaz gain, ingurumen-aplikazioak dituzten nanopartikulak lortzen ditugula. Era berean, gure prozesu honek oliba-olioaren ekoizpenaren ingurumen-inpaktuak murrizten laguntzen du.

Gazte ekintzailea izatea ere ez da kontu makala gaur egun. Laguntzak izatea, kontaktuak, jakintza maila-handia... ezinbestekoa da zuen alorrean?

Bai, oso garrantzitsua da lanean ari garen sektoreen erronkak eta arazoak ezagutzea eta gure bezeroengan konfiantza sortzea; batez ere, gure kasuan, inoiz ikusi ez den hondakin balarizazio eta nanopartikulen ekoizpen sistema disruptibo berri bat ezartzen ari garelako.

'ZeDemontre' topaketa gertu, herrian sorkuntza sustatzeko

Sortzaile edo artista ez-profesionalentzat zuzenduta, gutxienez 45 minutuko zuzeneko saioa egin beharko da

I.B. ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak *ZeDemontre* topaketaren lehen edizioa sortu du mota guztietako sortzaile eta artistentzat, musikan, antzerkian edo beste edozein modalitatetan. Topaketaren helburua egileen, interpreteen eta sortzaileen sustapena bultzatzea da, kultur erakargarritasunak eta jarduera artistikoak bere estilo desberdinetan duten garrantzia indartzea eta suspertzea eta eskoriatzarren kulturarekiko interesari irtenbidea ematea. Hala, sortzaile eta artista ez-profesionalentzako topaketa, gutxienez 45 minutuko zuzeneko saioa egin beharko dute parte-hartzaileek.

Zuzeneko emanaldiak uztailean

Eskoriatzan jaiotako edo errolatutako pertsona guztiek hartu dezakete parte. Taldeen kasuan, taldeko pertsonetako batek,

gutxienez, Eskoriatzan jaiotakoa izan beharko du, edo bertan errolatuta egon. Hori horrela, interesdunek izena emateko azken eguna ekainaren 20a izango dute, eta, horretarako, udal webgunean dagoen parte-hartze orria bete beharko dute. Emanaldiak uztailearen 15, 16 eta 17ko aste bukaeran izango dira, parte-hartzaileek eta antolatzaileek adostutako egun eta orduetan.

Sari nagusia 400 eurokoa izango da; hala ere, emanaldiaren erdia baino gehiago euskaraz izanez gero, 100 euro gehiago jasoko ditu saridunak. Gai-nontzeko parte hartzaileei dagokienez: banakakoak 100 euro, bikoteak 150 euro eta taldeak 250 euro jasoko dute, eta, hauen kasuan ere, emanaldiaren erdia baino gehiago euskaraz izanez gero, 50 euro gehiago jasoko dute.

Beheko Errota musika eskolako matrikula egin daiteke

Maiatzaren 9an ireki zuten *Barronetik sentitu, bizi, musika gozatu* lelopean matrikulazioa, Eskoriatzako Beheko Errota musika eskolan, eta uztailearen 15era arte dago aukera izena emateko. Musika eta dantza hezkuntza herritar guztien balio eta eskubide gisa sustatzeko asmoz, Eskoriatzako musika eskolan adin guztietarako mu-

sika eta dantza saioak eskaintzen dira; askotariko instrumentuak ikasteko eskaintza zabala dago, haizezkoak, harizkoak, perkusioa, musika modernoa...; eta euskal musika, musika hizkuntza eta trikitia irakasten dute, besteak beste.

Musika eskolako ikastaroren batean izena eman nahi duenak edo informazio gehiagorako, 943 71 49 95 telefono zenbakira deitu daiteke, bertara joan (Hidalga, 5 behea) edo *musikesko@hotmail.com* helbidera idatzi.

Marisol Andraderen eskutik helduentzako ipuinak gaur

Gaur, egubakoitza, 22:00etan, bi ipuin kontaketa egingo ditu Marisol Andrade eskoriatzarrak: batetik, *Non zaz ama?*, euskaraz; eta, bestetik, *Olatzen lagun-minak*, gazteleraz, euskaraz eta ingelesez. Bertara joateko interesdunek gonbidapenak jaso beharko dituzte kiroldegian, eta, sarrera doan izan arren, bukaeraren borondatea eskatuko da.

'Muertos de risa' umorezko antzerkia izango da domekan

Burgeluko La Farandula antzerki taldearen eskutik *Muertos de risa* antzezlan izango da ikusgai domekan, 19:00etan, Zaldibar antzokian. Umorea ardatz, beste munduaren eta hemengoaren arteko konexioa argituko dute. Sarrerak bost eurotan erosi beharko dira alde zurretatik, kiroldegian edo *bibe.me* webgunean.

PENTEKOSTEAK 2022



**Plaza
berreskuratzeko
gertu**

Xaxau konpartsa eta txosnen kokagune berria

Zezen festak eta kuadrillen jolasak

Aspace, suziria jaurtitzeko prest

Erraldoien konpartsak: Bergarakoak eta kanpokoak

Barrakak, jaietako ezinbesteko osagaiak

Askotariko musika

AGIRRE
H O R T Z K L I N I K A

*Aurten bai!
Gora Bergarako
jaiak!*

RPS: 50/19

Ibargarai 32, behea BERGARA | agirrehortzklina@gmail.com | Tel.: 943 76 00 23 | Mug.: 665 72 36 28

JAIETAKO EGITARAUUA

EGUBAKOITZA 03

15:00 IKASLE BAZKARIA, txosnagunean, Xaxau Konpartsaren eskutik.

18:30 TTEK ELEKTROTXARANGA herriko kaleetan.

19:30 Jaiiei hasiera emateko TXUPINAZOA Bergarako ASPACE elkartearen eskutik eta BITORIANATXOREN JAITSIERA San Martin plazan. Segidan, BERGARAKO MUSIKA BANDAREN KALEJIRA.

20:00 TXOSNA IREKIERA eta Xaxauren jaitsiera.

20:30 PARRILLADA auzolanean Seminarioko karpan Oxirondo Aisialdi Guneko gurasoek antolatuta, haur eta gurasoentzat.

21:30 FAMILIENTZAKO ERROMERIA Seminarioko karpan Joxe Mendizabalekin.

22:30 ERROMERIA San Martin plazan GARILAK 26 taldearekin.

22:00 KONTZERTUA txosnagunean AÑUBE taldearekin. Ondoren: LOS ZOPILOTES TXIRRIAOS, DJ FRESA MORANGO eta DJ MIK MIK.

ZAPATUA 04

07:30 TTEK ELEKTROTXARANGAK girotutako GAUPASERO ARGAZKIA.

10:00 DIANA, kaleetan barrena. Bolutik, Bergarako Txistulari Banda; Labegaraletatik, Bergarako trikitilariak, eta Oxirondotik, Elgoibarko dultzaineroak. Ondoren, herriko plazan elkartuko dira guztiak eta Bergarako Erraldioen Taldeko umeen erraldoekin batera Mizpirualdera egingo dute bisita.

11:00 Castellbisbal (Katalunia) eta Ondalan (Deusto) ERRALDOI TALDEEN KALEJIRA Espoioitik eta Urretxu eta Oñatiko erraldoi taldeena poligonotik San Martin plazaraino.

11:00 Herriko elkarten arteko BAKAILAO LEHIAKETA San Martin plazan.

11:30 ERRALDOIEN GUNEA San Martin plazan: erraldioen erakusketa, gomazko erraldioen erakusketa, palomita-makina, erraldioen liburuxka umeek margotzeko, umeentzat puzgarria... Antolatzailea: BET elkarte.

11:30 PENTEKOSTEETARA ONGIETORRIA EGITEKO EKITALDIA, iazko Pentekosteetatik hona mundura etorri diren bergarar txikitxoek, udaletzeko osoko bilkuren aretoan. Ondoren, ARGAZKI BATERATUA ATERATZEA udaletxearen kanpoaldean, San Pedro kalean.

12:00 ERREKORTADORE ESKOLA IBILTARIA gaztetxoentzat zezen-plazan.

13:30 BAKAILAO lehiaketako SARI BANAKETA San Martin plazan.

15:00 Presoen aldeko BAZKARIA txosnagunean.

18:00 TTIPIKA taldearen EMANALDIA txosnagunean.

18:00 Erraldoi, buruhandi eta kilikien KALEJIRA. Ibilbidea: San Martin, Bidekurutzeta, Ramon Maria Lili, Ibargarai, Irizar, Kruz Gallastegi, Bideberri, Fraiskozuri, Herrilagunak, Irala, Barrenkalea, San Martin plaza.

18:30 ERREKORTADORE TXAPELKETA zezen-plazan Bergarako Zezenak ganadutegiko lau zezenekin.

20:00 BERTSO POTEOA txosnagunetik hasita.

23:00 KONTZERTUA San Martin plazan KEROBIA taldearekin.

23:00 DBQ taldearen emanaldia txosnagunean.

00:00-03:00 TESTING Irala kalean.

01:00 SKABIDEAN taldearen KONTZERTUA txosnagunean. Ondoren: GORA ETORRI eta BALUKOI XAXAUTARRA.

DOMEKA 05

09:00 BIGANTXAK zezen-plazan.

11:00 UMEENTZAT GOITIBEHERA ZIRKUITUA Herrilagunak kalean. Antolatzailea: Inertzia kirol elkarte.

11:00 JUGGER ERAKUSTALDIA eta partidak Ipintzako futbol zelaian. Parte hartzea publikoari irekita. Antolatzailea: Arima Galduak jigger kirol kluba.

11:30 XLII. HAUR ETA GAZTEEN SIMON ARRIETA PLASTIKA SARIKETA, San Martin plazan. Laguntzailea: BEART elkarte.

12:00 Afrika Bah Yay MUSIKA-DANTZA ikuskizuna txosnagunean.

12:30 BERGARAKO MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA Espoioian.

Egitaraua:

- *Yakka*. Jose Rafael Pascual Vilaplana.
- *L'Arlesienne*. Georges Bizet.
- *Crossroads*. Carl Wittrock.
- *Itoizen bost doinu*. Itoiz.
- *Las playas de Rio*. Kees Vlak.
- Zuzendaria: Enrike Txurruka.

13:00 XLII. haur eta gazteen Simon Arrieta PLASTIKA lehiaketako SARI BANAKETA, San Martin plazan.

14:00 TXOMINGERO BAZKARIA txosnagunean –norberak bazkaria eroanda–.

15:30 GOITIBEHERA LASTERKETA San Martzialgo bidean. Antolatzailea: Inertzia kirol elkarte.

16:30 HAUR ETA HELDUENDAKO TAILERRA txosnagunean.

18:00 MOKOLOBLOCK KALE BLOCK TOPAKETA Bergara erdialdean.

18:30 EUSKAL HERRIKO ERREKORTARIEN IKUSKIZUNA zezen-plazan, hainbat modalitatetan –balantzina, tankredoa, quada...–.

18:30 SUKALDARITZA AFRIKAR TAILERRA txosnagunean.

19:00 PASADENA taldearen EMANALDIA txosnagunean.

21:00 AFARI SENEGALDARRA txosnagunean.

21:30 KONTZERTUA San Martin plazan PURO RELAJO taldearekin.

22:00 KORTO LEHIAKETAKO emanaldia txosnagunean.

ASTELEHENA 06 KUADRILLEN EGUNA

12:00 KUADRILLEN ARTEKO XII. OLINPIADAK zezen-plazan, Zaldibiako trikitilariak eta Incansables txarangak animatuta.

12:30 CAMP DANTZALDIA Espoioian CUARTA CALLE orkestrarekin.

14:30 HERRI BAZKARIA San Martin plazan INCANSABLES txarangaren animazioarekin. Txartelak salgai: 10,50 euro.



Bitorianatxo erraldoia zapatuan kalean ibiliko da. GOIENA

UGARTE
AROTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoia
Horma-Armairuak
Altzariak neurria
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

AROTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com



Gora Bergarako jaiak!





Bitorianatxoren jaitsiera gaur zortzi, barikuan, izango da. GOIENA

18:00 SORALUCE PILOTA TXAPELKETAREN FINALAK udal pilotalekuan. Antolatzailea: BKEko pilota saila.

18:30 GAZTETXOENTZAKO BIGANTXAK zezen-plazan.

20:00 ALAKET taldearekin ERROMERIA txosnagunean.

23:00 ACAMP DANTZALDIA Espoioan CUARTA CALLE orkestrarekin.

23:00 LUKIEN eta EZPALAK taldeen EMANALDIA txosnagunean. Ondoren: KARAOKEA.

13:00 NAFARROAKO JOTA SAIOA Irala kalean VOCES NAVARRAS taldearekin.

14:00 BAZKARIA eta DANTZALDIA San Joxepe elkartean.

16:30 Bolo, toka eta igel jokoen TXAPELKETA San Joxepen. Antolatzailea: San Joxepe elkarte.

17:00 HAURENTZAT TAILERRA txosnagunean.

17:00-20:00 HAURENTZAKO JOLAS-PARKEA Ipintza II-ko patioan.

17:00 PILOTA PARTIDA PROFESIONALAK Udal Pilotalekuan.

18:00 *Legea gu gara* ANTZEZLANA txosnagunean CIA BARSANTI taldearen eskutik.

18:30 ERREKORTADORE ESKOLA IBILTARIA gaztetxoentzat zezen-plazan.

20:00 TXOSNA ITXIERA eta Xaxauren igoera.

20:00-22:00 ANIMAZIOA San Martin plazan DJ BULLEkin.

22:00 BITORIANATXOREN IGOERA San Martin plazan.

22:00-22:15 ANIMAZIOA San Martin plazan DJ BULLEkin.



Astelehenean, kuadrillen arteko jolasak izango dira zezen-plazan. GOIENA



Ttipika, Maitane Arteaga bergararrarekin, zapatuan. TTIPIKA

Xaxauren egitaraua txosnagunean

EGUBAKOITZA 3

- **15:00** IKASLE BAZKARIA.
- **18:30** TTEK ELEKTRO-TXARANGA kaleetan.
- **20:00** TXOSNA IREKIERA eta Xaxauren jaitsiera.
- **22:00** KONTZERTUA AÑUBE taldearekin. Ondoren: LOS ZOPILOTES TXIRRIOS, DJ FRESA MORANGO eta DJ MIK MIK.

ZAPATUA 4

- GURE ARTERA EGUNA
- **07:30** TTEK ELEKTRO-TXARANGAK giroitutako GAUPASERO ARGAZKIA.
 - **15:00** Presoen aldeko BAZKARIA.
 - **18:00** TTIPIKA taldea.
 - **20:00** BERTSO-POTEOA.
 - **23:00** DBQ taldearen KONTZERTUA. Ondoren: SKABIDEAN, GORA ETORRI eta BALUKOI Xaxautarra.

DOMEKA 5

- NDANK NDANK EGUNA
- **12:00** Afrika Bah Yay MUSIKA-DANTZA ikuskizuna.

- **14:00** TXOMINGERO BAZKARIA (norberak bazkaria eroanda).
- **16:30** HAUR ETA HELDUENDAKO TAILERRA.
- **18:30** SUKALDARITZA AFRIKAR TAILERRA.
- **19:00** PASADENA taldearen EMANALDIA.
- **21:00** AFARI SENEGALDARRA.
- **22:00** KORTO LEHIAKETAKO emanaldia.

ASTELEHENA 6

- KUADRILLEN EGUNA
- **20:00** LAKET taldearekin ERROMERIA.
 - **23:00** LUKIEK eta EZPALAK taldeen EMANALDIA.
 - **03:00** KARAOKEA.

MARTITZENA 8

- **17:00** HAURENTZAT TAILERRA.
- **18:00** *Legea gu gara* antzezlanak CIA BARSANTI taldearen eskutik.
- **20:00** TXOSNA ITXIERA eta Xaxauren igoera.

MARTITZENA 07

UMEEN ETA HELDUEN EGUNA

09:00 BIGANTXAK zezen-plazan.

11:00-14:00 JOLAS-PARKEA haurrentzako eta gazteentzako Ipintza II-ko patioan.

12:00 HERRI KIROL ERAKUSTALDIA San Martin plazan. Aizkolariak: Hodei Ezpeleta, Alex Txikon, Ernesto Ezpeleta *Bihurri* eta Andoni Iruretagoiena *Izeta VI.a*. Harri jasotzaileak: Paulo Aspiazu eta Lierni Osa. Iparraldeko jokoetan: Karlos Aretxabaleta.

Alberto Gorosabel Mendizabal eta Andrea Gorosabel Badiola doktoreak



RPS: 258/18

943 76 56 88 • 618 95 90 17

Fraiskozuri 5A, 1-D. BERGARA

clinicagorosabel

www.gorosabeldental.com

- Ortodontzia: tradizionala eta ikusezina. Odontopediatria. PADI (Osakidetza).
- Estetika eta hortzen zuritzea TEKNIKA BEREZIAREKIN.
- ESKANER DIGITALA diagnostiko zehatzak egiteko. *Ondo ibili jaietan!*
- AHO eta INPLANTEEN KIRURGIA punta-puntako teknologiarekin.
- PRGF (PLASMA).
- Ezpainen estetika eta aurpegiko zimurak betetzeko tratamenduak (azido hialuronikoa).

1990. URTETIK ZUEKIN BERGARAN. ESKERRIK ASKO DENOI!

Soiartze Heras Moreno, jaiak iragartzeko kartel lehiaketaren irabazlea

Gutzira, bost lan aurkeztu dituzte, eta herritarrak izan dira aurkeztutako lanen artean bat hautatzeko aukera izan dutenak, Bergarako Udalaren webgunean

Irma Arabalaza BERGARA

Hainbeste denbora esperuan, murgiltzeko jai giruan izenarekin aurkeztu du Soiartze Heras Moreno bergararrak lana. Gutzira, 242 lagunek eman dute botoa webgune bidez; horietatik 104, kartel irabazlearentzat.

Udalak osatutako epaimahaia ere kartel berbera saritu du, boto kopuru handienarekin. Beart arte elkarteko bi ordezkari, udal zinegotzi bat, Udaleko Berdintasun teknikaria eta Komunikazio arduraduna izan dira epaimahaia osatu duten kideak.

Bigarren boto kopuru handiena jaso duen kartela, 81ekin, *Jai Jou Jura!* izan da. *Aurten bai, Sostengu komunitarioa eta alaitasuna* eta *Bitorianatxo* izan dira beste lanak.

Herasek produktu finala izan denaren gutxi gorabeherako ideia bat bazuen hasieratik buruan. Diseinuak benetako forma prozesuan hartu badu ere, "hasierako esentzia mantenduz" lan egin duela azpimarratu nahi izan du bergararrak.

Pandemiaren eraginez jai gabe pasatutako denborari eta jai

girorako dagoen gogoari erreferentzia egin nahi izan dio jaietako irudia izango den kartelaren diseinuarekin. Hori izatea izan da asmoa, bergararrek hainbeste maite duten eta jaien protagonista den Bitorianatxo leihotik begira ipinita. "Hor dago, leiho atzean, etxean sartuta, gure moduan jaiak noiz eztanda egingo zain", azaldu du Herasek.

Ez da lehen aldia

Pentekoste jaietako programaren azala diseinatzeko lehiaketara aurkeztu den lehen aldia izan



Soiartze Heras, lehiaketaren irabazlea, Bergarako plazan. TXOMIN MADINA MILIKUA

da Herasena. Hala ere, pandemia hasi aurretik ospatutako azken Aratusteetako kartelaren diseinua ere aurkeztu zuen, eta irabazle izan zen.

Gustura jaso du saria bergararrak. "Izan ere, pandemia

aurretiko azken ospakizunaren diseinua nik neuk egin nuen, eta orain, pandemia osteko lehen Pentekosteetako jaien irudia ere nire diseinua izango dela jakiteak poztu egiten nau", aitortu du hark.



Lagun Garajea


Santalaitz, 3

20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Aurten bai!
Ondo ibili jaietan!

autopullmans

Araba



Aurten bai! Ondo ibili jaietan!

Angiozar 3-1 BERGARA • Tel.: 943 76 55 70 - 686 47 68 52
www.arababusbergara.com • info@arababusbergara.com



Aurten bai.



Bitorianatxo.



Marrazki irabazlea, haurren kategorian.



Marrazki irabazlea, helduen kategorian.



Jai Joi Jura!



Sostengu komunitarioa eta alaitasuna.

Zapian, Usoa Mendikuteran eta Laia Iñarraren marrazkiak eta Enara Viagaren leloa

Irma Arabaolaza BERGARA
Aurten ere, Jardun Euskara Elkartek antolatu du zapirako marrazki eta lelo lehiaketa. Bi kategoriatan: haurrena eta helduena.

Helduetan, Usoa Mendikuterena izan da aukeratutako marrazkia. Haurren kategorian, berriz, Laia Iñarrarena. Lelo onenaren saria Enara Viagak eraman du, ondorengo esaldia-

rekin: *Euskara eta festa, herritarron orkestra!*

Epaimahaia elkarteko ordezkariak osatu dute eta oso pozik agertu dira egondako parte-hartze handiarekin. Aspaceren 50. urteurrena dela-eta euren logoa zapian sartzeko erabakia hartu du elkarteak, keinu moduan.

Zapiak salgai egongo dira ekainaren 2an, Irala kalean, eta 3an eta 4an, San Martin plazan –lehenago agortu ezean–. Aurrez, hainbat tabernatan eta Jardun Elkartean ere jarriko dira salgai.

Telefono bidezko informazioa / 24 orduko arreta SATEVI: 900 840 111

Larrialdia 112

Udaltzaingoa 092

Txosnak lekualdatuta, egiturari eutsiko diote

Xaxau jai herrikoien konpartsak prest dauka Bideberrin beharrean Oxirondo azokako aparkaleuetan garatuko duen egitaraua. Hilabeteetako lanak fruituak emango ditu ekainaren 3tik 7ra, baina hona hemen abisu bat: "Jende gehiagoren beharra dugu"

Hasier Larrea BERGARA

Jaietarako "sekulako gogoia" dutela ezkatutu gabe azaldu dira Andoni Etxezarreta eta Nere Zurro, Xaxauko kideak. "Hilabete askoan" aritu da hamar lagun inguruko talde motorra aurtengo egitaraua lotzen, eta bergarar askok momentu puntualetan, txandak egiteko eta abar, euren prestutasuna adierazi badiete ere, azken urteetako beherakadan jarri dute fokua: "Urtez urte gero eta kide gutxiago aritzen gara egunerokoan, eta horrek jendea erretzeko arriskua dakar. Erreleborik egon ezean, jaiak antolatzeke gai izango ez garen momentua iritsiko da; nork daki... agian, datorren urtean". Hori esanda, Xaxauko ateak parez pare zabaldu dizkiete gazte bergararrei.

Aldaketa, "kokapenean soilik"

Bideberri hiribidean egiten ari diren obrak direla-eta, aurtun behartuta egon dira txosnak tokiz aldatzera. Mahai gainean izan duten "aukera bakarra" Oxirondoko aparkaleuetara lekualdatzea izan den arren, espero dute bergararrek, eta oro har jai-girora joaten direnek, beti bezala erantzutea. Hori ziurtatzeko, txosnen egitura mantentzearen alde egin dute,



Xaxau jai herrikoien konpartsako antolatzaileak, kartelak erakusten. JOKIN BEREZIARTUA

"karpa, bi txosna eta otordueta-rako mahaiak" jarriko baitituzte. Ibilgailuek, beraz, beste toki batean aparkatu beharko dute.

Badakite, halaber, toki berriak eragozpen bat edo beste ekar ditzakeela, poteo-gunetik zertxobait aldentzen delako, bereziki: "Baina espero dugu jende asko etortzea, eta horretarako promozioa lantzen gabilta".

"Egitarau aparta"

Datorren barikutik martitzenera, bost egunean jarraian egongo da zer egin Oxirondon. Ikas-

le bazkariarekin ekingo diote Pentekosteetako egitarauari, eta 20:00etan irekiko dituzte txosnak. Gaueko kontzertua gozatzeko modukoa izango dela nabarmendu dute Etxezarretak eta Zurrok: Añube taldean herriko musika-riak ditugu, eta azkenaldian nahiko indar hartzen dabilta; Zopilotes Txirriaosek izen esanguratsua dauka, martxa ederra jarriko dute".

Hurrengo egunean, zapatuan, egingo duten euskal preso eta iheslarien aldeko bazkarian parte hartzeko dei ere egin dute,

Ndank Ndank eguna domekan

Xaxau birus xaxatia jantzi afrikarrez apaindu dute aurtengo kartelean, *yembe* danborra astintzeko makilak eskuan dituela. Horren arrazoia da Ndank Ndank elkarteari keinu egingo diola aurtun jai herrikoien konpartsak. Izan ere, 10 urte bete ditu aurtun senegaldar eta euskaldun ez osatutako irabazi asmorik gabeko erakundeak, eta, "herrian mugimendu handia eragiten duen taldea" dela aintzat hartuta, Xaxauko kideek omenaldia egiteko abagune aproposa ikusi dute. "Ideia zaparrada bat egin genuen jaiak antolatzeke lehen bileretan, eta gure aitortza jasotzea merezi duten eragileen zerranda bat osatu; erabakia hartu genuenean, Ndank Ndankeko kideei komunikatu genien, eta ilusio handiarekin jaso zuten albistea", adierazi du Irati Alberdik.



Elkartekoak, danborrak astintzen.

Elkarrengandik ikasteko egitaraua

Hala, domekako egitarauari kutsu senegaldarra emango diote. 12:00etan ekingo diote ekintzei, Afrika Bah Yay taldearen musika eta dantza ikuskizunarekin. Eguerdian, *Txomingero* bazkaria egingo dute, bakoitzak bere otordua eramanda. Arratsaldean zehar, haur eta helduentzako tailerrak, sukaldaritza afrikarri buruzko ikastaroa eta Pasadena taldearen kontzertua egongo dira. 21:00etan, afari senegaldarra egingo dute; eta 22:00etan, film laburren lehiaketako piezak proiektatuko dituzte.

eta gauean zehar *balukoi* txapelketa egingo dutela gaineratu, "modu informalean".

Baina egunik ederrena zein izango den galdetuta, erantzun argia eman dute: "Astelehena da egunik politena, bergarar kuadrillok gehien gozaten duguna. Herri bazkariaren ostean, 20:00etan, Laket erromeria taldea igoko da karpako oholtzara; urtero bezala, jendeak dantza gototik egingo duela espero dugu".

Atsedean hartzeko denborarik ez dute izango parrandazaleek gauean zehar, 23:00etan hasita

Lukiek eta Ezpalak bandek distortsiozko soinuak beteko baitute gunea. Eta 03:00etan, kanta egiteko gogoz dagoenak karo-keko mikroa izango du eskura.

Hilaren 7an agurtuko dituzte jaiak, haurrentzako tailer eta *Legea gu gara* antzezlanarekin.

XAXAUKOEN IRITZIZ, ASTELEHENA IZANGO DA EGUNIK POLITENA, LAKET ERROMERIA TALDEAK GIROTUTA

construcciones
Goitu
eraikuntzak S.L.

Aurtun bai!
Gora Bergarako jaiak!



- Eraikuntza orokorra • Fatxadak • Teilatua
- Terrazak • Birgaitze orokorra • Baserriak
- Unifamiliarrak • Pabilioiak • Proiektuak...

Tel.: 943 76 11 23 - Faxa: 943 76 30 41 | Masterreka 14-16 / 20570 BERGARA (Gipuzkoa)
goitu@grupogoitu.com | www.grupogoitu.com



2019ko Pentekoste jaietan, errektadoreak balantzinarekin erakustaldia egiten, bigantxaren aurrean. GOIENA

Ohitura mantentzeak dakarren ordainsaria

Pandemia osteko lehen zezen-ikuskitzunez gozatuko dute bergararrek, Seminarioko patiora itzuliko baitira Bergarako Zezenak ganadutegiko animaliak. Bigantxa eta zezenen ahala eta ausardia neurtuko dituzte errektortari iaio, gazte eta kuadrillek

Hasier Larrea BERGARA

Bergarako Zezenak ganadutegiak bere eskumeneko 200 animaliak mantentzearen aldeko apustua egin zuen pandemia garaian, "gastu moral eta ekonomiko handia" jasanda ere. Hala laburtu du ikuskizunik antolatu gabe egon behar izan duten garaia Iñigo Almorzak. Meritua ez da makala izan, kontuan hartuta "egoerak behartuta Espainiako

ganadutegi askok egin dutela zezenak sakrifikatzearen alde", Almorzaren esanetan.

Zezenak hiltegi bidaltzea "gauza tristea" dela ez du hark bakarrik pentsatzen, afizionatuek babes handia helarazi baitiete azken bi urteotan: "Taldea batek kamioi bete pentsu bidali zigun behin, eta gure instalazioetara ere etorri izan dira errektadoreak tarteka, entrenamenduak

bertan egiteko; joan den asteburuan, adibidez, Baionako errektadore eskolako 50 lagun jaso genituen etxean".

Afizioa, mailaren pare

Baionako eskola hori, sorreran, Bergarako Zezenak errektadore eskolan oinarritu zela gogoratu du Almorzak: "Gurea da Espainia mailako lehena, eta kalitate handiko errektora-

doreak pasa dira hemendik; horietako zenbait gaur egun modalitate desberdinetako txapelak dira".

Zezen-plazako harmailak beteko dituzten festa-zaleek, beraz, maila handiko jauzi eta mugimenduez gozatuko dute zapatutik martitzenera bitartean. Zezenik handienak zapatu arratsaldeko txapelketarako ardura-dunek: "Euskal Herriko errektadore adituak etorriko dira hitzordura, eta saio serioa eta arriskutsua izango da; zezenen jarrerak erabakiko dute zenbaterainokoa". Kutsu ludikoagoa izango dute gainontzeko saioek; domeka arratsaldekoak, esaterako, une xeble eta ikusgarriak uzteko txartel guztiak dauzka.

Astelehen eguerdirako programatu dituzte, osterara, herri-

ko gazteen artean sekulako ikusmina sortzen duten kuadrillen arteko olinpiadak. 2019an hogeitaz talde parte hartu zutela oroitu du Almorzak, eta aurten ere antzeko partaidetza espero du: "Lehen aldiz antolatu genuenean, ordea, parte hartzeko erregutu behar izan genion jendeari".

Gaur egun, askoren gogoko ekitaldia da: "Azkenaldian egin ditugun ekitaldiak zeharo arrakastatsuak izan dira. Portasoldik ere deitu digute, aurten antolatu nahi dutela esateko".

URTETIK URTERA IKUSMIN HANDIAGOA PIZTEN DUTE ZEZEN-PLAZAKO EKINTZEK; OLINPIADEK, BEREZIKI

Lau egun, zortzi hitzordu

Urtero egin ohi duen egitaraua antolatu du Bergarako Zezenak ganadutegiak. 60 animaliatik gora aterako dira zezen-plazara.

Ekainak 4, zapatua

- Errektadore eskola ibiltaria, 12:00etan.
- Errektadore txapelketa, Bergarako Zezenak ganadutegiko lau zezen indartsurekin, 18:30ean.

Ekainak 5, domeka

- Bigantxak, 09:00etan.
- Euskal Herriko errektadoreen ikuskizuna: quad, balantzin eta tankredo-modalitateak, 18:30ean.

Ekainak 6, astelehena

- Kuadrillen arteko XII. olinpiadak, Zaldibiako trikitilariak eta Incansables txarangak animatuta, 12:00etan.
- Gaztetxoendako bigantxak, 18:30ean.

Ekainak 7, asteartea

- Bigantxak, 09:00etan.
- Errektadore eskola ibiltaria, 18:30ean.



- AHOLKULARITZA FISKALA
- AHOLKULARITZA LABORALA
- KONTABILITATEAK
- ERRENTA AITORPENAK

- USUFUKTU DOHAINTZAK
- HAINBAT ZERBITZU
- GESTORETZA

Aurten bai! Gora Bergarako jaiak!

Ibargarai 18, behea - BERGARA • Tel.: 943 76 12 28
Faxa: 943 76 38 36 • lauki@asesorialauki.com



Agustin Toledo, Aritz Bikuña eta Eneko Ziarsolo jaietako kartelarekin. L.Z.L.

Ilusio handiz, suziria botatzeko prest

Bergarako Aspace elkarteak kideen eskutik helduko dira, aurten, Pentekoste jaiak. Haiak botatuko txaplogua entzundakoan jaitziko da Bitorianatxo udaletxeko balkoira eta orduan lehertuko da festa. Herritarrei eta bisitariei ondo pasatzeko dei egin diete

Larraitx Zeberio Lekuona BERGARA
Agustin Toledok, Aritz Bikuñak eta Eneko Ziarsolok botako dute suziria aurten udaletxeko balkoitik. Aspace elkarteak 50. urteurrena du eta makina bat ekintza egiten ari da Gipuzkoa osoan zehar. Bergarako Pentekoste jaietan ere protagonista izango dira, eta poz ikaragarria da Aspaceko kide guztiendako.

"Ikus gaitzaten nahi dugu. Garraztsua da; izan ere, jende askorendako Aspace beste mundu bat da, eta ozen esan nahi dugu ez garela gaixoak. Garuneko paralisia dugu; ez da gaitasun bat, lesio bat baizik, eta Aspace aspalditik dago Bergaran", azaldu du Aritz Bikuñak. Une oso berezia izango dela argi dute Bikuñak, Toledok eta Ziarsolok.

"Asko gara Aspace Gipuzkoan. Guztira, eta helduendako bakarrik bederatzi zentro daude lurraldean. Horrekin batera, etxebizitzak, umeendako zentroak eta abar luzea daude... Denen izenean botako dugu suziria. Festa beste alde horretatik bizitzea oso berezia izango da. Urduri egongo gara, txiribitak urdailean!".

Jaietan erasorik ez

Suziria bota osterako plana egiten ari dira Aspaceko kideak. "Ziurrenik, ogitarteko bat jateko plana egingo dugu, afaltzeko", aurreratu dute. Gustuko dute herriko egitasmoetan parte hartzea. Toledok eta Bikuñak Osasun Sarean, Bergara Oinez egitasmoan eta irisgarritasun eta berdintasun batzordeetan parte hartzen dute. "Bergara 2030 plan estrategikoan ere hartu dugu parte", zehaztu du Toledok.

Bi urte jairik gabe egon eta gero, Aspaceko lagunak iritzi

berez izango dira bereziak aurten Pentekoste jaiak. "Nahiko genuke denok gozatzea, eta horrekin batera dena lasai eta giro onean joatea; pertsonen errespetuz eta inolako erasorik gabe. Izan daitezela denok gozatzeko moduko jaiak!".

"POZIK GAUDE DENOK; IKUS GAITZATELA NAHI DUGULAKO, BAINA GAI DIREN PERTSONA GISA"



Plaza jendez lepo jaien hasierako ekitaldian, 2018an. GOIENA

San Martin plaza beteta egongo da

Une oso bereziak izango dira festazale guztiendako, eta Bergarako Aspaceko kideendako zer esanik ez! *Biku-k* eta *Agus-ek* botako dute suziria datorren egubakoitzean, baina Aspace osoaren izenean. "Askotan izan naiz txupinazoan. Asko gustatzen zait bertan egoten den giroa", adierazi du Aritz Bikuñak. "Suziria pizteko proposamena egin didate eta ilusio handia egiten dit", dio Agustin Toledok. Hainbeste jenderen aurrean urduri jarriko direla diote, baina ondo prestatuta joango dira, eta lagunez inguratuta. "Plaza, egun horretan, sardina-lata izaten da. Denok joango gara. Batzuk balkoian egongo gara eta beste batzuk plazan. Kamiseta bereziak prestatzen ari gara; mahoi kolorekoak eta Aspaceko 50. urteurrenako logo handi handiarekin, ondo ikus dadin. Gero, besoak zabalik egingo diogu harrera Bitorianatxori".

itesa

Aurten bai! Gora Pentekosteak!

BERGARA • San Juan auzoa • 943 76 22 97



Nerea Madariaga eta Idoia Igartua, Xubanekin. N. M.



Mikel Elkorro eta Olmar Elejaga, Danelekin eta Sarrekin. M.E.



Oihane Agirre eta Ander Meabe, Aiurrekin. O.A.

Jaioberriak prest daude Pentekoste jaietarako

Ekainaren 4an, ongietorria egingo diete aurreko urteko festetatik hona jaiotzen diren haurrei; ohi bezala, zapia jarriko diete lepoan eta talde-argazkia aterako dute. Parte hartuko duten hiru dira Xuban, Sare eta Aiur, eta horien gurasoekin izan da GOIENA

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARARA 2011n hasitako tradizioari jarraituz, ongietorria egingo diete izako Pentekosteetatik aurtengotara mundura etorri diren jaioberriei. Ekitaldia ekainaren 4an, zapatua, izango da, udaletxe oso bilkuren aretoan, 11:30ean hasita. Bertan jarriko diete txikitxoei zapia banan-banan. Ondoren, argazki bateratua aterako dute udaletxearen kanpoaldean; zehazki, San Pedro kalean.

Udalak dagoeneko bidali dizkie ongietorrian parte hartzeko gonbidapenak 105 jaioberriei. Hala ere, Udalak berak aurreratu duenez, aurten, "aurreko jaietatik hona Bergaran erroldatuta ez dauden baina Bergararekin

lotura duten haurren familiek, hala nahi badute, ekitaldian parte hartu ahal izango dute".

Hamaikagarrenez egingo dute aurten "jaioberriak jaietan integratzea" helburu duen egitasmoa. 2020an, pandemiagatik bertan behera geratu zen, eta, joan den urtean, osasun neurriek baldintzatu zuten ekitaldia. Dena den, "aurten pandemia aurreko egoerara bueltatuko da ekitaldia".

Gurasoen poztasuna

Xuban, Sare eta Aiur azken Pentekosteetatik hona jaiotzen diren hiru haurtxo dira, eta ekainaren 4an zapiaren ekitaldian parte hartuko dutela baieztatu duten euren gurasoek.

Nerea Madariagak eta Idoia Igartuak lehenengo semea dute Xuban, eta ilusioz hartu dute parte hartzea: "Guk betidanik helduen zapia jantzi izan dugu, eta orain, txikien horrek ere ilusioa egiten digu. Azkenean, desberdina izango da. Aurreneko jaiak izango dira Xubanekin; poztasuna ematen digu hark parte hartzeak eta ongietorria egiteak".

MADARIAGA ETA IGARTUA POZIK, XUBANEK LEHEN ALDIZ ZAPIA JANTZIKO DUELAKO

Mikel Elkororen eta Olmar Elejagaren bigarren haurra da Sare. Danelek duela urte batzuk izan zuen aukera zapia jantzeko, eta alabarekin errepikatuko dutela diote, "oso polita" iruditu zitzaielako. Bestalde, egun hori kinto bereko haurrak ezagutzeko egun aproposa dela nabarmendu du Elkorok: "Azkenean, gure alabaren lagunak izango dira".

Oihane Agirre eta Ander Meabe, berriz, oporretan joatekoak ziren Aiurrekin, baina, azkenean, planak aldatu eta Bergaran geldituko dira. "Gutuna jaso nuen, emozionatu ere egin nintzen. Polita iruditzen zait, eta harentzat ere oroitzapen polita izango da. Txikitatik Bergarako jaietan sartzeko aukera polita da, ezta?", dio Agirrek.

Lagunekin elkartzeko aitzakia

Denentzat dira festa egunak, eta hiru familiek antzerako plana

ELEJAGA-ELKORO FAMILIA BIGARREN URTEZ IZANGO DA ZAPIEN EKITALDIAN; ORAIN, SARREKIN

egingo dute talde-argazkia ateratu ostean: familiarekin edo lagunekin bazkari ederra.

Xubanen gurasoen kuadrillan, esaterako, badira ekitaldian izango diren beste haur gehiago. "Kuadrillakoak denok batera joango gara, eta ondoren, bazkaria egiteko asmoa daukagu".

Aiurren gurasoak ere festarako prest daude. Oihane Agirrek hauxe adierazi du: "Kanpoan egon naiz bizi izaten zapi urtez, eta, azkenean, gauzak ikusteko eta Bergarako jaietan disfrutatzeko gogoz gaude. Gure laguna den arabar bikotearekin bazkalduko dugu, eta gero, kalera irteteko asmoa daukagu".

Sareren kasuan, duela aste eta erdi jaiotzen diren, eta jaietako zapatuan hiru aste inguru izango ditu. Hori dela eta, familiak ere ongietorria egingo dio, bi gurasoen familiarekin bazkaltzea baita asmoa.

AIURRENTZAKO GONBIDAPENA JASO ZUENEAN, EMOZIONATU EGIN ZEN OIHANE AGIRRE

ibili

AURTEN BAI!
Ondo pasa jaietan!

www.ibilimenaje.com

Juggerra gertutik Ipintzako berdegunean

Domekero entrenatzen dira Arima Galduak taldekoak eta Dragoi Arimakoak Bergaran. Hilaren 5eko lan-saioa, baina, berezia izango da, juggerra ezagutzeko aukera egongo da-eta; kirola egiteko arropa eta ondo pasatzeko gogoia, ez da gehiagorik behar

Xabier Urtzelai BERGARA

Pazko jaien barruan hitzordu berezia antolatu dute Ipintzako berdegunean domekarako, hilak 5 (11:00). Izan ere, ohiko kirol eskaintzatik harago, herritarrek juggerra gertutik ezagutzeko aukera izango dute, horretarako erakustaldia antolatuko dute-eta Eibarko Arima Galduak-eko eta Arrasateko Dragoi Arimak-eko taldeko lagunek. "Normalean, domekero batzen gara bi taldeetako ordezkariak, eta elkarrekin entrenatzen gara Bergaran. Hain zuzen, inguruko hainbat herritako jendea dugu taldean, eta Bergara leku estrategikoa da guretako, denondako eskura dagoen herria da eta".



Arimak Galduak taldeko kideak, maiatzeko saio batean. ARIMA GALDUAK

Entrenamendu saioa

Eta jaietarako prestatu duten erakustaldian ere horixe egingo dute, entrenamendu saio moduko bat. "Lan-saioan teknika landuko dugu, borrokalditxoak antolatuko ditugu... Baina ea jendea animatzen den; izan ere, gurekin batera entrenatzeko aukera emango diegu bertaratzen direnei", adierazi dio GOIENARI Vanessa Ots-ek. "Hori ez da erakustaldiko kontua bakarrik; edozein domekatan guregana etortzen denak ateak zabalik ditu, gurekin batera entrenatze-

ko ez da ezer behar, eta aukera ematen dugu juggerra gertutik ezagutzeko".

Taldetxoak sortu, eta borrokara

Horixe izango litzateke ideala, jaietako egitarau barruan antolatuko duten erakustaldira jendea kopuru polita joatea, bertan taldetxoak sortu ahal izateko: "Bost laguneko taldeak sortzea izango litzateke aproposena, eta borrokalditxoak antolatu. Horretarako, jendeak arropa eroso ekar dezala, txandal edo praktak, eta futboleko botak edo

mendian ibiltzeko zapatilak badituzte, hobeto, berdegunean eroso egon daitezten. Bestela, zapatila normalekin ere moldatuko dira. Eta 12 urtetik gorakoei zuzendutako saioa izango da. Gehienezko adinik, berriz, ez dago, ondo pasatzeko gogoz etor daitezela". Eta, behin juggerra gertutik ezagututa, zergatik ez, posible da norbait pauso bat aurrera ematera animatzea: "Nork daki; akaso, erakustaldiaren ostean kirol honek harrrapatu eta talde berriak sortuko dira".

Soraluce Torneoko finalak eta profesionalen jaialdia, gertu

Maiatzaren 31n jokatuko dituzte Lau eta Erdiko Txapelketako finalerdiak; eta finala, ekainaren 7an

X.U. BERGARA

Pilota hitzorduek ez dute hutsik egingo Pazkoetan, ez amateur mailako jaialdiek, ezta pilotari profesionalak ere. Batetik, datorren martitzenean, hilak 31, jokatuko dituzte Soraluce Lau eta Erdiko Txapelketako bigarren finalerdiak –18:00etan hasita–, eta finalistek ekainaren 7an (18:00) izango dute hitzordu handia. Hain zuzen, martitzenean jokatu zituzten lehenengo finalerdian dagoeneko bi pilotari sailkatu dira final handirako. Promesa mailan, Iker Egiguren azpeitiarrak 22-12 irabazi zion Aitor Lara errioxarrari. Lehen zatia oso parekatua izan zen, hala ere, azken hamar tantoak erreskadan egin eta finalerako txartela lortu zuen gipuzkoarrak. Nagusien mailan, berriz, Aitor Alduntzinek 22-16 irabazi zion Gaizka Karregali.



Rezusta Bergaran. GOIENA

Jaialdi profesionala 8an

Bestalde, Aspeko pilota jaialdi profesionala ere izango da Bergarako jaietan. Ekainaren 8an izango da jaialdia –17:00etan hasita–, eta oraingoz, Aspekoek baieztatu dute Beñat Rezusta kantxan izango dela.

Herri kiroletako erakustaldian Txikon izango da tartean

Martitzen eguerdian, hilak 7, herri kiroletako erakustaldia egingo dute San Martin plazan, 12:00etan hasita. Aizkolariak izango dira Hodei Ezpeleta, Alex Txikon, Ernesto Ezpeta *Bihurri* eta Andoni Iruretagoiena *Izeta VI.a*. Harri jasotzaileak, berriz, Paulo Aspiazua eta Lierni Osa. Iparraldeko jokoetan Karlos Aretxabaleta izango da.



Txikon ezkerrean, 2015ean. GOIENA

• Ibargarai 24

Tel.: 943 76 70 29

• Super Amaran ere bai:

San Lorentzo pol. 9

Amillaga 18

Tel.: 943 76 99 34

BERGARA

Gora Bergarako jaiak!



Mokoloblock, edo kaleko oztopoak gainditzea

Ekainaren 5ean, Bergarako rokodromo berriari atsedean apur bat emango diote eskalatzaileek, eta lehenengoz egingo dute kaleko boulder txapelketa (18:00). Jai giroan antolatutako hitzordua izango da; hogeitaz lagunek gehieneko muga jarri dute

X.U. BERGARA

"Arrasaten urteak daramatzate jaietan kaleko boulder txapelketa antolatzen, eta pandemia aurretik bertan behera geratu ziren Bergarako jaietarako ere egitarauan prest geneukan halako txapelketa bat. Orain, rokodromo berriaren aitzakiarekin, Udalarekin ere hartu-eman esutuagoa dugu, eta osterara ere jaietara begira txapelketa antolatzeko ardura hartu dugu", adierazi du Mikel Uribesalgok.

Hogei lagunendako tokia

Mokoloblock txapelketan gehienez hogei lagunendako tokia izango da: "Herriko hainbat



Arrasaten sanjuanetako (2018) kaleko boulder txapelketaren une bat. GOIENA

eraikin publikotako hormak ikuskatzen ibili gara eta udaletxean hasiko gara (18:00). San Pedron, Santa Marinar, Txosnagunera ere joango gara... Eskalatzaileek ez dute guk proposatutako oztopoak gainditzeko garaiera handirik hartuko eta koltxonetak eramango ditugu babes neurri moduan, eta musika ere izango dugu une oro. Helburua da jai-giroan arratsalde-pasa ona egitea, eta, eskaladan murgilduta dagoen belaunaldi ezberdinetako jendea batzen badugu, ba, ederto".

Antolatzaileek argitu dute txapelketako irabazleendako sariak eman beharrean nahiago izan dutela denendako detaile bat prestatu. "Kaleko boulder txapelketako onenak saritu beharrean, nahiago izan dugu rokodromo berriko heldulekuak garbitzeko eskuila txiki batzuk banatu: katu oinendako poltsa bat, jaietako zapia... Denendako egongo da oparixoren bat". Uribesalgok uste du rokodromo berriak eskalada sustatu duela herrian, eta espero du kuadrilla polita batzea jaietan. Bergarako Udaleko webgunean eman daiteke izena.



San Martzialen behera 2019an. GOIENA

San Martzialen behera, ziztu bizia ekainaren 5ean

2019ko edizioan, zenbait kategoriatako 40 goitibehera batu ziren San Martzialgo irteera puntuan, eta jaitsieran izan ziren ikusleek gozatu ederra hartu zuten. Bada, ekainaren 5erako (15:30), Inertzia taldeko lagunek lasterketa antolatuko dute osterara ere. Oraingoan ere, *drift trike* kategoriatan, pneumatika kategoriatan eta goitibehera arinen kategoriatan izango dira.



BERGARA

www.alet-taldea.com
Tel.: 943 765 815
620 56 13 16
669 36 69 53

Ingenieritza eta Instalakuntza

Energia fotovoltaikoa • Energia Termikoa • Geotermia
Biomasa • Zoru Erradiatzailea • Aerotermia

**Autokontsumoko instalakuntza fotovoltaikoetan
eta litiozko baterietan adituak gara.**

Gora bergararrok!



Aurten bai!
Ondo ibili jaietan!

Ordutegia: 08:30 - 20:30 | Ibagarai Ibilbidea 11 | Tel.: 943 76 28 92



Bakailao plater onenaren bila

Herriko zazpi elkartek hartuko dute parte aurten jaietako bakailao lehiaketan, zapatuan, hilaren 4an. Lehia estua izaten da, bereziki, onenen artean

Eneko Azkarate Laspiur BERGARA Bergarako jaietako egitarauan klasikoetako bat da: zapatu goiz-eguerdirako hitzordu ohikoa. Aurten ere bakailaoa pil-pil erara nork baino nork hobeto prestatu ariko dira lehian herriko elkarte gastronomikoetako ordezkariak. Zazpi elkartek eman dute izena –gehienez ere hamabik har dezakete parte, oinarrien arabera-. Eta elkarte bakoitzeko bi lagun ariko dira sutondoan. Honako elkarte hauetakoak izango dira udaletxeko arkupeetan jarritako sukalde berezietan:

Aizepe, Aiz-pe, Gure Ametsa, Madura, Pertxa, Santa Ana eta Umore Ona. Iaz irabazle atera ziren Pertxako ordezkariak, Fernando Karasatorre eta Ander Errasti, saiaturako dira berriro saria jasotzen.

Antolaketatik adierazi dutenez, beranduenez, 11:00etarako tokian egon beharko dute lehiakideek. Antolaketak jarriko du sukaldarientzako tresneria: suak, lapikoak, amantalak... Azken hauek, Lacor enpresak emandakoak. Parte hartzaile zein bertaratzen diren gainerako

herritarrentzako, bestalde, haiketakoak izango da: herriko okindegi, harategi eta edari banatzaileek emandako janak eta edanak. Sari banaketa 13:30ean izango da, San Martin plazan bertan. Hiru sari banaturako dira: txapela eta garaikurra irabaz-

"OSO MAILA ONA DAGO ETA LEHIA HANDIA SORTZEN DA ONENEN ARTEAN"

AINTZANE REMENTERIA, EPAIMAHAIKIDEA



2019ko lehiaketa. AITOR AGIRIANO

leendako eta garaikurra bigarren eta hirugarren sailkatzen direndako.

Bergarako Udalak 110 euro emango dizkio, udal bonuetan, lehiaketan izena eman eta parte hartuko duen bikote bakoitzari. Dieta horrekin bakailaoa eta berau prestatzeko behar dituzten osagarriak erosiko dituzte lehiaketako parte hartzaileek. Bakailaoa prestatu ostean, parte hartzaile bakoitzak dastatuko du, jeneralean, elkarteetan bertan mahaiaren bueltan elkartutako hurbilekoekin.

Bakailao onaren sekretua

Aintzane Rementería eta Koldo Arruti ariko dira epaile lanetan. Rementeriak dio Pazkoetako bakailao lehiaketan lehia handia izaten dela eta lehenengo postuetan gelditzen diren platerak oso maila handikoak izaten direla. Pil-pil erara egindako bakailao on baten sekretuaz galduta, dio garrantzitsuena dela "saltza ondo ligatuta egotea eta bakailaoa siku ez egotea"; azken finean, "puntuan egotea".

Koldo Arrutiren ustez, produktua da inportantea: ondo



iBARRALDE
Administrazio zerbitzuak SL

- Fiskalak
- Laboralak
- Kontableak
- Finken administrazio zerbitzua

25.068 kolegiatu zenbakia

Ibargarai 30 BERGARA
Tel.: 943 76 52 88 - Faxa: 943 76 25 64

Ondo ibili jaietan!



Murillo Garajea
Auto konponketak orokorrean

Aurten bail!
Ondo ibili jaietan!

Leizeaga 4 - BERGARA
Tel.: 943 76 13 84

gezatutako bakailoa, oliba-olio birjina ona eta berakata. "Batzuek pipermina ere botatzen diote, baina ez da denen gustukoa; hortaz, kontuz horrekin", dio dagoeneko 20 bat urte lehiaketan epaimahaikide daroatzen sukaldari ohiak, urte askoan Osintxuko erretegia lehenengo eta, gerora, Torrekua jatetxean sutondoan aritutakoa.

Lagunartean disfrutatu

Aurten ere aurkeztuko dira 2019ko irabazleak, Fernando Karasatorre eta Ander Errasti. Azken horrek dio oraingoan ere galdetu dutela elkartean ea norbait animatzen den, eta, beste inor agertu ez denez, haiek "errepikatuko" dutela berriro. "Pandemia aurreko ohiturak berreskuratu, goiz-pasa ederra egin eta prestatutako bakailoa lagun artean dastatzea da helburua,

"GARRANTZITSUENA DA SALTSA ONDO LIGATUTA EGOTEA; SIKU EZ EGOTEA"

AINZANE REMENTERIA, EPAIMAHAIKIDEA

eta aurten ere Pertxan elkartuko gara mahaiaren bueltan". Bakailoa herrian erosiko dute, gatzgabetua. Hortaz, zapatuan, plazara etorri eta, aurrekoan bezala, "azken unean" jarriko dira lanean, lapikoari ondo eragiten, saltsa-olioa eta arrainaren gelatina, berakatzarekin eta "pipermin barik"- ondo ligatu dadin.

Goienak batu zituen

1990eko hamarkadatik hona jaietan etenik barik antolatu den jaietako lehiaketarako dena dago gertu, hortaz. Azken bi urteetan, jairik ez zelarik, Goienak egin zuen lehiaketa moduko bat. Iaz, sukaldean batu zituen Juanbi Bengoa, Juan Manuel *Pepelu* eta Nerea Madariaga. Lehenengo biek pil-pilean egin zuten; Madariagak, bizkaitar erara. Elkartean prestatu zuen bakoitzak berea eta San Martin plazan elkartu, epaimahaiaren azken erabakirako. Sirimiri tabernako Ainhoa Romerok eta Etxagi tabernako Inazio Etxabarririk izan zuten hitza. Haiek Juanbi Bengoari eman zioten lehen saria.



AITOR AGIRIANO

"Lehiaketa hasi zen eta guk ez genion berehala prestatzeari ekin"

FERNANDO KARASATORRE ETA ANDER ERRASTI
2019KO IRABAZLEAK

Pertxa elkarteko Fernando Karasatorrek eta Ander Errastik prestatu zuten bakailorik onena azkeneko Bakailao Lehiaketan, 2019ko Pazkoetan. Aurten ere, helburu berarekin parte hartuko dute, sutondoan jakia prestatu, disfrutatu eta bakailoa elkartean jateko asmoarekin. **2019ko jaietan irabazle izan zineten. Nola gogoratzen duzue? Zelako esperientzia izan zen?**

Ikaragarria. Gure lehenengo parte-hartzea zen lehiaketan; ez genuen buruan lehenengo hiruren artean gelditzea ere. Beraz, arraina prestatu, ahalik eta ondoen pasa eta bakailoa elkartean lagun artean jateko asmoarekin joan ginen.

Hortaz, sorpresaz harrapatu zintuzten?

Pertxa Elkartearen izenean aurkeztu ginen, eta, hain urriak ikusten genituen aukerak,

Guti-ri eta Felisin-i esan genien lehenengo hiruren artean geldituz gero suziria botako zutela. Esan eta egin, irabazle gelditu eta bete zuten hitza.

Erabili zenuten trikimailurik?

Trikimailu bakarra, lehiaketa hasi zela eta ez geniola berehala ekin lanari.

Aurretik hasi zineten errezeta nola prestatu antolatzen eta probatzen?

Bi aste lehenago, lehiaketa aitzakia moduan hartuta, beste bazkari bat egin genuen.

Aurten ere, Pertxaren izenean parte hartuko duzue. Zuek zarete faborito?

Ez, ez, aurten ere ez dugu geure burua faborito ikusten. Izen eta maila handiko sukaldariak izan ohi dira lehiaketan.

Zein gomendio emango zenieke aurtengo parte-hartzaileei?

Bereziki, ondo pasatzea, disfrutatzea; izan ere, azkeneko bi urteotan, pandemiaren eraginez, ez da egin ahal izan lehiaketarik.

IN KONFORT MIS TAK



Saunier Duval

Erabateko lasaitasuna 15 urtez Zerbitzu Tekniko Ofizialarekin, gutxiagorekin konformatzen ez direnentzat.

Gipuzkoa
Zerbitzu Tekniko Ofiziala
943 76 06 61

Galdetu gure
Mantentze Zerbitzuei buruz

www.mantenimiento.saunierduval.es



Pentekosteetako zapatua erraldoiek girotuko dute

Ekainaren 4an, zapatua, Bergarako eta kanpotik etorritako 40 bat erraldoik hartuko dute protagonismoa herrian; goizean, bi kalejiratan banatuta iritsiko dira San Martin plazara eta han aurkeztuko dituzte gonbidatutako erraldoi taldeak, dantzaz osaturik

Eneko Azurmendi BERGARA

10:00etan dianarekin hasiko dute eguna. Bergarako Txistulari Banda Bolutik irtengo da; Bergarako trikitilariak Labegaraie-tatik eta Elgoibarko dultzaineroak Oxirondotik. Ondoren, 11:00 inguruan, talde gonbidatuak kalejira abiatuko dute. Aurten, hala ere, bi kalejira egingo dituzte. "Orain arte, kanpotik etorri izan diren talde guztiak Espolotik irten izan dira kalejiran, plazarantz. Aurten, herriko beste leku batzuetara heltzeko helburuarekin, bi kalejira egongo dira", azaldu du Bergarako Erraldoi Taldeko Ibon Unamunok. Batetik, Oñatiko eta Urretxuko taldeak Santa Marina ingurutik abiatuko dira, plazarako bidea egiteko. Bestetik, Ondalan taldeak (Deustu, Bilbo) eta Castellbisbalekoak (Katalunia) Espolotik plazarako bidea egingo dute.

Erraldioen gunea, plazan

11:30ean hasita, Erraldioen Gunea jarriko dute San Martin plazan: erraldioen erakusketa, gomazko erraldioen erakusketa, palomita-makina, erraldioen liburuxka umeek margotzeko, umeentzat puzgarriak eta abar. Aipatzekoa da gomazko erraldoiak salgai egongo direla, bai



Begarako erraldoiak, Kataluniako Castellbisbalen, hango erraldoiekin batera. BET

Begarakoak eta baita kanpoko taldeenak ere.

12:00etan, umeen taldea musikariekin batera Mizpirualde egoitzara joango da. "Lehen, barrura sartzen ginen, baina ez dakigu osasun egoerak ahalbidetuko duen. Hala ere, kanpoan, behintzat, dantza egingo dugu".

Gero, talde gonbidatuak aurkeztuko dituzte plazan, eta baikoitzak dantza bat eskainiko du. Horren ostean, Bergarako Oilagorra Ehiza Elkartearen bazkalduko dute. "140 pertsona inguru egongo gara erraldoiekin dantzan

eta laguntzen, eta elkarrekin bazkalduko dugu", dio Unamunok. Era berean, inoiz baino erraldoi gehiago batuko dira: 40 inguru. Bergarako hemezortzi erraldoiekin gain, Oñatiko eta Urretxuko taldeek launa eramango dituzte, kataluniarrek bost eta Deustuko Ondalan taldeak, hamar edo hamabi.

Bazkalostean, azkenik, 18:00etan hasita, erraldoi, buruhandi eta kilikien kalejira egingo dute, guztiak elkarrekin, plazan hasi eta bukatuta, herriko kaleak zeharkatuz.



Oñatiko erraldoiak, asteburuan, Errekalde auzoko jaietan. J.I.A.

Oñatiarrak, lehenengoz Bergaran

Oñatiko erraldoiak lehenengoz ariko dira Bergaran. "Guretzat ez da oso ohikoa Oñatitik kanpo aritzea, eta gogoz hartu dugu aukera hau. Oso aberasgarria izango da", adierazi du Beñat Madinak, Oñatiko erraldoietako kideak. "Era berean, Bergarako Erraldoi Taldeari eskerrak eman nahi dizkiogu gonbidapenagatik".

Oñatz Dantza Taldearen 50. urteurreneko emanaldian egin zituzten dantzak egingo dituzte Bergaran ere. "Horietako bat Antonino Ibarrondok sorturiko bals bat da. Bitxikeria gisa, Ibarrondoren doinuetatik geuk propio sortutako dantza da". Halaber, azaldu du gizon zein emakume ariko direla erraldoiekin.

Haien erraldoiak Oñatitik kanpo ezagutarazteko asmoz, gomazkoak ere eramango dituzte saltzeko. "Bi bikoteak eramango ditugu. Iñigo eta Katalina eta Andre Ederra eta Maurixio".

Urtero, gonbidatu ezberdinak

Unamunok adierazi duenez, saiatzen dira urtero talde ezberdinak gonbidatzen. "Batetik, otsailean Castellbisbalen egon ginen eta orain haiek datoz. Bestalde, Ondalaneakoak 2020an etortzekoak ziren, eta, hitz egin da genuenez, aurten etorriko dira. Urretxukoek bi erraldoi berri dituzte, eta erakusteko aukera ona dela iruditzen zaigu. Azkenik, oñatiarrak gonbidatzea ere erabaki dugu. Badakigu, normalean, Oñatin bakarrik irteten direla, baina gogotsu

azaldu dira eta gustura hartuko ditugu", gaineratu du.

Elkartrukea egiten saiatzen dira. "Castellbisbalen otsailean egon ginen eta orain haiek datoz. Halaber, gu Bilboko jaietara, Urretxukoetara eta Oñatikoetara joatea da asmoa".

40 BAT ERRALDOI ARIKO DIRA DANTZAN ETA 140 LAGUN INGURU BATUKO DIRA BAZKALTZEKO

GOKI
erreformak

*Aurten bai!
Ondo ibili,
bergararrok!*

Irizar ibilbidea 1 behea
BERGARA

Tel.: 943 76 53 42

Faxa: 943 76 52 16

bergara@gokierreformak.com

www.gokierreformak.com

**Teilatuak, fatxadak, igogailuak,
sukaldeak, bainugelak.**



Barrakak jartzen Feriaren, 30eko hamarkadan. BERGARAKO ARTXIBOA-TORIBIO JAUREGI FUNTSA



Neska kuadrilla, dragoian, 1990ean. BERGARAKO ARTXIBOA-ARIZONDO ALDIZKARIA



Neskatila barraketan. BERGARAKO ARTXIBOA-TORIBIO JAUREGI FUNTSA



Barraken gunea, beheko geltoki inguruan, 1991n. BERGARAKO ARTXIBOA-KULTUR EKINTZA

Antzinatik hona bezala gozatzeko gogotsu

Bi urte zailen ostean, barraketarako irrikaz dira, seguru, bai ogibide dituztenak eta baita bezeroak ere. Asteburu honetatik egongo dira martxan, eta jaiak amaitutakoan egingo dute alde –jaiekin hasi eta hurrengo astra arte geratzea izaten da ohikoa–

Julen Iriondo M. de Zuazo BERGARA Askotariko barrakek hartuko dute, aurten ere, azken urteotan kokaleku duten Matxiategiko gunea –ohiko azalera apur bat murriztuta–. Helduentzako eta umeentzako barrakak izango dira, eta baita bestelako kaxeta

eta tonbolak ere; horrekin batera, ohiko taberna eta txurro sal-tzaileak ere izango dira faltako.

Arturo Bravo da barraka Bergarara ekarriko duenetako bat: "Ilusionatuta gatoz. Izan ere, bi urtez geldi egon eta gero, egin ditugun ferietan nahikoa ondo

ari da erantzuten jendea. Jendea gogotsu dago; pozik gaude".

Urteko lehen jaiak

Aspaldiko kontua da Bergaran jendeak barrakei ematen dien erantzun ona. 70eko hamarkadan Bergarako alkate izandako Jose

Luis Elkororen arabera, horretan badu eragina inguruko urteko lehen herriko festak izateak, eta haren alkate garaian ere "herriko eta inguruetako jende asko" erakartzen zuten hori dela eta.

Eskaintza ere beti zabala, eta kokapenak hainbat: Santa Marina elizaren alboan, Ferial zeritzon gunean, egon izan ziren antzina; Bideberrin ere bai; egun Simon Arrietako etxeak dauden gunean, baita ere. "Nik uste dut urte gutxi izan zirela; ez dugu horren argazkirik", dio Udal Artxiboko arduradun Arantzazu Oregik. Beheko geltoki inguruan egon ziren gero, eta Matxiategin orain.

Aurten, 2,20 euro balioko du bidaiak, eta 10 euro seik. Hilaren 6an goizez eta 8an egun osoz,

Jolas-parkea ere izango da

Neska-mutikoez izango dute ondo pasatzeko beste aukerarik: jaietako azken egunean, martitzenean –Umeen Eguna–, jolas-parkea izango da Ipintza II-ko patioan, goizean eta arratsaldean. Eurria eginez gero, bertan behera geratuko da.

berriz, 1,30 eurotan egin ahalko da bidai. Udalak ez du urte batzuetatik hona zoruaren okupazioagatik kobratzen, eta prezioa doitzeko eskatzen die, trukean, barraken arduradunei.

Urte honetako nobedadea izango da, azkenik, hilaren 5ean eta 6an, 17:00etatik 19:00etara, ez dela musika izango barraketan, behar bereziak dituzten herriko eta inguruetako haurrek ere ferian gozatu dezaten. Horrez gain, premia berezia duten haurrei ilaretan lehentasuna ematea eskatu du Udalak.

"MAIATZA IZATEKO, FERIA POLITA DA TAMAINAZ BERGARAKOA"

ARTURO BRAVO, BARRAKAK DAKARTZA

"URTEKO LEHEN FESTAK IZATERA, JENDE ASKO ERAKARRI IZAN DUTE"

JOSE LUIS ELKORO, ALKATE IZANDAKOA

RPS: 227/18

ESTELLA

FARMAZIA-ORTOPEDIA SEKZ.

Matxiategi 5 • Bergara • 943 76 19 63

Ondo ibili Bergarako jaietan!

Hainbat herri otordu, jaietan indarra hartzeko

Bergararrek festaz eta otorduez elkarrekin gozatzeko, bi hitzordu jarri ditu Udalak: herri bazkaria eta auzolanean egindako parrillada. Bestetik, lau otordu antolatu dituzte Xaxau konpartsakoek; tartean, jaiiei hasiera emateko ikasleen bazkaria

Uxue Igarza Loiola BERGARA

Sekula ez dute hutsik egiten herri bazkariak eta afariak, eta aurtengo Pentekoste jaietan ere aukera zabala izango da otorduez herrikeriekin gozatzeko.

Ekainaren 6an, paella erraldoia izango da herri bazkariko protagonista. Paellas Arraun Euskadik egingo du, eta, gainera, *show cooking* saioa ere emango dute. Postrea, berriz, Mujika eta Larrañaga gozotegiek egingo dute, eta kafea Sirimiri jatetxeak eramango du. Txartelak eskuragarri daude, hilaren 30era arte, www.seminarixoa.eus webgunean eta Seminarixoko leihtailan; haragidun paella platera,



2019ko herri bazkarian, bergararrak topa egiten. GOIENA

postrea, kafea, ogia, ura, edalontzia, mahai tresnak eta zapia sartzen dira erosketaren barruan. Bazkariaren egunean, beharrezkoa izango da QR kodea aurkeztea. Bestetik, azaldu dute menu beganoa nahi dutenek edo alergia kasuren bat dutenek Kultura Zerbitzura deitu dezaketela (943 77 91 59). Eguraldi txarra egiten badu Seminarioko karpan egingo da bazkaria, baina, iragarpena ona bada, San Martin plazan egingo da eta 700 bat lagunendako lekua egongo da.

Horrez gain, Udalak eta Oxirondo Aisialdi Guneko gurasoek antolatuta, herri parrillada izango da ekainaren 3an, 20:30ean, Seminarioko karpan. Ekainaren 1era arte eskuratu daitezke tiketak, Izotz postuan.

Aurten, afari senegaldarra

Txosnetako egitarauari erreparatuta, urtero bezala, presoen aldeko bazkaria egingo da Xaxauk eta Gure Artean elkarteek antolatuta ekainaren 4an. Tiketak Arrano eta Pol-Polen daude salgai, eta honako hau da menua: entsaladilla errusiarrak, txibiak tintan, karrillerak eta arrosesnea.

Hurrengo egunean, ekainaren 5ean, Txomingero Bazkaixa egingo da. Norik bere jatekoa eramatea da bazkariaren funtsa, eta txosnagunean mahaiak eta aulkiak egongo dira erabilgarri.

Eguna amaitzeko, afari senegaldarra izango da txosnetan. Izan ere, Xaxauk aurreratu duenez, aurtengo talde omendua Ndank Ndank da, eta, tradizioari eutsiz, haiei tokatuko zaie afaria egitea. Arroza eta oilaskoa izango dira osagai nagusiak, senegaldarrean prestatuta, eta, afaria egin bitartean, nola prestatzen duten erakutsiko dute. 100 bat lagunendako jatekoa egongo da, eta arratsaldean hasiko dira tiketak saltzen, 8 euroren truke.

Ikasle eta erretiratuek ere bai

Jaiiei hasiera emateko, ekainaren 3an, Ikasle Bazkaixa egingo da, Seminarixoko karpan. Xaxauk antolatu du hori ere, eta tiketak Arrano eta Pol-Polen daude salgai, 5 eurotan. Gazteez gain, San Joxepe elkarteak erretiratuek ere ohiturari eutsiko diote, eta ekainaren 7an bazkaria eta dantzaldia egingo dituzte.

TELAETXE

Oihalen neurketatik etxean
ipintzera arte dena gure esku
Fabrikako preziotan

Elgeta bidea,
gasolindegitik
300 metrora
• BERGARA •

Tel.: 943 76 39 40 / 41
Asteleheneratik
larunbatara
10:00etatik 13:00etara
eta
16:00etatik 20:00etara zabalik

Aurten bai
Disfrutatu jaiak.

- Kortinak
- Kortinoiak
- Estoreak
- Fundak
- Mantelak
- Nordikoak
- Izarak
- Oihalen neguko kolekzio berria ikusgai eta orain

ALFONBRAK



Nestor Iñurrieta, Antolin Martxena, Arantzazu Kortabarria, Roberto Maiztegi, Mila Inciarte eta Roberto Kareaga. A.E.G.

Bazkaria eta jokoak, helduen gozamenerako

San Joxepeko zuzendaritzako kideak buru-belarri lanean ibili dira Pentekoste jaietako Helduen Eguna antolatzen. Aurten, berriro ere bueltan dira ohiko hitzorduak: bazkaria izango dute martitzenean –19 euro– eta ondoren dantzaldia eta jokoak

Arantzazu Ezkibel Galdos BERGARA Pentekoste jai ofizialen itzulerak ilusioa eta poza ekarri du Bergarara, baita San Joxepe elkartera ere. Ohiko ekitaldiak antolatuko dituzte aurtengo jaietan. Martitzena izaten da Helduen Eguna Bergaran. Bada, martitzenerako bazkaria antolatuko dute. San Joxepe elkarteak tabernan izango da, 14:30ean. Tabernan eman behar da izena eta ordaindu ere han ordaindu behar da –19 euro–. Menua izango da: otarrainxkak, zerbaren orri-mamia, okela gisatua, flana, ardoa eta kafea.

Bi urte dira ez dutela helduen bazkaria antolatzen, baina San Joxepe elkarteak kideek uste dute jendea animatuko dela: "Dagoeneko 33 lagunek eman dute izena".

Dantzaldia eta jokoak

Bazkariaren ondoren, dantzaldia egingo dute tabernan bertan. Elkarteak kideen ardura izango da musika jartzea. Jokoak ere egingo dituzte, egoitzan: toka, boloak eta igelaren jokoak. Lehenengo biek sariak eramango dituzte, gainera.

San Joxepe elkarteak kideek diote azkeneko bi urteetako egoerak jendearen animoan eragin duela, batez ere erretiratuaren animoan. Azkeneko urteetan elkarteak dabiren jende kopurua gutxitu egin dela diote, baina itzaropena dute, poliki-poliki, berriro ere egoera lehengora itzuliko dela. "Pertsona nagusien egoera ez da gazteenen modukoa baina poliki-poliki lehengora bueltatuko garela pentsatzen dugu", azaldu dute. Gaur egun, elkarteak, 3360 bazkide ditu.

Nagusien omenaldia

San Joxepe elkarteak kideek maiatzaren 15ean ospakizun txiki bat izan zuten: herriko nagusiak omendu zituzten. "87 urte bete dituztenak omendu genituen. Oso ondo joan zen ekitaldia, 40 bat lagun elkartu ziren; hala ere, ezin izan ziren guztiak etorri", azaldu dute zuzendaritzako kideek.

Epe motzera, zuzendaritzaren erronka nagusia da San Joxepe elkarteak informatizatzea, eta baita egiten duten lana Bergarako herrian ezagutzera ematea ere.



308 BERRIA

Berlina konpaktu termikoa edo hibridoa

**Peugeot Etormobil,
Debagoienerako**
kontzesionario ofizialak
jai zoriontsuak opa dizkizu

ONDO PASAU JAIXAK!



PEUGEOT kontzesionarioak: Etormobil Bergara, Olabarrena auzoa, z/g - 20570 Bergara. T. 943 10 17 17. Etormobil Eibar. Otaola etorbidea, 22, 20600 Eibar. T. 943 20 09 66. Ziorla Autoak. Santa Maña, 19 - 48215 Iurreta-Durango. T. 946 21 71 30. www.etormobil.com



Kerobia taldea, promoziorako argazki batean. ARGAZKIAK: MUSIKA TALDEAK ETA GOIENA



Astelehen iluntzeko talde klasiko bat bueltan dator txosnagunera: Laket. GOIENA



Lukiek-eko Josu Ximun Billelabeitia.

Musika menuan ere, osagai asko

Musikarekin hasi eta musikarekin amaituko dira jaiak, eta, tartean, bergarrek zein bisitariak denetariko zuzeneko ez gozatu ahalko dute; Kerobia, Puro Relajo, Los Zopilotes Txirriaos, Pasadena, Ezpalak eta Añube dira izen aipagarrienetako batzuk



Musika mexikarra eta euskalduna, Puro Relajoren eskutik; argazkian, Arrasaten.

Jokin Bereziartua BERGARA

Pentekosteetako zuzeneko musika eskaintza bereziki indartsu bueltatuko da bi urteko etenaren ostean. Udalaren eta Xaxau jai herrikoien konpartsaren elkarlanari esker musika eskaintza zabala prestatu dute ekainaren 3tik 7ra. Musikarekin hasiko dira jaiak, eta musikarekin amaitu; tartean, kaleak modu ibiltarian girotuko dituzten elektro-txaragnetatik hasita, erromeriak, rock taldeak eta DJak izango dira, bereziki, San Martin plaza, herriko kaleak eta

aurten Oxirondo azokako aparkalekuan kokatuta egongo den txosnagunea girotuko dituzten aukerak. Jarraian, musika zita esanguratsuenak.

AÑUBE

Txosnagunea / Ekainak 3 / 22:00

Bergara, Arrasate eta Ataun artean sortutako seikoteak ibilbide motza daroa, baina orain arte eman dituzten kontzertuetara jende asko erakarri dute. Taldekideek eurek aitortu dutenez, abesti lasaiak dituzten arren zuzenekoak "biziak" izaten

dira. Txosnagunea ederto bertuko dute jaietako lehen egunean.

GARILAK 26

San Martin plaza / Ekainak 3 / 22:30

Duela 11 urte sortu zen erromeria talde bizkaitarraren bereizgarri nagusiak dira zuzenekoetako intentsitatea, bizitasuna eta energia. Gaur egungo abestien moldaketetan darabilten euskal instrumentu tradizionalen presentzia azpimarratu beharra dago; 200 kontzertutik gora eman dituzte. 2017a ezkerro, Maddi Elortza bergararra da kideetako bat.

LOS ZOPILOTES TXIRRIAOS

Txosnagunea / Ekainak 3 / 01:00

Jaietako lehen eguna borobiltzeko, Los Zopilotes Txirriaos taldeak ez du inor axolagabe utziko. 2009an jaietako taldea, nappar-mex doinuak eskainiko dituzte; hots, musika mexikarra Nafarroako nortasun zigiluarekin. Parrandarako kontzertua izango da, ezbairik gabe.

KEROBIA

San Martin plaza / Ekainak 4 / 23:00

Bueltan eta indarberrituta dator 2001. urtearen amaieran sortu-

tako Kerobia taldea; 2021eko azaroan Iruñeko Baluarte jauregian emandako kontzertuan iragarri zuten itzulera eta abesti berriekin etorriko dira Bergarara; 2021ean bi disko berri atera zituzten; bigarrena, gainera, bikoitza. Pop-rock doinu landu eta zainduekin dantzan jarriko dute San Martin plaza.

SKABIDEAN

Txosnagunea / Ekainak 4 / 01:00

Ska, reggae eta rocksteady doinuak eskainiko ditu Iruñeko Skabidean taldeak. 200 kontzer-

 INDUSTRIAS **FEGAR, S.A.**

www.fegar.com



Gu ere bergararrekin!



Libe Garcia de Cortazarren eta Jon Basagurenen Pasadena ere txosnetako menuan.



Voces Navarras-en ahotik, jota saioa.



Taldea hasiberria izan arren, jende asko batu ditu Añubek orain arteko kontzertuetan.

tu baino gehiago eman dituen taldea izanik, eskarmentu handia dute dagoeneko oholtza gainean; aurtien kaleratutako *Hiri zahar zikina* izeneko disko berriarekin datoz, gainera.

GORA ETORRI

Txosnagunea / Ekainak 4 / 03:30

Zapatuko parranda amaitzeko plan ederra izan daiteke agrodance estiloa lantzen duen taldearekin *gora etortzea*. Proposamen ezberdina, ezbairik gabe.

PASADENA

Txosnagunea / Ekainak 5 / 19:00

Jon Basagurenek eta Libe Garcia de Cortazarrek 2021ean abiatutako proiektu berriaren lekuko izango da txosnagunea domekan. Urteak dira elkarren proiektuetan lankidetzan ari direla, dela Liberen bakarkako diskoetan, dela Izaki Gardenak taldearen lanetan. Pasadena biek sortutako proiektua da, pop-rock doinuak oinarri dituen.

PURO RELAJO

San Martin plaza / Ekainak 5 / 21:30

Oibarren (Nafarroa) sortu zen Puro Relajo, 2013an. Mexikoko doinu klasikoenetatik hasita,



Zopilotes Txirriakos ere gonbidatu dute.

euskal abesti ezagunak ere eskainiko dituzte.

LAKET

Txosnagunea / Ekainak 6 / 20:00

Pentekoste-asteleheneko klasiko bat da Laket erromeria taldea; txosnagunea dantzan jarriko dute, pandemia aurreko urteetan egin izan duten bezala.

EZPALAK

Txosnagunea / Ekainak 6 / 23:00

Rock alternatiboa egiten duen talde zestoarra indarberrituta dator pandemiak eragindako

geldialditik. Fuzz gitarrak; psikodelia-kutsuak eta noisea; riff potenteak; punk boladak eta malenkoniak bustitako pop doinuak eskainiko dituzte.

LUKIEK

Txosnagunea / Ekainak 6 / 01:00

Belako taldearekin ezagun egin zen Josu Ximun Billelabeitia buru duen Lukiek taldeak itxiko du Pentekoste-asteleheneko txosnaguneko musika eskaintza. Antton Goikoetxea baxu-jolearekin eta Christian Rodriguez bateria-jolearekin batera proposamen oso indartsua osatzen du Lukiekek, euskaraz abestutako rock alternatiboa egiten duen taldea.

VOCES NAVARRAS

Irala kalea / Ekainak 7 / 13:00

Jaietako azken eguneko bermuta girotzeko, Nafarroako jota saio interesgarria eskainiko du Voces Navarras taldeak.

DJ BULL

San Martin plaza / Ekainak 7 / 20:00

Bitorianatxoren igoerarekin batera Pentekosteetako azken ekitaldia izango da DJ Bullen eskutik helduko den animazioa.



Bergarako banda kalejiran, Enrike Txurruka zuzendaria buru dutela. GOIENA

Beste ohiko emanaldiak ere bueltan

Ohiko Pentekosten itzulerarekin bueltan datoz jaietan klasikoak diren emanaldiak, eta, testuinguru horretan, ezinbestekoa da bandaren ekarpena aipatzea. Ekainaren 3an, Aspacekoek suzuria bota eta Bitorianatxok udaletxeko balkoian lur hartzearekin batera, 1950a ezkerreko jaiak hasiera ematen dien *Pobres y alegres* martxa joko du bandak, eta gero, kalejiran joango dira. Horrez gain, domekan kontzertua eskainiko du bandak Espoioian. Honako pieza hauek eskainiko dituzte: Jose Rafael Pascual Villaplanaren *Yakka*, Georges Bizet-en *L'Arlesienne*, Carl Wittrock-en *Crossroads*, Itoizen *Itoizen bost doinu* eta Kees Vlak-en *Las playas de Río*. Bandaz aparte, badira bestelako proposamen batzuk, hala nola Joxe Mendizabalek gidatuko duen familiei zuzendutako erromeria saioa, ekainaren 3an, Seminarioko karpan (21:30).

laskurain
ITURGINTZA_FONTANERIA

Barrenkalea, 44 - 943 76 24 89 - 610 205 499 / 20570 BERGARA

50 URTE

- Erreformak
- Zoru erradiatzaileak
- Elbarritasun egokitzapenak
- Galdara aldatetak
- Gremioen koordinazioa eta aholkularitza

Eskerririk asko, urte guzti hauetan,
gure ondoan egoteagatik

Aurtien bai! Gora Bergarako jaiak!

BERGARAKO JAIAK GOIENAN



'HEMEN DEBAGOIENA' JAIETAN

GOIENA TELEBISTAN ETA 'GOIENA.EUS'-EN
EKAINAREN 3AN, EGUBAKOITZEAN, 19:00ETAN HASITA
BERGARAKO JAIEN HASIERA SAN MARTIN PLAZATIK

ZUZENEKOA



KUADRILLEN ARTEKO XII. OLINPIADAK

GOIENA TELEBISTAN ETA 'GOIENA.EUS'-EN
EKAINAREN 6AN, ASTELEHENEAN, 12:00ETAN HASITA
SAIOA ZEZEN-PLAZATIK

ZUZENEKOA



ERREKORTADORE TXAPELKETA

GOIENA TELEBISTAN ETA 'GOIENA.EUS'-EN
EKAINAREN 7AN, 19:00ETAN
BERGARAKO ZEZEN-PLAZATIK



'HEMEN DEBAGOIENA'

GOIENA TELEBISTAN ETA 'GOIENA.EUS'-EN
EKAINAREN 6AN ETA 7AN, 18:00/20:00 ETA 22:00
BERGARAKO JAI EI ESKAINITAKO TARTE BEREZIA

goiena

Zu hemen zaude.

Largero batzea egingo dute Mendiola elizatean

Largero Eguna ospatuko dute zapatuan Arkarazoko eta Mendiolako bizilagunek. Baserriz baserri kantu-eskean arituko dira, eta egun osorako ekintzak prestatu dituzte. Hala, baserritar jantziarekin agertzeko dei egin dute antolatzaileek

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Zapatuan, Largero Eguna ospatuko dute Mendiola elizatean. Aspaldiko ohitura egiteari utzi zioten; duela zenbait urte berreskuratu, eta asteburu honetan egingo dute ospakizuna. Hala, egun osoko egitaraua prestatzeaz batera, *Largero* kantua ere gertu dute, egunean baserriz baserri abesteko.

Kantatzeko ibilbidea, gertu

Mendiolako eliza aurrean batu-ko dira egunari hasiera emateko, 10:30ean, Arkarazo-Mendiolan jaiotako seme alaba edo bilobak. Etxafuego jaurtiketa eta kanpai jotzea egingo da, eta largero batzeari ekingo diote baserriz baserri. Lehenbizi, Uriaga baserrira igoko dira, autoz, eta ondoren, Mendiolako eliza ondokit beheranzko noranzkoan jarraituko dute. 14:00 inguruan, berriz, Mendiolako elkartearen kanpoaldean bazkalduko dute egunera batzen direnek. Horretarako, ogitarte-koak edo dena delakoa norberak eramateko dei egin dute, eta antolatzaileek jarriko dute edaria. 18:00etan hasita, aldiz, largero batzearen amaiera eta osteko jaiaren hasiera izango dute, Mendiolako eliza inguruan. Gaztetxoendako jokoak izan-



Mendiola elizateko elkarte alboko belardia. GOIENA

go dira, bertaratzen direnentzako largero batzean jasotakoaren luntxa, eta amaitzeko, musika izango dute, girotzeko, gauera arte. Antolatzaileek gaineratu dutenez, Mendiolako elkartean barra bat jarriko dute eta egunean zehar zein gauean edariak salgai izango dituzte.

Batu aurretik, eskaera

Largero batzean baserrietan mota haueko produktuak ematea eskertuko dutela azpimarratu dute antolatzaileek: "Txorizoa, gazta, urdaiazpikoa eta antzeko

produktuak; prestatutako patata-tortillak; postrerako gauzak: irasagarra (menbrilloa), etxean egindako bizkotxoak, gazta...". Horrekin batera, Largero Egunean kantuan joateko baserritar jantziak eramatea ere proposatzen dute jaiarena hauspotzeko lanetan ari direnek, eta zapia eramatea ere eskatu dute. Gainera, nahiz eta largero batzean ez ibili, osteko luntxera Arkarazo eta Mendiolako bizilagun guztiak gonbidatuta daudela jakinarazi nahi izan dute, eta bertara joateko animatu.

'Bizi bagina bezala' diskoa estreinatuko du Nhil taldeak

Kontzertua ekainaren 3an izango da, Zaldibar antzokian, 20:00etan, eta sarrerak salgai daude

I.B. ESKORIATZA

2020an *Aztarnak* diskoa kalera-tu ostean, emanaldiak eskaintzeaz batera sorkuntza-prozesuan jarraitu dute Debagoieneko musikariek, eta orain, *Bizi bagina bezala* diskoa aurkeztuko dute

Sara Alonsok, Asel Errastik, Xabi Zuazabeitiak, Lia Garaik, Aitor Ruiz de Austriak eta Beñat Arrietak (Eskoriatza).

Lan berriaren aurkezpen ofiziala ekainaren 3an izango da, baina maiatzaren 18an, *Dance*

izeneko single berria argitaratu zuten sare sozialetan, bideoklip eta guzti, bigarren lanaren aurrerapen kanta gisa. Ingeleseko letra du, kanta dibertigarria da eta ondo landutakoa; dantzara dei egiten duen horietakoa. Lan horretan, Maite Ponferradaren zuzendaritzapean, Pletina Films arduratu da Kixkor tabernan grabatu den bideokliparen produkzioaz.

Sarrerak hiru eurotan daude salgai Manuel Muñoz kiroldegian eta *bibe.me* webgunean.



Gaztainuzketako mendi-etxeak. UXUE IGARZA

Gaztainuzketako mendi-etxeak lehiaketara atera dituzte

Apartamentu turistikoen guneko ustiapena esleitzeko lizitazioa jendaurrean jarri du Leintz Gatzagako Udalak

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

24 bat urte badira Leintz Gatzagako Gaztainuzketako mendi-etxeen proiektua abiatu zela. Orditik, ugazaba ugarik hartu dute negozioa; azkenak, 2019an. Halere, besteak beste, pandemiaren eraginez, mendi-etxeen negozioa gidaririk gabe geratu da. 2019an, Zeanuriko Kepa Atutxak hartu zuen Gaztainuzketako mendi-etxeen negozioa, eta berrikuntzekin jarri zuen mar txan, gainera. Taberna eta jate-txe zerbitzu barik eta esperientzia bat bizitzeko asmoarekin ekin arren, pandemia iritsi zen eta ez du funtzionatu. Hori horrela, maiatzaren 17an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zuen Udalak iragarkia, eta ekainaren 7ra arte dago aukera proposamenak aurkezteko; horiek udala@leintzgatza-ga.eus helbide elektronikora bidali beharko dira, baina udal

webgunean dauden baldintzak irakurri eta betetzea ezinbestekoa izango dela adierazi du Juanito Bengoak, Gatzagako Udaleko Mendi zinegotziak: "Azken urteotan negozioa izan dutenek uztea erabaki dute. Pandemiak asko eragin du, eta, horren ondorioz, ohiko baldintzetan ere aldaketak ezarri ditugu. Txikikeriak dira: kontratuaren luzapenean aldaketak... Horien gaineko informazioa udal webgunean jarri dugu".

Interesdunak, ate joka

Proiektuak ondo funtzionatzea herriarentzat onuragarria dela azaldu du Bengoak, eta lanerako gogoz dagoen pertsona orok ateak zabalik izango dituela ere azpimarratu du. "Mendi-etxeen gaineko interesa erakutsi dute hainbat lagunek. Etorri zaizkigu galdetzerara, baina ez dugu eskaera formalik jaso".

Ludotekako zerbitzuaren azken egubakoitza gaur

Ikasturteari amaiera emango diote gaur, egubakoitza Leintz Gatzagako ludotekako erabiltzaileek. Gorka Zubillaga herriarraren gidaritzapean aritu dira ikasturte honetan, eta ekintza ugari egin dituzte egubakoitz arratsaldero. Haren esanetan, "oso gustura aritu dira haurrak guztion artean" antolatutako dituzten "jolas eta

ekintzetan". Hori horrela, gaur azken jaia izango dute, eta ludotekako zerbitzuaren ikasturte honi amaiera emateko ekintza berezia egitea aurreikusitako dute.

"Gaur arratsaldean eguraldi ona egitea nahiko genuke. Izan ere, gure asmoa ur-jolasak egitea da, eta, elkar bustiz, behar den moduan amaituko dugu ikasturtea. Hala ere, ikusiko dugu. Hain zuzen, eguraldia ez badago gure alde, beste plan bat ere badugu esku artean...".



Hondeamakina Zubietan kalean, asteen, zubitik aterata. JOKIN BEREZIARTUA

Zubietan berritzeko lanak aurreikusitako moduan doaz

Zubietan eta Masterreka kaleak berriro urbanizatzeko proiektuaren barruko lehen faseko lanetan ez da ezusteko aipagarrikerik izan, oraingoz, eta, dena ondo bidean, uztail erdialdean amaituko lirateke Infernukua jatetxeko bidegurutzetik zubirainoko lanak

Jokin Bereziartua BERGARA

Urtarrilaren 17an hasi ziren makinak lanean Zubietan kalean, Zubietan kalea bera eta Masterreka berriro urbanizatzeko proiektuaren barruan.

Herri barruko zirkulazioaren barruko arteria nagusietako bat den ardatz osoa eraberritzeko 18 hilabeteko exekuzio-epaia dago aurreikusita, guztira, eta Udala-

ren hiru urtetako inbertsio gaitasuna baldintzatuko du; izan ere, aurrekontu osoa bi milioi euro pasatxokoa da. Obraren helburu nagusia da ardatz osoan irisgarritasuna hobetzea, eta, horretarako, besteak beste, espaloien zabalera metro eta erdiko izatea lortu nahi dute kale osoan, "muga tekniko handiak" egonda ere. Errepide estuagoa egingo

dute, baina bi noranzkoko izan beharko du, ezinbestean, Deba bailara Elosuarekin eta Azkoi-tiarekin lotzen dituen errepidea ere badelako, besteak beste.

Ezusteko aipagarrikerik ez

Udaleko Hirigintza sailaren arabera, oraingoz ez da arazo aipagarrikerik izan. Lanak hiru fasetan banatu dituzte eta fase bako-

tzarendako sei hilabeteko lanak daude aurreikusita; Infernukua bidegurutzetik zubirainoko lehen fasean epe hori betetzea espero dute. Teknikariek aurreikusten zuten ezustekoetarako arrisku handiena lurra altxatzerakoan gerta zitekeela, baina ez da halakorik gertatu. Era berean, obrarekin hasi aurreko beste kezketako bat zen etxebizitzetan pitzadurak agertzeko arriskua, baina, oraingoz, ez dute halakorik aurkitu. Beste lehen fase bat izan da bizilagunei atarietara sarbidea bermatzea, eta hori lortu dutela diote. Lehen fasea uztail erdialdean amaituko dela aurreikusten da, beraz; bigarren faseak zubitik Mugertza kalerainoko tartea hartuko du eta hirugarren fasean, amaitzeko, Masterreka kalea eraberrituko dute.

Egunerokoan eragina

Aspaldian Bergarak ezagutu duen obra handiena izanik, eguneroko bizitzan eragitea nahitaezkoa da, ezin da-eta ahaztu herriko sarrera eta irteeretarako ardatz nagusietako bat dela. Obra gertutik jarraitzen ari den Joxe Sanchez bizilagunak hala xe dio: "Kezkak, zalantzak eta kezak beti egongo dira. Oso barneratuta dugu oro har aparkalekua etxe ondoan behar dugula, eta badira erresistentziak... Etxeko obra guztiak bezala dena hankaz gora jarrita ere, emaitzak merezi izango duelakoan gaude".

Txosnagunea aldatu beharra

Obrek zuzenean eragingo dute jaietan, Zubietan kalea itxita egonda Bideberrin jarri ohi zen txosnagunea ezingo da-eta bertan jarri; Xaxauk Oxirondo azokako aparkalekuan jarriko ditu txosnak (Ikus 28. orria).

Fundame elkartea laguntzeko futbol txapelketa solidarioa

Pandemiak eraginda bertan behe-geratu zen gazte mailako Gabonetako 31. Alfredo Najera Memoriala. Horren ordez, bihar, hilak 27, txapelketa solidarioa antolatu dute; muskulu-atrofia espinala dutenen elkartea den Fundame laguntzeko ekimena da, eta Bedelkarrek ere kolaboratuko du, zozketa baten bidez. Bi partidu jokatu dira, biak 11:00etan: Ipintzan emakumezkoen futbola izango da, eta Bergarak eta Elorrioren aurka jokatu du; Agorrosinen, berriz, gazte mailako Bergarak Realaren kontra jokatu du. Sarrera solidarioa bost euro izango da eta batutako diru guztia Fundame elkarteari bideratuko zaio.

Bedelkar: marrazki erakusketa eta jaietarako zozketa

Bedelkar elkartek marrazki erakusketa antolatu du biharko, hilak 27, San Martin plazan. Merkataritza oinarri duten marrazkiak erakutsiko dituzte, 18:30etik 20:30era, DJ Pinoviceren musikak girotuta.

Bestalde, jaietarako zozketa bat ere antolatu dute: Bedelkarreko komertzioetako erakusle-heroi Gutti, Felixin, Magdalena eta Ximon erraldoiak aurkitu eta argazki bat atera behar zaie; argazkiak Whatsappez (616 72 75 92) edo Instragramenez (@bedelkar) bidali behar dira. Panpinak egunero denda ezberdin batean egongo dira; zozketan parte hartu daiteke ekainaren 8ra arte.

Irabazi asmorik gabeko elkarteendako dirulaguntzak

Irabazi asmorik gabeko elkarteak eta entitateak zuzendutako 2022ko dirulaguntzen deialdiaren berri eman du Udalak. Guztira, 214.436 euro bideratuko dira aurtengo dirulaguntza lerro horretarako; eskaera egiteko epea ekainaren 14an amaituko da. Baldintzen gaineko informazioa www.bergara.eus webgunean dago ikusgai.



JOXE SANCHEZ
ZUBIETA KALEKO BIZILAGUNA

"Lanak erritmo onean doaz, eta pozik gaude. Erosketak ezin ditugu autoarekin ekarri, eta zarata ere badago; baina gustuko zarata da, asko itxaron dugu eta".




ESOSI PEREZ DE LABEAGA
ZUBIETA KALEKO BIZILAGUNA

"Pozik nago obrarekin, beharra zegoen eta. Oraingoz, ez daukat kezkarik, espalo bat eta zubia zabalik daude. Bigarren faseak eragingo dit zuzenean niri...".



JESUS LUCEÑO
ZUBIETA KALEKO BIZILAGUNA

"Hobetzeko den guztia ongietorria izan dadila! Udaleko dirua nora bideratzen den jakinda, dena ondo. Ez dut Udalaren lana goraiatu nahi, baina zorionak!".



LOLI GIMBERT
ZUBIETA KALEKO BIZILAGUNA

"Zaratak molestatu egiten du gauez lan eginez gero, eta lehen baino aparkaleku gutxiago geratuko dira. Baina espaloak zabalago ikusten dira eta oso itxura ona dauka".

Apalategi ezkutuetan dira museoko altxor nagusiak

Duela 250 urteko zoologia bilduma ezagutzeko aukera izan du herritar talde batek, besteak beste, Laboratorium museoan; horrez gain, museoa sortzeko aurrekariak eta Artez enpresak egiten dituen zaharberitze lanak ere azaldu zaizkie, bertatik bertara

Jokin Bereziartua BERGARA

Laboratorium museoko biltegi ezkutuetako altxorak ezagutzeko aukera izan zuen herritar talde batek Museoaren Nazioarteko Egunaren bueltan antolatutako bisita gidatu berezi bati esker. Zientzia instrumentuak, zoologia bildumak, Errege Mintegiko anatomia modeloak eta bilduma geologikoak daude altxor horien artean. Hori bai, altxor horiek ez lirateke errealitate izango duela 250 urte Errege Seminarioa egon izan ez balitz Bergaran, Seminario barik XVIII. eta XIX. mendeko bilduma aberats hura ez zen-eta egun existituko. Maiatzaren 18ko bisita gidatua zoologia bilduma bisitatu zuten, bereziki. "Ondare hori guztia ezagutzera emateko ireki zen museoa; betiere, Udalak egindako apustuari esker. Egoera eskasean zeuden piezak oso ongi berreskuratzea lortu zen eta horiek oso ondo gordeta ditugu", dio Laboratorium museoko arduradun Rosa Errazkinek.

Anoxia prozesuaren bidez

Bisita baliatu zuten herritarrei Artez enpresak egiten dituen askotariko zaharberitze lanen berri ere emateko. Artezko zaharberitzea bat da Maite Fernandez, eta dio, besteak beste,



Zoologia bildumako apalategi bat hainbat animaliarekin, asteon. LABORATORIUM

ANIMALIA HORIEK PLASTIKOTAN BILDU, OXIGENOA KENDU ETA NITROGENOA SARTUZ KONTSERBATZEN DIRA

bilduma zoologikoko piezak anoxia bidez kontserbatzen direla: "Pipien edo animaliak jaten dituzten intsektuen arazoa kontrolatzeko modu bakarra anoxia da gaur egun. Animaliak plastikozko burbuila edo puxika handi

batean sartzen dira eta hortik oxigeno guztia kentzen zaie gero nitrogenoz betetzeko. Nitrogenoarekin kontserbatu nahi den animalian aurki daitekeen edozein intsektu hil egiten da".

Animaliez harago, ondare ikuspegitik balio handia duten artelanak edo bestelako elementuak ere zaharberitzen aritu da Fernandez azken urteetan: "Grafitiak garbitu izan ditugu laserrarekin, Errotalde jauregiko lurzorua zaharberitu dugu, San Pedro elizako erretaula, San Pedro bera...".



Ikastolaren gaineko erakusketaren inaugurazioa Aroztegin, hilaren 13an. I. SORIANO

Aranzadi ikastolaren 50 urteak ospatzeko egun handia bihar

Egun osorako egitaraua dute; tartean, herri bazkaria eta Gozategi taldearen kontzertua San Martin plazan

J.B. BERGARA

Aranzadi Ikastolaren 50. urtereneko ospakizunak bihar egingo dute eztanda. "Bergararrei itzuli nahi diegu urte hauetan guztietan herritarrek Ikastolari emandako guztia: auzolana, ilusioa eta konpromisoa. Horretarako, zer hobeto kultura eta aisialdi eskaintza zabala prestatzea baino", adierazi dute.

Ekintzek San Martin eta Munibe plazak, Irizar kalea, Olaso dorrearen ataria eta Usondo parkea hartuko dituzte. Honako egitarau hau antolatu dute: txistularien diana (10:30); artisauen eta sortzaileen azoka Eixu elkar-tearen eskutik, Irizar kalean (10:30etik 15:00etara); umeendako jolas parkea, Usondon (11:00etik 13:00etara); Moises Azpiazu dantza taldearen emanaldia, Munibe plazan (12:00); *flashmob*-a, Olaso dorrearen atarian (13:00); Bergarako Musika Eskolako tri-

kitilarien kalejira (13:30); herri bazkaria, San Martin plazan (14:00); musika maratonia, Muniben (17:30); erraldoien eta kilikien kalejira (17:30); Ikastolako txarangaren (18:30); Mugi panderoa taldearen kontzertua, San Martin plazan (19:30); eta Gozategi eta Txapito Guzman eta Ibarrako Langostiniek taldearen kontzertua, San Martin plazan (22:15). Egun osoan txosna jarriko dute San Martin plazan.

Bazkarian 620 lagun

Eguraldi iragarpenak ikusita erabaki dute hasierako planarekin aurrera egitea, eta San Martin plazan egingo dute herri bazkaria. 620 lagun elkartuko dira, eta umeendako eta helduendako menua izango dute. Gainera, Ikastolaren ibilbidea laburbiltzen duen erakusketa Aroztegin dago ikusgai ekainaren 5era arte.

Museoen Nazioarteko Egunean, bisita

Museoen Nazioarteko Eguna aitzakia hartuta, herritar talde batek Laboratorium museo bisitatu zuen maiatzaren 18an. Museo arduradun Rosa Errazkinek gidatuta, normalean ikusten ez diren txokoak bisitatu zituzten; besteak beste, zoologia bilduma nola kontserbatzen den eta animalia horiek kontserbatzeko zein teknika erabiltzen den ikasi zuten.



Bisitan parte hartu zuten herritarrek, Rosa Errazkinen azalpenak entzuten. E.M.

UGARTE
AROZTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoak
Horma-armairuak
Altzariak neurria
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

AROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

I21
KALITEA
Empresa Registrada V190/025



Arrizuriagako obrak Goitu Eraikuntzak SL enpresari esleitu dizkiote. NEKANE MUÑOZ

Arrizuriaga, kultura topagune izateko bidean

Maiatzaren 16an eman zitzaien hasiera jauregia eraberritzeko lanei, eta bost hilabete iraungo dutela aurreikusi du Udalak; era berean, bertan ezarriko diren jarduerak partaidetza prozesu baten bidez lantzea eta erabakitzea da asmoa

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA
Udal Gobernuaren 2022ko asmo nagusien artean zegoen Arrizuriaga kultura leku bilakatzea, eta ari dira helburua lortzeko pausoak ematen. Ekainean ziren eraikinean obrak hastekoak, baina dagoeneko martxan dira; maiatzaren 16an ekin zieten lanei, zehazki, eta bost hilabete iraupena izango dutela aurreikusten da. Udalak Goitu Eraikuntzak SL enpresari esleitu dizkio lanak, 547.964 eurotan, BEZa barne.

Eraikinaren kanpoaldean nahiz barrualdeak egingo dituzte obrak. Eraikina sendotzeko, arbelezko estalki osoa berrituko da. Fataxadan, berriz, "finkatze, konpontze eta garbitze lanez aparte, egoera txarrean dauden atzerriak eta hondatutako beirak ordezkatzuko" direla baieztatu du Udal Gobernuak.

Barrualdeari dagokionez, kasu honetan ere, egoera txarrean dauden zeramikazko trasdosatuak eraitsiko dira eta kautxua

eta biniloak kenduko dira soilairu guztietan. Erdiko sotoan ere esku-hartzea egingo dute, instalazioen sareak eta etorkizuneko igogailua egokitzeko.

Arrizuriaga kultura jardueren egoitza izateko lanak hastearekin batera, "bertan ezarriko diren jarduerak erabakitzeke prozesua diseinatzen" hasi dela baieztatu du Udalak. Partaidetza prozesu baten bitartez lantzea eta erabakitzea da asmoa. Dena den, nabarmendu du "epe laburrean" emango dela prozesuaren berri.

Hamarkada bat erabili gabe
Hainbat erabilera izan ditu Arrizuriagak. Tartean, hainbat erakunderen egoitza izan da; esa-

2012A EZKERO EZ DA JAUREGIA ERABILI; ORAIN, KULTUR LEKU BILAKATZEA DA HELBURUA

terako, Ertzaintzarena edo Jardun elkartearena, besteak beste.

2012tik, ordea, ez dauka erabilerririk, eta bereziki urak eragindako higadurek eraikinaren egoera okertu dute. Hori da obrak egitearen arrazoia.

'Coworking'-a, EAJren proiektua
Bergarako EAJk argi dauka Arrizuriagak herriko "kultur, sormen eta berrikuntzarentzat gunea" izan behar duela. Horregatik, *coworking*-aren aldeko apustua egin dute jeltzaleek.

Pandemiaren ostean gizarteak elkarguneak behar dituela irizten dio EAJk. Lanpostuek, bilera gelek, atsedenekuek, tailerrek eta kafetegiek osatuko lukete proiektua. Hala ere, pertsonengan jarri dute ardatza.

Hain zuzen ere, ez dute nahi lan eremua izatea bakarrik, kulturari eskutik helduta joatea da helburua. "Arrizuriaga ezin da soilik lanerako espazio bat izan, askoz gehiago izan behar da", adierazi dute.

Alokairua ordaintzeko dirulaguntzak gazteendako

Baldintzak betetzen dituzten 18 eta 30 urte bitartekoek eman dezakete izena, aurrekontua amaitu arte

I.A. BERGARA

Gazteek etxebizitzak alokatzeko dirulaguntzak eskatzeko deialdia ireki du Udalak. Bergaran alokairuan bizi diren 18 eta 30 urte bitarteko gazteek eman dezakete izena. 35.000 euroko aurrekontua du Udalak, eta hori amaitu arte eman ahal izango da izena, urte osoan zehar.

Eskaera egiteko baldintzak

Laguntza eskatzeko zenbait baldintza bete beharko dira. Alde batetik, hirigune historikoan, Martokoan-Zubiaurren, Ozaetan, Labegaraietan eta Olako hiri-lurgunean alokairua ezin izango da 550 euro baino gehiagokoa izan; Osintxun, berriz, hileko gehienez ere 450 eurokoa izan behar du errentak, eta, bestela, herriko gainontzeko auzoetan 600 eurokoa, gehienez ere.

Dirulaguntzen Lege Orokorreko 13. artikuluan aurreikusten dituen debekuetako batean ere ez egotea eskatzen da, baita behar fisikaletan egunean egotea ere.

Extebizitza partekatzen dutenak

Udalak adierazi du etxebizitza partekatzen duten gazte guztiak izan daitezkeela onuradun, alokairu kontratua denek sinatzen badute, eta eskatzen diren baldintza guztiak betetzen badituzte. Modu horretan, bizikidetzat hartuko dira, eta kontratua sinatu dutenen artean banatuko da errenta.

Bestalde, adinez nagusiko pertsona bat edo bikote bat eta kargura izan ditzaketen adingabeak, nahiz etxebizitzan bizi den beste edonor ere, bizikidetzat hartuko da.

Udalaren 2022ko lanpostuen zerrenda, aho batez onartuta

Ezohiko bilkura egin zuen Bergarako udalbatzak maiatzaren 19an. Bertan, aho batez onartu zen 2022ko lanpostuen zerrenda.

Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko 20/2021 Legea dela eta, aldi baterako lanpostuen azterketa egin da, "egonkortzerako legea betetze aldera hainbat lanpostu egonkortzeko premia ikusi baita".

Bergarako Udalak adierazi duenez, azterketa horretan ikusi dute "zerrendan ez zeuden baina estrukturalak diren lanpostuak" daudela, eta, ondorioz, horiek egonkortu behar direla. Hortaz, lanpostuen zerrenda eguneratu egin dute.

Behin onartuta, ekainaren 1erako argitaratuko du Udalak zerrenda webgunean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta horrekin batera egingo da lanpostuak betetzeko enplegu publikoaren eskaintza.

OHARRAK

'Semi Cup'-en parte hartzeko epea zabalik da

Egun osoko areto futbol txapelketa izango da ekainaren 18an Seminarioan. 16 urtetik gorako bost pertsonak osatu behar dute taldea, gutxienez, eta hamabi euro ingresatu behar dira buruko, ekainaren 8a baino lehen: ES90 3035 0009 18 0090099506.

Kattalin Minerrekin solasaldia ekainaren 2an

Kartzelako irakurketa taldea laugarren irakurketa proposamenarekin dator: Kattalin Minerren *Moio gordetzea ezinezkoa zen*. Ekainaren 2an 18:30ean izango da solasaldi kolektiboa idazlearekin kartzela zaharrean. Izena eman behar da kolaxirratsaioa@gmail.com edo labur.eus/moio webgunean.

Udaberriko Jaia ospatuko da domekan

Berrikuntzekin dator 31. edizioa, Bergarako auzoak eta kaleak musika giroan murgilduko baitira; gainera, Luxenburgoren egiten ari diren Europako Gazteen XVI. Musika Jaialdian dago musika eskolako hamar ikasleko talde bat zapatura arte

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA
31. Udaberriko Jaia ospatuko da Bergaran domeka goizean. Hogeita hemeretzi urte daramatza Bergarako Musika Eskolako herritarrei heziketa eskaintzen. Herrira zabaltze horretan, herriko musika taldeekin elkarlanean sortu zen duela hogeita hamahiru urte *Udaberriko Jai-Kontzertua*.

Pandemia dela eta, ezin izan dute ekitaldi hau antolatu azken bi urteetan. Hala ere, antolatzaileek adierazi dute eboluzioa izan duela jaiak, berrikuntzekin baitatoz: festa honek herriko auzoak nahiz kaleak girotuko baititu.

Musika kaleetan eta auzoetan

Goiz osorako egitaraua antolatu dute. Goizeko hamaiketan eman go zaio hasiera festari, herriko auzoetan, musikariak herrian zehar banatuko baitira. Alde batetik, dantza jira eskainiko dute gazteek San Antonion, Espoioan eta Munibe plazan. Bes-



Kantu jira egingo dute Matxiategin eta Fraiskozuri plazan. BERGARAKO MUSIKA ESKOLA

tetik, biolin eta tronboi taldeen doinuak izango dira entzungai Boulun, Egio-Mallea plazan eta Iraola kalean. Kantu jiraren ardura izango dute trikitilariak eta Matxiategin eta Fraiskozuri plazan egingo dute geldialdia.

Ondoren, Musika Eskolako hainbat taldek eta abesbatzak kontzertua emango dute, 12:30ean, San Martin plazan. Plaza dantzak izango dira 13:15ean, eta horrekin amaituko da herriko musikarien festa.

Antolatzaileek dei egin diete gazteei eta gurasoei musika eguna denek batera ospatu dezaten.

Hamar ikasle, Luxenburgoren

Maiatzaren 26tik 28ra Europako Gazteen XIV. Musika Jaialdia ari da ospatzen Luxenburgoren, eta Bergara Musika Eskolako hamar ikasle bertan dira euskal doinuak Europan zabaltzen. Ez da parte hartzen duten lehen aldian, aurrenekoz 2016an Donostian egin zen jaialdian hartu baitzuten parte.

Osasun neurriak direla eta, Euskal Herriko eskolentzat hirurogei plaza besterik ez zuen antolakuntzak. Zozketa bidez aukeratu dira sei taldeak, eta Oñatiko Jose de Azpiazu Musika Eskola ere joan da Luxenburgora. Debagoieneko bi taldeekin batera, Errenteriako, Bilboko, Donostiako eta Hernanikoak daude bertan.

Euskal kantak abestu eta jotzea egokitu zaie bergararrei; hiru egunetan lau emanaldi emango dituzte. Jaialdian parte hartzeko talde berria sortu dute, Bermusikari taldea. Musika Eskolako Marije Ugalde zuzendariak adierazi du oinarri bezala hari-taldea sartu nahi zutela, "lau biolinista eta txelo bat". Hori oinarri hartuta, pare bat pianista sartu zituzten, bateria eta bi abeslari. Gainera, Ugaldek baieztatu du abeslariak, batzuetan, musika instrumenturen bat

jotzen dutela. Euskal abestiei dagokienez, denetarik prestatu dute: "Batzuk 80ko hamarkadako kantuak dira; Niko Etxartek, esaterako. Garai hauetara ere hurbildu gara Izaroren *Errefuxiatuarena*, Zea Maysen *Negua joan da ta* eta halako abestiekin. Nahasketa egin dugu".

Ekitaldia amaitzeko, aurrerakua prestatu dute. Musika Eskolako zuzendariaren hitzetan: "Behar den bezala emango diogu bukaera, hari-taldearekin, abeslariarekin eta dantzariarekin". Halako ekitaldien garrantzia ere azpimarratu du Ugaldek. "Gure ikasleentzat oso garrantzitsua da Europan zer egiten den ikustea. Hemengo taldeekin ere bagoaz, eta ez dugu elkar ezagutzen. Hor ere harremanak sortuko dira".

Beñat Askargorta da une honetan Luxenburgoren dagoen musikarietako bat. Albistea "ilusioz" hartu zuela aitortu du; hala ere, hasieran, ekitaldian parte hartzeak zalantzak sortu zizkion. Bermusikari taldeak joan den domekan eman zuen aurkezpen-kontzertua, herriko kaleetan; Askargortak azaldu duenez, "jende pila" hurbildu zen, eta harrera ona izan zuen.

ANTOLATZAILEEK DEI EGIN DIETE HERRITARREI MUSIKA EGUNA DENEK BATERA OSPATU DEZATEN



IMANOL BELOKI

Omenaldi eta sariak Agorrosinen

Agorrosingo zelai naturalaren agurrean, Vanesa Gimbert futbolari bergararra omendu zuten, futbola utzi baitu 23 urteren ostean. Atzelariak Athleticekin egin ditu azken bederatzi urteak. Mahonero sariak banatu zituzten baita ere. Entrenatzaile onenaren saria

eskuratu zuten Lehen Mailako kadete B taldeko entrenatzaileek; jokalaririk onenen saria, berriz, Naroa Gullonek eta Andoni Najerak. Bestalde, Pedro Jausorak omendu zuten; taldean egindako ibilbideagatik eta azken urteetan egindako lanagatik.

Bertso musikatuak eta DJ gaua gaur kartzela zaharrean

Hilabete honetan zehar era guztietako saioak egin dituzte Bergarako Sortuk antolatu duen Maiatza Feminista egitasmoaren barruan. Dagoeneko, ordea, azken ekitaldia izango da ikusgai gaur, 22:30ean hasita, kartzela zaharrean. Hain zuzen, bertso musikatuak eta DJ gauak gozatzeko aukera izango dute bertaratzen direnek.

Ane Labakak, Haizea Aranak, Ane Zuazubiskarrek, Aner Euzkitzek, Libe Goenagak eta Jone Igartuak hartuko dute parte bertso musikatuaren tartean. Ondoren, DJ Txillardegik eman go dio amaiera festari, DJ gauean.

CSICeko langile gisa aitortu du Justiziak Perez de Arenaza

Unai Perez de Arenaza mendizale bergararra 2018ko martxoan hil zen Vall d'Aranen, elur-jausi batek harrapatuta, CSIC Ikerketa Zientifikoetarako Kontseilu Nagusiarentzako lanean ari zela. Istripu hartan, Salamancako Gaspar Giner biologoa ere hil zen. CSICek hildakoekin lan-harremana zuela ukatu zuen, baina 2020an, Lleidako epaitegiak lan-harremana onartu zuen. CSICek helegitea aurkeztu bazuen ere, aste honetan, Kataluniako Justizia Auzitegi Nagusiak Lleidako auzitegiak esandakoa berretsi du. Halaber, CSICeko hiru goi kargu ikertzen ari dira, langileen segurtasunaren kontrako delituagatik.

Ibai Larreak ondu egin du Garitanoren marka

Zazpi kilometro eta 400 metroko desnibeleko ibilbidea 32 minutu eta 2 segundoan egin du Ibai Larrea atletak; bi minutu eta 44 segundo atera dizkio Jose Inazio Garitanok 1963an Herriko Plazatik Gorlarainoko lasterketan ezarri zuen markari

Maidar Arregi ANTZUOLA

Jose Inazio Garitanok duela 59 urte Gorlako igoeran jarritako marka hautsi du Ibai Larreak. Antzuolako Herriko Plazatik irten, Gorlara igo eta berriz ere plazara jaisten 34 minutu eta 46 segundo behar izan zituen Garitanok 1963an. Urte hauetan guztietan errekorra harena izan bada ere, domekan Ibai Larreak hartu dio lekukoa. Antzuolar gazteak 32 minutu eta 2 segundo behar izan ditu ibilbide bera egiten. Ion Iturbek ere egin du desafioa, eta hark 38 minutu eta 24 segundoko denbora egin du.

Larrea atleta antzuolarra sasoi ezin hobean dagoela argi geratu da. Bero galanta egin arren, beroak ez diola lasterketan eragin kontatu dio GOIENARI, besteak beste: "Zazpi kilometroko eta 400 metro desnibeleko ibilbidea dauka lasterketak. Toki beretik igo eta jaitsi beharrekoa izan da. Garitanori ateratako denbora igotzen, gorako zatian, atera diot; izan ere, Garitano azkarrago jaitsi zen orduan".

Atletismoa protagonista

Asteburuan, baina, Antzuolako Atletismoa izan da protagonista; izan ere, zapatuan aurkeztu dute *Zapata kajatik herrira* deritzon



Ibai Larrea Herriko Plazako helmugan. P.M.

'ZAPATA KAJATIK HERRIRA': ATLETISMOAREN GAINEKO ERAKUSKETA IKUSGAI

erakusketa, 1957tik 2013ra bertarteko Antzuolako atletismoaren historia jasotzen duena, hain zuzen ere. Jose Inazio Garitanok urte hauetako guztietako argazkiak, egunkari zatiak, material grafikoa, dominak, jantziak,

korrikalarien fitxak... batu eta erakusgai ipini ditu Olanaren.

Blogaren aurkezpena

Torresoroan erakusketaren nondik norakoak eta baita argazkiak eta bideo testigantzak jasotzen dituen bloga ere [-antzuolarro-nondarea.blogspot.com](https://antzuolarro-nondarea.blogspot.com)- aurkeztu du Garitanok jendaurrean. Blogean jaso ditu atletismoaren historiaren gaineko datuak eta argazkiak. Nagore Igarza diseinatzaile antzuolarra izan du dena ordenatu eta forma emateko ardura.

Atletismoaren iragana eta oraina

Antzuolako atletismoaren iraganak eta orainak bat egin dute. Hala, zapatuko aurkezpenean batu ziren urte hauetan taldean aritutako herritar asko. Oroitzapen guztiak jasota, asteburuan egongo da ikusgai Olanaren erakusketa, 18:00etatik 20:00etara. Atletismoaren historia ez ezik, sokatirarena eta saskibaloirena ere jasotzen ditu.



Aurkezpenean batutako herritarak. MIREN ARREGI



1975. urtean, Barberito, Antzuolako jaien Kuadrilla Egunean. ARROLA

Arrolaren mendi ibilbideari omenaldia egingo diote

Jose Ramon Vitoria musikari arrasatearrak ereserkia sortu berri du Arrolarendako, hitz eta guzti

Maidar Arregi ANTZUOLA

Arrolaren 50. urteurrena behar den moduan ospatzeko, omenaldi ederra egingo diote taldeari ekainaren 11n, zapatua, Torresoroan, 18:30ean. Izan ere, testu, irudi, musika eta kantu bitartez, Arrolaren sasoi bateko mendi irteerak nolakoak ziren irudikatuko dute. Irteera horietan sortutako emozioak, sentsazioak eta harremanak ere islatuko dituzte.

Horretarako, Alborada txistulari taldea eta herriko abesbatza hasiak dira entsegu lanetan, besteak beste. Arrolako txistu-

lari taldearen sortzaile Jose Inazio Jauregi Barberito ere gogoan izango dute ekitaldian.

Ereserki propioa

Jose Ramon Vitoria musikari arrasatearrak Arrola taldearen 50. urteurrena ospatzeko ereserkia konposatu du. "Musika bandarako eginda dago, baina txistu taldearendako ere aproposa da. Letra eta guzti egin du Vitoriak; oso eskertuta gaude", kontatu du Iñigo Ramirez de Okarizek. Esan behar da urriaren 1ean egingo duela Arrolak herritarrekin festa berezia.

Mahai-jolasei balioa emango diete biharko txapelketan

Mahai-jolasak indartzea helburu duen Jolasenea elkarteak Carcassonne txapelketa egingo du bihar

M.A. ANTZUOLA

Jolasenea elkarteak antolatuta, III. Carcassonne txapelketa jokatu da bihar, zapatua, Olanaren, 17:30ean. Madrilen jokatuko den Espainia mailako txapelketako finalerako txartela izango da jokoan, eta 16 urtetik gorakoendako da. Parte hartzeko bidea hauxe da eta oraindik aukera egon badago: bit.ly/carcassonne-antzuola.

Era berean, Jolaseneako bazkide Sergio Morak aitortu du pandemiak berriro berreskuratu dituela mahai-jolasak, eta balioa

hartu dutela. "Onura asko dakartzate, baita hezkuntza mailan ere, eta eskolek jarri dute interesa mahai-jolasetan. Gainera, adin tarte zabal bati bideratutako askotariko jolasak daude; ez da adinekoen, haurren edo frikien kontua. Zaletasun oso entretenitua eta didaktikoa da".

Mahai-jolasak indartzea du elkarte antzuolarra helburu, eta, aurrera begira, Japonian oinarritutako jokoak eta ekintzak presente izango diren ekimen bat ere egin nahi dutela aurreratu du Morak.

"Jarraipena emango diegu betiko ekintzei"

JOSE ANTONIO OJANGUREN XALBADORPE ELKARTEKO LEHENDAKARIA

160 bat bazkide ditu erretiratuen elkarteak. Arrazoi asko tarteko, aurreko bi urteak ez dira batere errazak izan. Zuzendaritza berriarekin, ordea, martxan da berriz elkarte

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA Martxoa ezker, Jose Antonio Ojanguren da Xalbadorpe elkarte lehendakaria. **Itzuli al zarete pandemia aurreko martxara?**

Egia esan, etenaldi handia eka- rri du. Aurten, esaterako, atze- ratu egin dugu Inauterietako txokolate-jana, baina batzar orokorra egin dugu. Bazkide egiteko hamar bat eskaera ge- nituen, zuzendaritza batzordea ere berritu beharra zegoen... **Bederatzi lagun zineten batzordean, eta orain, sei zarete.**

Boluntarioak aurkitzea kosta egiten da, eta estatutuak begi- ratuta baieztatu dugu gutxienez sei lagunek osatu behar dutela zuzendaritza. Aurretik geunde- nak gara bost, eta bat sartu da, Valentin Blanco. Azpimarratu nahiko nituzke taldean dagoen giro ona eta zuzendaritzako ki- deen lanerako prestutasuna.

Hilero ematen duzue podologo zer- bitzua. Harrera ona duen ekimena da, ezta?

Ekainaren 20an izango da hu- rrengoa. Hilean behin egiten dugu, eta podologo bat etortzen da Elgetara, 14:45etik 20:00etara. Hogei lagunendako lekua egoten da, eta beti betetzen da.

Egun osoko irteera aurreikusi duzue jaien osterako.

Uztailaren 6an egingo dugu. Elgetatik Hondarribira joango gara, eta ikusiko ditugu Pasaia, Jaizkibel, eta Guadalupe. Baz- karia Hondarribian izango da. Ekainaren 26an zabalduko dugu izena emateko aukera. Egun

"SEI LAGUN GAUDE ZUZENDARITZAN; BOLUNTARIOAK AURKITZEA KOSTA EGITEN DA"



Jose Antonio Ojanguren, Oskarbi elkarte bulegoan. L.Z.L.

berean jasoko dugu urteko kua- ta. Hamar eurokoa da.

Ikastaroak eta tailerrak antolatze- ko asmoa ere baduzue, ezta?

Bai, nahiko genuke halakoren bat egin. Informatika ikastaroa izan daiteke, besteak beste, ban- kuko kontuak etxetik egiten ikasteko. Arazo handia dugu Elgetan horrekin, baina bilatu behar dugu hori egiteko egokia izan daitekeen pertsona.

Ferixa Nagusiko jaietan egongo da erretiratuen bazkaririk aurten?

Bai, asmo horrekin ari gara lanean.

28 bikote bihar hastekoa den frontenis txapelketarako

Parte-hartzaile kopuruak aurreikuspen guztiak gainditu ditu eta txapelketa ezingo da asteburu bakarrean jokatu

L.Z.L. ELGETA

Frontenisa izango da protago- nista bihar –goizean eta arra- tsaldean– eta etzi –goizean– he- rriko pilotalekuan. Txapelketa antolatu du herritar talde batek, eta, hasierako asmoa txapelke- ta asteburu bakar batean joka- tzea bazen ere, azkenean, luza- tu egingo da, kontuan hartuta izena eman duen bikote kopurua. "Ez genuen horrelakorik espero, baina oso albiste ona da eta era- baki dugu egutegia moldatzea", azaldu du antolaketa taldeko Iratxe Bravok. Gizonezkoen txa-

pelketarako hemeretzi bikotek eman dute izena eta emakumez- koen txapelketarako, bederatzik. "Partidak bihar hasiko dira, 08:00etan. Domekan ere jokatu- ko dira, eguerdira arte. Finaler- diak eta finalak beste asteburu batean izango dira. Eguna eta ordua sailkatutakoekin batera adostuko ditugu", azaldu du.

Herriko komertzioek eta en- presek emandako sariak bana- tuko dituzte txapelketan. "Sari asko dira, eta bereziki eman nahi dizkiegu eskerrak guztiei", esan du Bravok.



ELGETAKO UDALA

Elgetako jaiak badute kartela

Koldo Izagirrek irabazi du jaietako kartel lehiaketa, eta eguaztenean jaso zuen 100 euroko saria. Lau proposamen heldu ziren Jai Batzordeak deitutako kartel lehiaketara, eta herritarrek botoa emateko aukera izan dute aurreko egunotan. 110 boto izan dira, guztira, eta horietatik 93 izan dira Izagirrek egindako kartelarendako. Ane Bilbao eman zion saria.

OHARRAK

Azken eguna udalekuean izena emateko

Gaur amaitzen da uztaileko aisialdi eskaintzan izena emateko epea. Interesatuak *elgeta.eus* udal webgunean aurkituko dute informazioa.

Asentzio Eguna domekan

Jan-edanaren bueltan elkartuko dira Angiozarko, Elgetako eta Uberako herritarrek, eguerdian. Aurten ez da mezarik izango ermitan.

Pantxoa Carrere ekainaren 3an Espaloian

Esperantza izeneko emanaldia egingo du antzokian, 22:30ean. Sarrerek salgai daude Karraju dendan, 5 eurotan.

Sei laguneko zuzendaritza batzordea

Jose Antonio Ojanguren da lehendakaria, eta Karmelo Errarte lehendakariordea. Lupe Ibarbia idazkaria da, Jesus Mari Berraondo diruzaina, eta Enrike Ormaetxea eta Valentin Blanco bokalak. "Nahiko genuke orain arteko ekintzekin jarraitu, eta ahal dela ikastaro edo hitzaldi bereziren bat egin", azaldu du Ojanguren. Pozik da taldean dagoen lan giroarekin.



Gaur egungo zuzendaritza taldea. XALBADORPE ELKARTEA



Patri Espinarrekin batera egindako orientazio tailerrea, Arotzen. GOIENA

Neska gazteen Jabetze Eskola indartzea erronka

Aurrekoetan baino altuagoa izan da parte-hartze kopurua aurtengo Jabetze Eskolan, baina neska gazteei zuzendutakoak ziren bertan behera gelditu diren ikastaroetako bi eta euren Jabetze Eskola indartzea izango da hurrengo ikasturteko erronketako bat

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

COVID-19ak jarritako neurriekin hasi zuten Jabetze Eskolako ikasturtea, baina neurriak malgutu ahala normalitatera hurbildu da eta kurtso amaierako festa ere antolatu dute, hiru urteren ostean; hilaren 31n izango da. Balorazioari dagokionez, antolatutako ikastaroek harrera ona izan dutela baieztatu du Udaleko Berdintasun Sailak. Parte-hartzaile kopurua ere -235 emakume- aurreko urteetako baino handiagoa izan da, baina gazteengana hurbiltzeko moduan asmatu beharra dutela ere ikusi dute. Datuak esku artean dituztela, emakumeen arteko sareak sortu eta indartzeko espazioak sortzen jarraitu gura dutela adierazi dute.

Neska gazteengana heltzea

Guztira, hogeikastaro antolatutako dituzte ikasturte honetan eta horietatik hamalau burutu. Neska gazteen Jabetze Eskolaren baitan antolatutako bi ikastaroak

dira bertan behera geratu direnetako bi. "Agerian uzten digu honek neska gazteekin lan egiteko moduan eta eurengana iritsi ahal izateko moduetan sakondu beharko genukeela. Ez dugu urte batetik bestera lortuko, baina norabide horretan lan egin nahi dugu aurrerantzean ere", dio Berdintasuneko udal teknikariak. Balorazioa jaso duten proposamenen artean daude, bestalde, ekofeminismoaren gaineko saioa, *Zauriak* dokumentala eta Mari Luz Estebanen hitzaldia.

Datorren urteari begira

Sortzen diren taldeetan elkartzen diren emakumeen aniztasuna eta euren artean sortzen den

MARTITZENEAN DA KURTZO AMAIERAKO EKITALDIA: ANTZERKIA, LUNTXA ETA MUSIKA

harremana bereziki baloratzen du Berdintasun Sailak, eta hurrengo ikasturteko proposamenak lantzen hasita daude. "Harremanetan gaude Jabetze Eskolaren erabiltzaileekin eta herriko mugimendu feministarekin, eta elkarlanean ezarrirako erronka eta egitasmoak dira esku artean dauzkagunak: neska gazteen Jabetze Eskola indartu, hitzaldi eta gogoeta espazioak indartzen segi eta espazio egonkor eta tailer edo hitzaldi laburren arteko oreka bilatu". Horrez gain, espazio propio bat izatea ere bada desioetako bat.

Kultura etxean da jai

Datorren martitzenean, hilak 31, da Jabetze Eskolako ikasturte amaierako festa. Kultura etxean izango da, 18:30ean. Urteari errepasoa egingo diote lehenengo, eta, segidan, 19:00etan, Luze eta Motz antzezlanaren egongo da. 20:00etan, berriz, mokatutxoak eta Ane Irabazabalen zuzeneko kontzertua.

Elkartasun biltegian ez dute ezer jasoko ekainetik aurrera

Oraingoz, ez da inor aurkeztu erreleboa hartzeko, eta ekainaren amaieran ixteko arriskuan dago zerbitzua

O.E.G. OÑATI

Kale Zaharrean dagoen elkartasun arropa biltegiko ardura ekainaren amaieran utziko du Jose Antonio Urteagak, eta beste norbaitek hartu ezean itxi egingo dutela aurreratu zuen. Orain arte, inork ez du borondatearik adierazi eginkizun horretarako, eta ixteko arriskuan dago zerbitzu hori. Horrela, Urteagak berak iragarri du ekainean ez dutela arroparik edo bestelakorik hartuko, maiatzaren amaieran bukatuko da materiala jasotzeko zerbitzua.

Jose Antonio Urteagak adierazi duenez, biltegiaren itxierak eragina izango duen eragile guztiekin hitz egin dute egoerari buruz, baita Udalarekin ere, baina, oraingoz, ez dute biderik aurkitu biltegiak zabalik jarrai dezan, nahiz eta zenbait aukera aztertu dituzten, haren esanetan.

Egun, astelehenetan goiz eta arratsalde eta eguazten goizetan egoten da zabalik jendeak gauzak eramateko. Zerbitzu hori, baina, hilabete honen amaieran bukatuko da.

Aurrez jaso behar dira alargunen bazkarirako txartelak

Oñatiko alargunen elkarteak meza eta bazkaria egingo ditu ekainaren 12an, bi urteko etenaren ostean. Agustindarren elizan izango da meza, 12:30ean, eta ondoren egingo dute bazkaria. Bazkarirako txartelak, baina, aurrez hartu behar dira. Pake Leku elkartearen jaso behar dira, ekainaren 1ean eta 2an, 18:00etatik 20:00etara.

3.000 euro banatuko ditu Txandak bezeroen artean

Udaberriko promozio kanpaina jarri du martxan Txanda elkarteak. Ekainaren 8ra bitartean, 3.000 euro banatuko ditu bezeroen artean. Erosketa egindakoan txartel bat emango diote bezeroari eta horrek 20 edo 40 euroko saria izan dezake. Kopuru hori txartela jaso duen komertzio berean erabiliko beharko du bezeroak hurrengo erosketan.

GORA ETA BEHERA



Urarekin erabilitako globoak, jaso barik

Urez betetako globoekin jolastu eta freskatu. Globoak, baina, lurrean gelditzen dira askotan. "Oñatiko plazako iturrian dauden globoak ikusteak min ematen du. Beroa hasi eta betiko irudi lotsagarriak ikusten dira", da herritar baten kexa.

"Eraginkorrek dira arkeologia topaketak"

ALVARO ARRIZABALAGA OÑATIKO ARKEOTOPAKETEN BULTZATZAILEA
Oñatiko Unibertsitatea Arkeotopaketa egiten ari dira Oñatin. 32 ikertzailek hartu dute parte eta hauxe da gaia: harrizko lehengaiak Pirinioetako historiaurrean

Amaia Txintxurreta Guridi OÑATI
Oñatiko Unibertsitatea izena hartu duten lehen arkeotopaketak martxan daude Oñatin, eguaztenaz geroztik. Gaur arte iraungo dute, eta asmoa da aurrerantzean urtero egitea, Pirinioetako ingurunea aztertzen duten ikerketa-taldeen arteko sare-lana sustatzeko helburuarekin. Bultzatzaileen artean dira Euskal Herriko Unibertsitateko historiaurre saila, Oñatiko Udala eta Arrikruz Kobak. Alvaro Arrizabalaga da topaketa hauen bultzatzaile nagusietako bat. **Pozik arkeotopaketak, azkenean, martxan direlako?**

Bai; hau aurreikusita geneukan iaz egiteko. Ez naiz gogoratzeko pandemiaren zenbatgarren olatuak harrapatu eta, azkenean, atzeratu egin behar izan genuen. Hori dela eta, hau izango litzateke 2021etik zor dioguna Oñatiko herriari, eta aurtun bi egingo ditugu, hurrengo urrian edo azaroan.

Zelako garrantzia dute Oñatiko arkeotopaketek?

Berreskuratzen ari gara, poliki-poliki, aurreko erritmo akademikoa, nahiko konplikatuak izan dira bi urte hauek; izan ere, kongresu eta topaketa gehienak era birtualean egin behar izan dira eta, berez, orain berreskuratu dugu kontaktu zuzena. Bereziki garrantzitsuak eta eraginkorrek dira horrelako topaketa txikiak. Badaude baita ere arkeologia munduan kongresu erraldoiak, 1.200 pertsonak baino gehiagok parte hartzen dutenak, baina egia da ez direla hain eraginkorrek aurrerapen metodologikoak eta benetako elkartruke hori egiteko; eraginkorragoak dira horrelako topaketa txikiak, *workshop* izenez ezagutzen direnak.

Zergatik Oñatin?

Lankidetzat itun bat sinatu genuen Oñatiko Udalarekin zenbait ekimenetarako, eta izan daiteke



Alvaro Arrizabalaga oñatiarra. A.T.G.

"METODOLOGIAK BATU ETA KONTU PRAKTIKOAK BATERATZEKO BALIO DUTE HALAKOEN"

Oñatiko herrian dagoelako Euskal Herrian egon zen lehen unibertsitatea; eta bereziki egokia zen topaketa bat egiteko bertan. Gure helburua da, gainera, topaketa guztiak unibertsitatearen eraikin horretan burutzea. **32 ikerlari ari dira parte hartzen; tartean, Euskal Herrikoak, baina baita Burgos, Salamanca, Zaragoza, Bartzelona eta Oviedotik etortakoak. Nolako ikerlariak dira?**

Ia guztiak doktoreak dira eta gehienak unibertsitateetako irakasleak eta ikerlariak dira. Aurtengo gaia da *Harrizko lehengaiak Pirinioetako historiaurrean* eta helburua da nolabaiteko sare bat sortzea gai horretan. Sinerzia batzuk sor daitezke oso erakargarriak. Harrizko lehengaiak aipatzen ditugunean, gehienbat, suharriri buruz hitz egiten dugu eta suharriak oso kontserbazio ona izaten du. Horrek esan nahi

du gauza bagara identifikatzeko non dauden meatoki horiek hornitzeko lehengai horrekin, gero aurkitzen dugunean, adibidez, Urbanan hartutako suharri bat Galizian, nolabaiteko ildo edo gezi bat ipini dezakegula esanez Urbanan jaso dutela eta elkartrukeen bitartez edo merkataritza-sare baten bitartez bukatu duena Kantauri aldeko beste muturrean. Horren arabera egituratzen ditugu lurraldetasuna eta merkataritza-sareak historiaurrean, beste edozein gairekin egiterik ez dagoena.

Arkeologoek lan egiten duzue lantalde txikietan eta topaketa hauen helburua da lantalde txiki askoren batura egitea Oñatin, ezta?

Bai; alde batetik, horrelakoek balio dute metodologiak batzeko; eta bestetik, kontu praktikoak bateratzeko. Adibidez, prestatzen dira liburutegi moduko bilduma batzuk, lilotekak deitzen direnak, harri mota desberdinak, jakiteko ongi karakterizatuta nongoak diren, horiek oso lagungarriak izan daitezkeelako, esaterako, Katalunian agertzen den suharri baten sorrera Euskal Herrian dagoela identifikatzeko, edo alderantziz.

Arantzazurako autobusa, ordu erdian behin domekan

Zegama-Aizkorri mendi lasterketa da domekan, hilak 29, eta Oñati eta Arantzazu arteko autobus zerbitzua indartu egingo dute; autobusa erabiltzeko gomendioa egin dute, 2019koa errepikatu ez dadin. Orduan ez bezala, gaur egun adierazita daude autokarabanak aparkatzeko guneak, eta udaltzainak horiek zaintzen ibiliko dira eguenetik; gaizki aparkatutako ibilgailuak mugiarazi egingo dituzte.

Domekan, Arantzazura igotzeko lehen autobusa 07:30ean irtingo da Oñatitik eta 18:30ean azkena, ordu erdian behin bat. Arantzazutik Oñatira jaisteko, 08:00etatik 19:00etara izango da autobus zerbitzua.

Turismo Etikoaren ziurtagiria lortu dute bederatzi zerbitzuko

Jardueran erantzukizun eta jasangarritasun printzipioak integratzen dituztela adierazten du Euskadiko turismoaren kode etikoak, eta ziurtagiri hori lortu dute herriko bederatzi zerbitzuko: Arregi landetxea, Goiko-Benta ostataua, Zumeltzegi Dorrea hotela, Arantzazuko aterpetxea, Arantzazuko parketxea, Arrikruz-Oñatiko Kobak, Txokolateixia eta Oñatiko eta Arantzazuko turismo bulegoak. 2018a ezker ari dira, nazioarteko estandarrik kontuan hartuta, Eusko Jaurlaritzak eta Basquetour turismoaren euskal agentzia kodea prestatzen. Erregistro horretan sartu dira Oñatiko bederatzi turismo zerbitzu hauek.

NIRE USTEZ



MIEL GURIDI

Argindarra: mikro-etenak eta makro-etenak

Ez dakit zure etxean edo lanean argindarraren mikro-etenik nabaritu duzun azkenaldian. Beharbada, ez zenuen nabarituriko, etena oso laburra izaten baita. Beste batzuetan, arazo handiagoak sortzen ditu; esaterako, ordenagailuan lanean ari zarela itzali eta lana galtzen duzunean, osasun zentroan edo udaletxean tramitazioa egiten ari zaizkizunean dena eten eta geroago bueltatzeko esaten dituztenean. Ez dakit zerk eragindakoak izan diren, hainbat gauza entzun baititut, baina gogaikarria da oso, amorrazioa sortzen du eta gehiago arazo bera egunetan errepikatzen denean. Bestelakoa da, mantentze-lanak direla eta, urtero abuztuan egiten den argi-mozketa. Herritar asko etxean luze egotera behartzen ditu. Izan ere, askotan ez da egoera mozketarekin bukatzen, asko hondatzen baitira. Konturatu zarete egun horietako iluntzeetan igogailuen mantentze-lanetako zenbat furgoneta ibiltzen diren bueltaka? Ez ote dago aukerarik lan horiek argia moztu barik egiteko? Herri guztietan horrela egiten da? Ordaintzen duguna kontuan izanda, ez dago zerbitzua hobetzerik?

AUTLAN[®]
EMD

Azken belaunaldiko pila alkalinoetarako
Manganeso Dioxido Elektrolitiko ekoizpena.

"Oraindik leku anitz irabazi behar ditu rapak"

ODEI BARROSO 'ODEI' RAP ABESLARIA ETA BERTSOLARIA

Gaurko gaztetxeko rap gauean izango da Odei Barroso, Peru Del Hoyo 'Raperu' eta Uki Selektahrekin batera. Barrosok bakarkako lehenengo diskoa aurkeztuko du

Amaia Txintxurreta Guridi OÑATI

Terapia da aurrez 2zio taldeko kide izan zen Odei Barroso *Odei*-k argitaratu duen bakarkako lana. Aurrez gaztetxean izandakoa da rap taldearekin batera, eta bertsotan ere aritu izan da Oñatin. Plaza ezaguna du, beraz, eta gaur zapalduko du berriro, 21:30ean hasita.

Hamabost kantu jaso dituzu diskoan. Zein prozesu jarraitu duzu hori osatzeko?

Aski prozesu luzea izan da, bereziki, *beatmaking*-ean –instrumentalak egiten– hasi nintzelako orain bi urte. Beraz, ordura arte sekula egin gabeko lan bat zen eta Jo Olaskoaga kidearekin batera ikasten hasi nintzen. Pixkanaka baseak egiten hasi, lehenik harekin, gero nire alde-tik segitu nuen, eta, nonbait, bi urtean lortu dut disko hau borobiltzea; bai instrumental aldetik, baita testu, *flow*, grabaketa, nahasketa... eta dituen lan guztiekin.

Zuretako terapia moduko bat izan da lan hau?

Bai, badu terapiatik. Bakarka plazaratu dudana lehen abestia *Terapia* deitzen da eta diskoaren izena ere hala da. Nire barrena askatzeko eta hori ditudan kopariloen inguruan itzulika aritzeko bide dut rapa. Beti erratan dut parez pare jendeari edo norbaiti errateko gai ez naizena idazteko gai naizela, behintzat, rapean, eta hori bada askabide bat eta lanketa bat norbere buruarekin.

Kantu batean diozu akatsa dela zure ikaspenik handiena. Zer ikasi duzu akatsetatik?

Ikasi dut berriz altxatzen, hobetzen, kritikiko izaten neure buruarekiko eta akatsak onartzen. Horretatik guztitik ateratzen dut gero antzina egitekoa. **Ari izeneko kantu berezia da disko azkena.**

Bai; rapean ez da ohikoa hori bezain kantu luzeak egitea eta,



Odei Barroso rap abeslaria Oñatiko gaztetxean izango da egubakoitzean. O. BARROSO

"EUSKAL HERRIAN SORTZAILEAK BAINO GEHIAGO, ENTZULEAK FALTA DITU RAPAK, NIRE IRITZIZ"

gainera, bada kantu bat *beat*-a edo bateria beranduago sartzen dena, uzten diona tarte luze bat letrari *sample*-arekin, halako garapen bat du kantuak... Aski kantu berezia eta mimatu dudana da.

Badago raparentzat lekuri Euskal Herrian?

Erranen nuke lekua badela; uste dut oraindik leku anitz irabazi behar dituela rapak, hori bai. Ohartzen naiz, hala ere, badirela geroz eta rap kantari gehiago edo, bederen, nik entzuten ditut edo deskubritzen ditut euskaraz ari diren geroz eta rap kantari gehiago; geroz eta estilo anitzagoak, gainera. Izan ere, rapa gaur egun biziki zabala da, rap estetika desberdinetan, gainera, uste dut aski ekoizpen anitza badugula Euskal Herrian, baina sortzaileak baino gehiago, batzuetan iruditzen zait entzuleak falta direla.

Batzuek bertsolari moduan ezagutuko zaituzte gehiago, baina rapean hasi zinen lehenago, ezta?

Bai; bertsu eskolan hasi nintzen 13 urteren bueltan eta lehenagotik entzuna eta deskubritua nuen rapa eta zer edo zer idatzia ere bai. Gero, 2000. urtean deskubritu nuen Selektah eta hori izan zen niretzat klik bat rape-ra begira.

Bertsotan ala rapa egiten sentitzen zara erosoago?

Bi diziplina dira. Desberdina da lehenago dudana sentsazioa, ohol-tzan dudana eta bertatik jaistean. Ez dut bata bestea baino nahia-go; hori bai, orain erabaki dut rapean zentratzea bertsotan baino gehiago. Euskal Herriko bertsolari txapelketan ez dut izenik eman.

Zeure lehenengo ofizioa ere utzi duzu honetara dedikatzeke.

Musikaz gain, musika ekoizpenak egiten ditut, bideogintzan ere aritzen naiz eta badut proiektu bat martxan jadanik. Hendaian estudio bat egiten ari naiz, balioko duena bideo muntaketak egiteko, eta baita soinu grabaketak ere. Gainera, izanen da bereziki rapari begira prestatutako eremu bat.

Lehen mailara igo da areto futboleko Aloña Mendi Coin Broker

Mailaz igotzeko *play-off*-a jokatzen ari zen Aloña Mendi Coin Broker areto futbol taldea, eta, egubakoitzean Tolosan 0-1 irabazita, lortu du denboraldi hasieran zuen helburua: Gipuzkoako bigarren mailatik lehenengora igotzea. "Partidua oso lehiatua eta parekatua izan zen. Bietako edonork irabaz ezazakeen, baina guk egin genuen

gola, eta garaipena lortu", dio taldeko Santi Bernalek. Julen Ugartek egin zuen partiduko gol bakarra eta zoramena izan zen harmailetan. Izan ere, autobuskada bat joan zen Oñatitik Tolosara areto futboleko taldea animatzera.

Mailaz igotzea lortu du, baina oraindik ligako txapelduna ere izan daiteke. Bihar, zapatua, jakingo da hori. Izan ere, Oñatiko eta Zaldibiako taldeek Andoainen 15:45ean jokatuko dute azken partidua.

Oraindik eman daiteke izena udako kirol kanpainen

Nahiz eta dagoeneko amaituta dagoen udako kirol kanpainen hasiera batean zehaztutako izena emateko epea, hainbat jardueratan lekua dago, eta, beraz, interesa dutenek oraindik ere horietan apuntatzeko aukera daukate. Ekainaren 27tik uztailaren 22ra bitartean izango dira; txanda bakarrean apuntatzen direnek data horietan izango

dituzte jarduerak; bestela, lehenengo txanda ekainaren 27tik uztailaren 8ra izango da eta bigarrena uztailaren 11tik 22ra bitartean.

Hainbat ordutan eta jardueratan dago lekua oraindik: aquagazten, golfetan, yoga gazteetan, zumban, badmintonean, eskaldan, tenisean, mendiko bizikletan, multikirolean, pilotan, patinajeetan, patin-hockeyan eta ur jolasetan. Informazio zehatzagoa, Zubikoako harreraren edo 943 71 63 75 telefonoan.

'Mitxoletak' film laburra diruz laguntzeko kanpaina

Jone Markuleta eta Danel Teran oñatiarrak *Mitxoletak* film laburraren proiektuko kide dira. Hori egiteko *crowdfunding* kanpaina dute martxan *Itsulapikoa.eus*-en eta lortu dute proiektua egiteko gutxieneko kopurua: 3.000 euro. Dena den, gehiago jasotzea dute helburu. Astebete falta zaie, zehazki, diru-bilketa kanpainari amaiera emateko.

Felix Sanchezen argazki bat, sariketa baterako finalista

Tokioko Olinpiar Jokoetan Felix Sanchez argazkilariak ateratako argazki batek saria eskura dezake orain. Izan ere, Kirol Prentsaren Nazioarteko Elkarteak haren argazki bat eta beste bi izendatu ditu 2021eko munduko ekintzako kirol argazki onenaren finalista izateko. Prentsako AIPS sariak Qatarren banatuko dituzte ekainaren 12an.

Gaztelekuko bertso paper lehiaketako sari banaketa

Herriko hiru ikastetxeetako ikasleen 121 lan jaso dituzte gaztelekuko XIII. bertso paper lehiaketan. Sari banaketa egingo dute domekan gaztelekuan, 11:30ean, eta bertan izango dira Maider Arregi eta Andoni Egaña bertsolariak eta Unai Gaztelumendi marrazkigilea. Epai-mahaia zortzi saridun izendatuko ditu domekako ekitaldian.

Igeriketa txapelketa izango da Zubikoan domekan

Ordizia saria jokatuko dute. Ikusita igerilari asko daudela eta Zarautzen egin zuten aurreko jardunaldia asko luzatu zela, Federazioak erabaki du bi lekutan banatzea txapelketa, eta Ordizian eta Oñatin jokatuko da. Bietan probak berdinak izango dira, baina talde bakoitzak leku batean egingo du igeri. Publiko barik jokatuko da.

DEBAGOIENENKO



OSASUN ZERBITZUAK



DENTISTAK

ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behea / 943 79 95 60

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 32, behea / 943 76 00 23

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

DURANA HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Durana kalea 22 / 943 79 93 55

GARAI HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Iralabarri 15 / 943 53 42 63

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behea
943 79 20 18 / 620 12 48 43

DIETETIKA

BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68
Bergara / Bidekurutzeta 10 - 943 76 97 03

KIROPRAKTIKA ZENTROA

BIZI KIROPRAKTIKA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA

(AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN- DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ ZENTRO MEDIKOA

Arrasate / Euskal Herria plaza 3
943 79 44 22

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk.
943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g
943 76 07 84

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA

(AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11



Iñaki Ogara Arri, Ane Arrillaga eta Izar Bedia, aste barruan, Iturripen. x.u.

"Lehenengo Mailan lehiakor izateko lan egin behar dugu"

IÑAKI OGARA 'ARRI', IZAR BEDIA ETA ANE ARRILLAGA MU-KO ORDEZKARIAK

TXIRRINDULARITZA Domekako lauko finalean Askartzari 79-54 irabazi eta gero, moreak mailaz igo dira. Aste barruan, egindakoaren balorazioa egin dute GOIENAREndako

Xabier Urtzelai ARRASATE

Emakumezkoen kategoria txiki-ekin hamarkada batez lanean jardun eta gero -2014an hasi ziren-, Ointxe!-k duela bi urte erabaki zuen senior mailako taldea sortzea. Urte askoan Eskoriatza izan da Debagoienan senior mailan erreferente, eta Ointxe!-koen apustua ere naturala izan zen, harrobitik zetozen maila oneko jokalariei jarraipena ematea zen asmoa. Hala, Gasteizko Araskirekin indarrak batu izanak fruituak eman zituen

-junior mailan Espainiako txapeldun izan ziren Arrasateko hainbat jokalariei, eta orain, senior mailan egindako bi urtetan taldea Lehenengo Mailara igo da. Domekan bizi izandako errepasatzearekin batera,

"GARBI GENEUKAN FINALERA GOZATZERA IRTEN BEHAR GENUELA, ETA HORRELA IZAN ZEN"

etorkizunera begira jarri dira Iñaki Ogara Arri entrenatzailea eta Izar Bedia eta Ane Arrillaga jokalariek.

Domekako emozio, poztasun eta biharamunak atzean utzita?

Iñaki Ogara: Ez dugu izan denbora askorik domekakoa atzean uzteko; izan ere, lehenengo taldeak denboraldia amaitu badu ere, kategoria txikiagoetako taldeek ez dute ikasturtea amaitu, eta atzo [astelehena] bertan gogor entrenatzen ibili ginen. Baina bai, domekan behar den

moduan ospatu genuen mailaz igo izana.

Berezia izan zen Iturripen horrela ikustea...

Izar Bedia: Bai, oso berezia. Har mailak goraino bete ziren bai zapatuko kanporaketa partiduan eta baita domekako finalean ere. Horrenbeste jende ikustea taldea animatzen... Zapatuko partidua irabazi genuenean garbi geneukan domekan gozatzera irten behar genuela kantxara. Eta horrela egin genuen.

Ane Arrillaga: Niretako oso berezia izan zen Ointxe!-ko harrobiko neskatila gazteak gure ondoan ikustea, zelan animatu gintuzten, zelan ospatu zuten lorpena gurekin... Horrek hunkitu egin ninduen, emozionatu egin nintzen.

Eta orain, zer? Gizonezkoekin alderatuta, zuek ere EBaren pareko kategoriara igo zarete.

I.O.: Mailaz igoko gara eta profesionalismoaren atarian egongo gara. Aurrekontu handia duten taldeak izango ditugu aurrean Lehenengo Mailan, batzuek apustu sendoak egiten dituzte Emakumezkoen Ligara [LF2] igotzeko eta puntako jokalariek ekartzen dituzte, eta guk horien kontra jokatu beharko dugu. Gurea moduko klub batendako erronka izango da hor egotea, baina lehiakor izateko lanean hasi behar dugu, eta gero ikusiko dugu zein den gure tokia. Taldeak entrenatzen jarraituko du, jakinda denboraldiaurre oso ona egin beharko dugula ligari aurre egiteko.

I.B.: Gogor entrenatzen jarraitu behar dugu eta hasieratik hasi beharko dugu ondo; lehenengo jardunaldian irabazi egiten badugu, hobeto. Aurten ere ez genekien non egongo ginen, taldekideok ez genuen kategoria hau ezagutzen, eta, konturatu orduko, mailaz igo gara. Eta Lehenengo Maila ere ez dugu ezagutzen. Bada, datorren denboraldian ere berdina egin behar dugu, etengabe hazten joateko helburua izan behar dugu.

A.A.: Udan lanean jarraitu beharko dugu, taldearen jokoa prestatzen, eta nik, behintzat, datorren

"LEHENENGO TALDEAK LORTU DU GAZTETXOENDAKO ERREFERENTE BILAKATZEA"

denboraldiari ere gozatzen jarraitzea eskatzen diot, saskibaloiarekin disfrutatzen jarraitzea. **Duela bi urte hartu zenuten senior mailako taldearen aldeko apustua egitea.**

I.O.: Esango nuke senior mailako taldea sortzearen aldeko apustua erraza izan zela. Hau da, 2002an jaiotako neskekin alebin mailan lanean hasi ginen [2014an] erantzun oso ona izan genuen eta berehala konturatu ginen bai Arrasateko eta baita bailara osoko emakumezkoen saskibaloiak potentzial handia zeukala. Eta bide horretan jarraitu dugu lanean: entrenamenduekin, teknifikazio saioekin, entrenatzaileen eta guraoen laguntzarekin... Eta belaunaldi horiek senior izatera pasa direnean oso maila polita daukatela erakutsi dute. Hala, belaunaldi horiei falta izan zaiena da aurretik erreferenteak izatea, eta orain eurak dira gazteen erreferente.

I.B.: Konturatu barik iritsi gara puntu horretara, gatzetxoendako erreferente izatera, baina garrantzitsua da eta hori da Ointxe!-ren helburuetako bat; alegia, bertako senior mailako taldea Gipuzkoa mailan erreferenteetako bat bilakatzea.

Arri, esango nuke Ointxe! badabilena ahalegina egiten Arrasateko talde bat soilik izateari utzi eta ikuspuntua zabaltzeko.

I.O.: Bai, muga horiek gaintitzea garrantzitsua dela uste dugu, eta horren alde dihardugu lanean. Uste dugulako indarrak batzea garrantzitsua dela, eta, are gehiago, emakumezkoen saskibaloia sustatzeko. Nik uste dut norberaren klubari bakarrik begiratzen dionak, norbere plazari bakarrik begiratzen dionak, mesede txikia egiten diola emakumezkoen saskibaloitari. Orain, esaterako, igoera honek ilusioa piztu du saskibaloijokari gatzetxo askorengan, eta hori gauza polita da. Eta ikuspuntu orokor batekin egin dugun lorpena da. Ideia horrekin jarraituko dugu lanean. **Ane, zu Eskoriatzako klubeko harrobikoa zara. Zer aurkitu duzu Iturripen?**

A.A.: Lanerako gogo handia duen talde batekin egin dut topo, inplikazio maila oso handia duten jokalariek ezagutu ditut, eta, horrekin batera, taldekide bikainak direla erakutsi didate. Nik izugarri disfrutatu dut denboraldi honetan.

Bederatzi ordezkari Zegama-Aizkorriren etzi

MENDI LASTERKETA Bi urteko hutsunearen ondoren, domekan egingo dute Zegama-Aizkorriren 21. edizioa, eta irteera puntuan batuko diren 510 lasterkariren artean nazioarteko izen handiak daude; tartean izango dira bederatzi debagoiendar

Xabier Urtzelai ARRASATE

Zegama-Aizkorriren aspaldi amaitu ziren debagoiendarrez betetako parte-hartze zerrendak, lasterketak nazioarteko oihartzuna daukanetik –domekakoa Golden Trail World Series txapelketako lehen hitzordua izango da– oso gutxik lortzen dute eta dortsal preziatua. Bada, domekan ibarreko bederatzi lagunek izango dute munduko onenekin lehiatzeko aukera: Oñati ordezkariak dute Asier Alonsok, Andoni Iturbek, Xabier Letek eta Jon Urtzelai; Arrasatek izango dira Aritz Kortabarria eta Kepa Mercader; Aretxabalek Igor Olalde; eta Elgetatik, azkenik, Anartz Agirre eta emakumezkoen borrokan aurrealdean ibiliko den Oihana Kortazar.

Inoizko lasterkari onenak

Domekako lasterketa historikotzat hartu dute askok, inoiz ez dira eta elite mailako horrenbeste hautagai batu irteera puntuan. Ikusteko dago Kilian Jornet hamargarrenez txapela janzteko gauza izango ote den, eta garaipenaren borrokan izango dira, baita ere, Manuel Merillas, Davide Magnini, Thibaut Baronian, Aritz Egea, Maude Mathys, Nienke Brinkman, Oihana



Oihana Kortazar, azken edizioan (2019). GOIENA

SASOI PUNTU ONENEAN EZ BADA ERE, KORTAZAR DA AURREAN IBILTZEKO HAUTAGAIETAKO BAT

na Kortazar, Ida Nilsson eta Emelie Forsberg. Eta osagai horiek gutxi balira, Jornetek seguruenik garaipena bakarrik ez, Stian Angermund-Vik-en esku dagoen errekorra (3:45:08) begiz jota izango du.

Sari berezia, aizkora

Domekako lasterketako irabazleak sari berezia eramango du etxera: aurreko edizioetako irabazleen izena daraman aizkora bat. Hain zuzen, 1971n Aloñako mendi taldeko lagunak Aizkorriko tontorrean jarri zuten harrizko aizkoraren sinbolo moduan emango dute sari hori.

Bestalde, lasterketa zuzenean eskaintzeko inoizko apustu handiena egin dute, eta ETBk, Teledeportek eta Youtubeko Zegamaren eta Golden Traileko kanaletan ere emango dute.

Bi jardunaldi falta dira, eta oraingoan ezin dute hutsik egin

ARETO FUTBOLA Mondratek eta Eskoriatzak berdindu egin zuten joan den astean; euren esku dute 'play-off'-a

X.U. ARRASATE

Nahiz eta joan den asteburuan bai Mondratek eta bai Eskoriatzak berdindu egin zuten, Debagoieneko bi talde horiek oraindik euren esku dute kategoriaz igotzeko *play-off*-etarako sailkatzea. Hala, ligari bi jardunaldi geratzen zaizkio eta kontuan izan behar da azken jardunaldian derbia jokatu dutela elkarren kontra. Oraingo asteburuan, baina, derbira *bizirik* iristeko ezin dute kalerik egin. Hain zuzen ere, 53 puntu dituzte bai Mondratek eta Eskoriatzak, baina arrasatearrak daude aurretik, eta despistatzen denak garesti ordainduko du, Gora taldea (52 puntu) hutsegite horren zain dago eta.

Eskoriatzak, etxean

Eskoriatzak sailkapenaren azkenurreko postuan dagoen Sasikoa Durangoren bisita izan-



Santurtziren kontrakoa. GOIENA

go du zapatuan (18:00, Intxaurtxueta). Hala, atsedenaldirako jakingo dute atzealdean dabilen Elorriokoren kantxan Mondratekoek zer egin duten, zapatuan jokatu dute eta horiek ere, baina 16:30ean (Elorrioko kiroldegia).

TRIALA Zapatuan egingo dute Antzuolan lasterketa

Euskadiko Trial Txapelketa jokatu dute bihar, zapatua, Antzuolako lurretan. 15:00etan hasiko dute proba –egiaztapenak 13:30ean hasita– eta Irain motor klubeko antolatzaileek hamar zona prestatu dituzte, guztira. Kategoriatxikiak eta klasikoak egotearekin batera, senior mailan ere hainbat kategoriatxiki jarriko dituzte.



Triala, iaz. GOIENA

Kilometro bertikalean beste hamar


Gaur, egubakoitza, 16:00etan hasita, Zegamako kilometro bertikaleko lasterketa egingo dute, plazatik bertatik hasita (1.015 metroko desnibela). Eta hor ere ibarreko zenbait ordezkari izango dira: Garazi Abasolo, Maite Zabaleta, Marije Zubizarreta, Eleder Lozano, Beñat Madariaga, Joseba Molinero, Raul Muñoz, Aitor Ugarte eta Mikel Urrutia.



Iñigo Alzola, Aloñan. GOIENA

IGERIKETA Euskadiko txapelketan ibarreko ordezkariak

Gasteizen, Mendizorroztako igerilekuan, egingo dituzte zapatuan Euskadiko joko eskolarretako txapelketak, eta hantxe izango dira, Gipuzkoako selekzioarekin, Aloña Mendiko eta Bergara Igeriketa Elkartearen zenbait igerilari. Guztira, bederatzi lagun izango dira, eta denak dira alebin mailakoak. Bergarako lau sailkatu dira, eta Oñatiko bost.



Txapelketa, Bergaran. GOIENA

"Panderoa jotzeko moduak uztartuko dira"

MAIXA LIZARRIBAR ARRASATEKO TRIKITIXA ESKOLAKO ZUZENDARIA Imanol, Motriko eta Leturia, Galiziako Faltriqueira taldea, Kimua dantza kolektiboa, Martineau bikotea eta Laja II. eta Lutxurdio, izango dira ekainaren 12an Arrasaten

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE Bigarren Pandero Jaialdia antolatu du Arrasateko Trikitixa Eskolak Udalarekin elkarlanean. **Panderoa lehen larroan jarriko duzue adituak gonbidatuta. Pozik?** Bai horixe! Jendea oso gogotsu dago eta oso pozik hartzen dute guztiek gonbidapena. Goiz da oraindik Euskal Herri mailako jaialdi erreferentea izango den esateko, baina hastapenak ezin hobekak direla ezin ukatu.

Zeren arabera aukeratu dituzue? Artista edo musikarien bila joan gara baldintza zehatz edo fokua bereziki inon jarri barik. Modu naturalean osatu dugu kartela gauza ezberdinak uztartuta.

Panderoa jotzeko teknika eta moduak erakutsiko dituzue?

Noski! Galiziako taldeak oso ezberdin erabiltzen du panderoa; eskua mugitu beharrean, panderoa mugitzen dute eta kantatzen oso ezberdina dute. 20 urteko geldialdiaren ostean, iaz abiatu ziren berriz ere, eta gogotsu datoz: hirukote formatuan espero ditugu. Iparraldeko Maider eta Jerome Martineau lehengusuek duten jotzeko modua ere oso ezberdina da. Ikasketa handiak dituzten musikariak dira, klasikotik eta modernotik asko edaten dutenak. Beti ezagutu dugun panderoa jotzeko modu



Maixa Lizarribar, AMAK taldeak iaz Seminarixoa egin zuen kontzertuan. I. S.

"ARRASATERI ESKAINITAKO KOPLA BERRIA EKARRIKO DU IMANOL, MOTRIKO ETA LETURIA HIRUKOTEAK"

hori erakusteko, berriz, Laja eta Lutxurdio bikotea izango dugu. **Imanol, Motriko eta Leturia ere betikoak dira, ezta?**

Plaza asko dituzte bizkarrean, bai, maisu handiak dira. Trikitilari handien pandero-joleak izan dira hirurak. Aurretik ere

egin izan dituzte elkarrekin esperimentuak eta pozarren hartu zuten gure gonbidapena. Leturiak atzo esan zidan koplak berriak prestatu dituztela, eta Arrasateri eskainitakoren bat dagoela aurreratu zidan.

Kimua dantza kolektiboa ere gonbidatu duzue. Zer dela eta?

Iaz ere saiakera egin genuen, baina egun berean euren ikuskizun berria estreinatu behar zutelak eta aurtengo zerrendan sartu genituen. Pandero dantza edo joko oso ikusgarriak egiten dituzte; dantzari trebeak dira eta panderoa joz egiten dute

Pandero Jaialdia

Bigarren Pandero Jaialdia egingo dute ekainaren 12an, Amaia antzokian, 18:30ean.

Gonbidatutako musikariak

- Imanol, Motriko eta Leturia.
- Faltriqueira taldea (Galizia).
- Kimua dantza taldea.
- Martineau bikotea.
- Laja II.a eta Lutxurdio.

Arrasate.eus atarian eta Amaia antzokiko leihatilan daude sarrerak eskuragarri, 10 eurotan.

dantza. Eskarmentu handia dute; besteak beste, Kepa Junkeraren eta Xabi Solanoren ikuskizunetan ibilitakoak dira.

Zelako egitura izango du?

Gure eskolako ikasle ohi Maider Osak aurkeztuko du eta, hain zuzen ere, ordu eta laurden iraungo du; talde bakoitzak hiru pieza joko ditu.

Irakasle izateaz gain, AMAK taldeko kide zara; pozik Musika Bulegoaren eskutik jasotako sariarekin?

Oso pozik! Hasieran broma zela pentsatu nuen arren [Barre].

Zelan duzue udako agenda?

Etxeko lanetan ibili gara, bideo-klipak eta bestelakoak egiten azkenaldian, eta gaur hasiko gara berriz ere kontzertuekin; Ziortza-Bolibarren gaur eta Iruan bihar. Debagoienean bi gelotoki izango ditugu aurrerago.

Bertsolariekin bazkaria etzi Elorregiko elkarte

Sanprubusean eta Oñatiko eta Bergarako Arrano tabernetan, hamabost eurotan, txartelak erosgai

A. Aranburuzabala ELORREGI

Elkartea biziberritzeko gogoz antolatu dute Elorregiko auzotarrak etzi, domeka, egingo duten bertso-bazkaria auzoko elkarte gastronomikoan. "Ez da, baina, auzotarrentzako proposamena bakarrik, gura duten guztientzako ditugu eta ateak zabalik. 14:30ean elkartuko gara eta entsalada mistoa, okela gisatua, postrea eta kafea izango da eskainiko dugun menua. Domeka 12:00ak bitartean izango da txartelak erosteko aukera, auzoan dugun Sanprubusean eta Oñatiko eta Bergarako Arrano tabernetan, hamabost eurotan bakoitzak", azaldu du Josu Osak, antolatzaile taldeko kideak.

Hiru bertsolari gazte

Azken orduko aldaketa izan du txartelak; hori horrela, hiru lagun izango dira mahaiaren bueltan bazkalostean bertsoetan: Aitor Tatiegi eta Joanes eta Xabat Illarregi anaiak. "Ekhiñe Zapiain beratarra ere etortzekoa zen, baina, azkenean, ezingo da gurean egon; hortaz, oñatiar bat eta bi leitzar etorriko dira. Gazteak dira hirurak, baina bertso plazetan eskarmentua dute; beraz, giro onean, saio polita aterako delakoan gaude".

OIHANA KORTAZAR ETA ROSA LASAGABASTER

GOIENA TELEBISTA, 'ZUBIAK' SAIOA
MAIATZAREN 27AN, EGUBAKOITZEAN, 21:30EAN
ETORKIZUNEN ERONKEZ BERBETAN



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!

goiena
Zu hemen zaude.



Arrasateko Bibliotekan bigarren eskuko azoka

Ekainaren 1etik 3ra bitartean egingo dute azoka Bibliotekako harreran, 17:30etik 19:30era, Amerika elkartearekin elkarlanean; ekainaren 2an, Carolina Ruedak helduentzako ipuinak kontatuko ditu, gaztelaniaz, Kulturateko Jokin Zaitegi gelan

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE Herri askotan moduan, Arrasateko Bibliotekan ere liburu asko jasotzen dituzte dohaintzan. "Ia egunero etortzen da herritarren bat liburuak, filmak edo beste-lakoak ekartzera. Gustura hartzen ditugu, baina baldintza batzuk ditugu; esaterako, entziklopediak ez ditugu hartzen, eta ezta hondatutako libururik ere", azaldu du Arrasateko Bibliotekako arduradun Asun Agirianok.

Aurten, elkartasun azoka

Bibliotekako erabiltzaileen artean banatu izan dituzte, gehienetan, baina, beste liburutegi batzuetako ekimenak ikusita, aurten azoka solidarioa egitea pentsatu dutela dio Agirianok: "Tolosan, Leioan eta Getxon, adibidez, hala egiten dute jasotzen dituzten argitalpenekin. Udaleko Gizarte Zerbitzukoekin adostu genuen Amerika elkarteari proposatzea, eta elkarre horretako kideak egongo dira saltoki-postuetan. Taldeko kide batzuk ezagutzen ditugu aurretik, liburutegiko erabiltzaileak direlako, eta baita solasaldietako partaideak ere".


Euro bat, bi edo hiru ordaindu beharko dira argitalpen bakoitzeko. Askotarikoak izango dira, liburuak, gehienbat, argitalpen zaharrak zein berriagoak,

baina badira filmak ere aukeran. "Helduentzako eleberriak dira gehienak, euskarazkoak, gaztelazkoak, eta bada ingelesezkoen bat ere. Garai eta estilo askotarikoak. Haurrentzako ere askotariko argitalpenak ditugu eskaintzeko, euskaraz eta gaztelaz irakurtzekoak horiek ere. Arrakasta izaten badu, azoka gehiago egiteko asmoa dugu".

Ipuin kontaketa, ekainaren 2an

Azokari indarra emateko, Carolina Rueda kontalaria gonbidatu dute gazteentzako eta hel-

duentzako ipuin kontaketa egiteko. "Aspalditik genuen Rueda Arrasateko Bibliotekara ekartzeko gogoia, eta lortu dugu, azkenean, Ahoz Aho jaialdiaren laguntzarekin. Ibilbide handiko kontalaria da eta Euskal Herrian zehar bira bat egingo duela aprobeztatuaz ekainaren 2an gurean izango da. Kontakizun bereziak partekatuko ditu entzuleekin egunean, Jokin Zaitegi gelan, 19:00etan hasita; ateak guztiontzako zabalik daude, eta ez da alde aurretik gonbidapenik eskuratu behar".



Bigarren eskuko azokan izango diren liburu batzuk. ARRASATEKO UDAL BIBLIOTEKA

Ekainaren 2an banatuko dituzte Euspot lehiaketako sariak

Gaur, egubakoitza, da ikusleek botoa emateko azken eguna; 'Euspot.eus' atarian daude lan guztiak ikusgai

A. A. ARETXABALETA

Hamaikagarrenez antolatu dute Aretxabaleako Udalak, Mondragon Unibertsitateak, Arteman Komunikazio Enpresak eta Arizmendi Ikastolak -Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseii-

luaren babesarekin aurten- euskarazko iragarkiak sustatzen dituen sariketa. *Zergatik lan egin kooperatiba batean?* izan da proposatutako gaia eta askotariko 95 lan jaso dituzte Euskal Herriko toki askotatik.

Sei sari aukeran

Arkupe kultura etxean egingo dute sari banaketa ekitaldia - ekainaren 2an, 19:00etan- eta 3.000 euro baino gehiago banatuko dituzte: Spot Onenarentzat 1.000 euro; 14 eta 18 urte bitartekoentzako 500 euroko Gazteen saria; 300 euroko Musika Sinkronizazio Onenaren saria eta 500 euroko Publikoaren saria. Azken horretan botoa emateko epea gaur, egubakoitza, amaitzen da. *Euspot.eus* atarian daude lan guztiak ikusgai.

Goienakideen txokoa

MAIATZEKO SARIAK



Telebista

TD System telebista (32")

Parte hartzeko sariaren izena: telebista



Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

ARRIKUTZ
GRATIS OUBAK

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.harremandenda.org
Salbitxo Merkataritza produktuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus WhatsApp: GOIENAKIDE

"sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrez dagoen LFP 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalari Goiena Komunikazio Zerbitzuen fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu bikoitzaren helburu bakarra da indarrez dagoen zuzapena gordinatzea. Eskubidea zuzapen dagoen datuak, haiek zuzentzeko edo zuzatuzeko, helbide honetan idatzi: goienakide@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako sarrerak

EHZ festibaleko antolakuntzari esker

EHZ festibaleko, hiru egunerako, sarrera bikoitza zozketatuko dugu.

Irabazitzaileak: 1etik 3ra

PARTE HARTZEKO:

E-postaz: goienakide@goiena.eus WhatsApp: GOIENAKIDE "EHZ"

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrez dagoen LFP 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalari Goiena Komunikazio Zerbitzuen fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu bikoitzaren helburu bakarra da indarrez dagoen zuzapena gordinatzea. Eskubidea zuzapen dagoen datuak, haiek zuzentzeko edo zuzatuzeko, helbide honetan idatzi: goienakide@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako otordua

ITURRIETA SAGARDOTEGIARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkariko Otorduan atala eta hartu parte!

Parte hartzeko azken eguna: maiatzak 31.



943 25 05 05



goienakide@goiena.eus



"Goiena app"-a / zozketa atalean.



GOIENAKIDE Jabetzea

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



BAZKIDETZA KUOTA: 60 €

Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!

goiena
kide

Okm: batzen gaituen distantzia.

HILETA

Juan Barbero Sanchez

Atzo hil zen, 87 urte zituela.



Emaztea: Lola Gonzalez. Seme-alabak: Toño eta Mari Carmen Mediavilla, Javi eta Arrate Revilla, Juan Luis eta Inuntze Bengoa, Jose Ignacio eta Itxaso Altuna. Bilobak: Veronica eta Mikel, Garazi, Iker, Unax, Iratze, June, Leire, Ixone. Birbilobak: Irati, Nikole. Anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusu-lehengusinak eta gainerako ahaideak.


Haren aldeko hileta elizkizuna bihar, egubakoitza, izango da, 19:00etan, Aretxabaletako Jasokundeko Amaren parrokian. Aldez aurretik mila esker.

Familiak Aretxabaletako Tanatorioan hartuko zaituzte 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara.

OROIGARRIA

Ion Murguzur Orueta

'Murgu'



Bost urte pasa diren arren, zuk utzitako hutsunea bete ezina da. Zure irribarre eta umorea beti izango da gurekin.

Zure kuadrilla.
Oñatin, 2022ko maiatzaren 27an.

OROIGARRIA

Xabier Landaluze Otadui


'Oxo'



Zein ederra izan den hirekin bizitzan murgiltzea. Irrifartsu eta barrezka gugan hire oroimena.


Hire kuadrilla.
Arrasaten, 2022ko maiatzaren 27an.

URTEURRENA



Jose Luis Pagalday Garitano

2021eko maiatzaren 27an hil zen, 80 urte zituela.



Zure irribarra gogoan, beti egongo zara gure bihotzean.


Urteurreneko meza domekan izango da, maiatzaren 29an, 11:00etan, Angiozarko Mikel Deunaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran (Angiozar), 2022ko maiatzaren 27an.

ESKER ONA

Julio Zalama Escudero

2022ko maiatzaren 24an hil zen, 67 urte zituela.



Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2022ko maiatzaren 27an.

ESKER ONA



Xabier Landaluze Otadui

2022ko maiatzaren 23an hil zen, 55 urte zituela.



Zein gogorra izaten ari den zuk utzitako hutsunearekin egunero bizitzea. Askok maite zaitugu.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2022ko maiatzaren 27an.


HILDAKOAK

Pedro Mari Korta Letamendi. Oñatin, maiatzaren 19an. 91 urte.
Emilia Garcia Garatxana. Aretxabaletan, maiatzaren 20an. 92 urte.
Juan Cruz Olazabal Uriarte. Eskoriatzan, maiatzaren 20an. 78 urte.
Juan Carlos Aranburuzabala Amozarrain. Arrasaten, maiatzaren 21ean. 85 urte.
Jose Mari Ansoategi Fernandez de Arroiabe. Arrasaten, maiatzaren 21ean. 78 urte.
Elena Galdos Galdos. Bergaran, maiatzaren 21ean. 76 urte.
Xabier Landaluze Otadui. Arrasaten, maiatzaren 23an. 55 urte.
Julio Zalama Escudero. Arrasaten, maiatzaren 24an. 67 urte.
Julian Egaña Arozena. Bergaran, maiatzaren 24an. 96 urte.
Jose Inaxio Kortabarria Etxebarriarteun. Aretxabaletan, maiatzaren 25ean. 88 urte.
Juan Barbero Sanchez. Aretxabaletan, maiatzaren 26an. 87 urte.

ESKER ONA

Pedro Mari Korta Letamendi

2022ko maiatzaren 19an hil zen, 91 urte zituela.



Lerro hauen bidez Pedro Mariren sendiak eskerrak eman nahi dizkizuegu, bihotz-bihotzez, horrenbeste eratan maitasuna eta elkartzasuna erakutsi diguzuen guztioi.

Oñatin, 2022ko maiatzaren 27an.

ESKER ONA

Aitor Moyua Murguzur

2022ko maiatzaren 12an hil zen, 59 urte zituela.



Zure irribarra eta bizi-poza gurekin izango ditugu beti. Maitasunez gogoratuko zaitugu.

Etxekoak

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Ondra meza zapatuan izango da, maiatzaren 28an, 19:30ean, Oñatiko Agustindarren elizan.

Bertratuko zaretenoi alde aurretik eskerrik asko. Oñatin, 2022ko maiatzaren 27an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ

Egubakoitza, 27 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
 Zapateria, 28 IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39
 Domeka, 29 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
 Astelehena, 30 ESPANOL: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
 Martitzena, 31 RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
 Eguaztena, 1 ETXEBERRIA: Zarugalde 38 / 943 77 16 30
 Eguena, 2 AZKOAGA: Ferrerías 1 / 943 79 15 15

BERGARA EGUNEZ

Egubakoitza, 27 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
 Zapateria, 28 ESTELLA: Mabiategi 5 / 943 76 19 63
 Domeka, 29 ESTELLA: Mabiategi 5 / 943 76 19 63
 Astelehena, 30 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
 Martitzena, 31 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74
 Eguaztena, 1 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
 Eguena, 2 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05

OÑATI EGUNEZ BAKARRIK

Egubakoitza, 27 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
 Zapateria, 28 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
 Domeka, 29 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
 Astelehena, 30 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
 Martitzena, 31 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
 Eguaztena, 1 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
 Eguena, 2 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58

ARRASATE GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)
 2022ko abuztuaren 15era arte:
 AZKOAGA: Ferrerías 1 / 943 79 15 15

BERGARA GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)
 2022 osoan:
 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko: COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

ESKER ONA

Margarita Garitano Mendibil

Gregorio Muiaren alarguna

2022ko maiatzaren 13an hil zen, 87 urte zituela.



Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Ondra meza zapatuan izango da, maiatzaren 28an, 19:30ean, Oñatiko Agustindarren elizan.

Bertratuko zaretenoi alde aurretik eskerrik asko. Oñatin, 2022ko maiatzaren 27an.



BARRESLEA

Oroilore

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Gure artean agurtutako guztiei curen bidea aurkitzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiek izango dute agur berezia Oroiloren.

Gure eskerrik beroenak gugan izan duzuen konfiantzagatik eta maitasunagatik.

Ion, Mario, Iban eta Maribi

Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

BERRI-ZAKUA

**62 urte ezkontuta**

Antzuolako Gure Txoko baserrian bizi diren Jose Antoniok eta Anttonik maiatzaren 28an 62 urte beteko dituzte ezkontuta. Urteurrena, berezia izanda, senitartekoen konpainian ospatuko dute. "Zorionak, bikote! Segi zoriontsu izaten, orain arte moduan. Besarkada bana familiaren partetik, eta, bereziki, Arain birbilobaren partetik. Zorionak, birramona eta birraitona!".

Musika ermitaren kanpoaldean

Aramaioko Andra Mari ermitaren kanpoaldean, ohi bezala, musika emanaldiak egon ziren aurreko asteburuan, Eguzkierripa jaialdiaren baitan. Broken Legacy, Bordan Bizio, Balarrasa, Saia Goait, The Clayton eta Lukien taldeak aritu ziren. Jaialdia bi egunera zabaldu dute, eta egubakoitzean, hip-hop, rap eta trap doinuekin gozatu zuten bertaratutakoek.

**Txarangak kalean**

Euskal Herriko hainbat txokotatik etorritako musikariek dantzaz eta jai giroz busti zituzten Bergarako kaleak. Osasun egoerak hobera eginda, Udalak kaleko bizitza berreskuratzearen alde antolatutako ekimena izan zen I. Txaranga Eguna. Herriko auzo, kale eta txoko guztietara heldu ziren musikariak. Besteak beste, Orkresta, Kittu taldea eta Gesalata egon ziren.

**25. urteurrena ospatzen**

Aretxabaletako Kurtzebarri BHLren 25. urteurreneko ospakizun ekitaldien baitan, aurreko zapatuan ia 200 ikasle, guraso, irakasle eta langile bildu ziren, giro ederrean. Kalejira egin zuten, eta ostean, Iturrigorri frontoian bazkaldu zuten; amaitzeko, AZ Gaubelak-en eskutik dantzaldiarekin gozatu zuten.

Ostiral musikala

Musika izan zen protagonista aurreko egubakoitzean Bergarako Venti pizzerian. Arragoa taldearen folk musikak goxatu zituen han bildu zirenen belarriak. Eta bi protagonista gehitu ziren emanaldira: Zigor eta Elene Martinez aita-alabek pieza bat interpretatu zuten Arragoarekin.

**Kontatu, kontatu!**

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

Posta elektronikoa

Mezua bidali berriak@goiena.eus helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ordezkaritzak

Zatoz Goienaren ordezkartzara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



Txoriei begira

Naturan Jolasean egitasmoaren baitan, kaleko hegaztiak ezagutzeko ibilalditxo egin zuten zapatu goizean Arrasaten. Kataloxak hartuta, okilak, enarak eta martin arrantzalea ezagutzen eta behatzen ibili ziren, Naiara Corcueraren gidaritzapean. Ostean, askotariko jolasak egin zituzten Monterronen.



50 urte ezkontuta

Bixente Lete eta Nekane Elorza arrasatearrak 1972ko maiatzaren 27an ezkontu ziren, eta urrezko ezteiak familia osoarekin ospatuko dituzte: ekainaren 4an bilduko dira,



bazkaltzeko, Arteaga jatetxean. "Zorionak, bikote! Segi zoriontsu izaten. Besarkada bana, familia osoaren partetik. Ederto ospatuko dugu elkarrekin".



Italiako Giroan

Munduko txirrindulari onenak lehia bizian ikusteko aukera ez zuten galdu erretratuan dauden bergararrek. Euskal zaleak nonahi ibiltzen dira ziklistak animatzen, eta oraingoan ere hala izan zen. Richard Carapaz, Mikel Landa, Vincenzo Nibali eta abar animatzeko eta txalotzeko aukera izan zuten.

ZORION AGURRAK




ARETXABALETA
Mare Eskibel Olalde
Maiatzaren 31n, 4 urte. Zorionak, Maretxo! Disfrutatu eguna topera, sorgintxo. Patxo handi bat etxeko danon partetik.



BERGARA
Manuel Moreno
Maiatzaren 31n, 90 urte. Zorionak familia guztiaren partetik. 90 urte eta aurrera! Segi horrela.



ARRASATE
Uxue Lezamiz Agirre
Maiatzaren 30ean, 3 urte. Zorionak, Uxue. Ondo pasatu zure hirugarren urtebetetzean. Asko maite zaitugu.



ARETXABALETA / BERGARA
Izaro Puga Saez
Maiatzaren 28an, 16 urte. Zorionak, maitia. Muxu handi-handi bat familiako guztion partetik. Segi horrela.




ARRASATE
Haitz Souto Lasa
Maiatzaren 28an, 7 urte. Zorionak, bihurritxo! Ederki pasatu dezazula zure egun berezia, txiki! Muxu handi-handi bat etxeko denon partetik!




BERGARA
Alaia Aznal Azpeitia
Maiatzaren 28an, 2 urte. Zorionak zure bigarren urtebetetzean, familia osoaren partetik. Ondo-ondo ospatu eta gozatu denekin.



BERGARA
Imanol Unamuno Unamuno
Maiatzaren 26an, 7 urte. Urte askotarako, Imanol! Super ondo pasatu zure eguna eta disfrutatu familiarekin eta lagunekin.



ARRASATE
June Leibar Belinchon
Maiatzaren 25ean, 10 urte. June, 10 urte 'supergeniala' izaten! Zorionak. Muxu potolo bat etxeko danan partetik.



ESKORIATZA
Xabier Orobengoa Nevado
Maiatzaren 25ean, 9 urte. Zorionak, bihotza. Ondo pasatu eguna. Disfrutatu familiarekin eta lagunekin. Jarraitu halako alai izaten.



ANTZUOLA
Hodei Aranzabal Fernandez
Maiatzaren 25ean, 11 urte. Zorionak, Hodei! Urte askotarako! Ondo pasatu eguna, familia osoaren partetik.



OÑATI
Gari Salazar Guridi
Maiatzaren 24an, 12 urte. Zorionak, Gari, etxeko danon partetik. Asko disfrutatu zure urtebetetze egunean eta patxo potolo bat, maitte!



ARRASATE
Julen Moto Conde Barrena
Maiatzaren 24an, 3 urte. Zorionak, bihotza! Hiru urte! Oso ondo pasatu zure egunean! Muxu handi bat familiaren partetik.




OÑATI
Alazne Bolinaga Barrena
Maiatzaren 24an, 10 urte. Zorionak eta patxo handi bat etxeko danon partetik. Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna.



BERGARA
Alain Davila Iza
Maiatzaren 23an, 11 urte. Zorionak, Alain! Ederki ospatu eguna eta muxu pila bat etxeko guztien partetik!



ARAMAIO
Galder Ibaguren Beltran de Guevara
Maiatzaren 23an, 8 urte. Zorionak, Galder! Zortzi urtetxo. Ondo-ondo pasatu zure egunian. Besarkada handi bat danon partetik.



ARRASATE
Enaitz Elorza
Maiatzaren 23an, 19 urte. Zorionak, Enaitz! 19 urte behin bakarrik betetzen dira. Ondo ospatu, parrandero!



OÑATI
Uxue Beitia Maisterrena
Maiatzaren 21ean, 8 urte. Zorionak, Uxue! Zortzi urte! Ondo-ondo ospatu zure eguna! Asko maite zaitugu!



OÑATI
Luken Olalde Agiriano
Maiatzaren 21ean, 11 urte. Zorionak, Luken! Mutikotzar ederra egin zara, geu konturetu orduko. Muxu pila bat etxeko guztien partetik.



OÑATI
Aimar Hernandez Otxoa-Aizpurua
Maiatzaren 20an, 13 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu eguna eta muxu handi bat familiaren partetik. Mua, mua!



ARRASATE
Beñat Alonso Lopez
Maiatzaren 19an, 19 urte. Zorionak, Beñat! Ederto ospatuko dugu. Jarraitu horrelakoa izaten! Maite zaitugu.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatz: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitze Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



ARETXABALETA
Iñigo Zuazo Ibarra
Maiatzaren 18an, 47 urte. Zorionak, aitatxo! Ederto ospatu zure urtebetetze eguna eta jarraitu zaren bezelakoa izaten! Asko maite zaitugu!

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 27

OÑATI Oñatiko Unibertsitatea Arkeotopaketak

Hitzaldiak eta solasaldia azken jardunaldian.

*Sancti Spiritus Unibertsitatean, 09:00etan.***ARRASATE Jostailu truke merkaturako jostailuen bilketa**

16:30-17:30, Seber Altuben; 17:45-18:45, Santa Marinako ludotekan; eta 19:00-20:00, Arimazubi plazan.

*Arrasaten.***BERGARA Ur ginkana**

Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailetak umeendako, Aidau haurren zerbitzuaren eskutik.

*Oxirondo azokan, 17:30etan.***ARRASATE 'Adin-adin' ekimena**

Maider Arregi eta Anjel Mari Peñagarikano bertsolariekin.

*Iturbide egoitzan, 19:00etan.***ARAMAIO Rock-jazz kontzertua**

Musika Astearen baitan.

*Parkean, 19:00etan.***ARETXABALETA II. Kuartel Eguna**

John Dealer And The Coconuts, Rodeo, Etxekalte eta Vibora taldeen kontzertuak. Sarrerak, bost euro.

*Kuartelean, 19:00etan.***ESKORIATZA Jesus Candelasen hitzaldia**

Eskoriatza Kirol Elkartearen festaren baitan egingo du berba Interviu areto futbol taldearen entrenatzaile ohiak.

*Ibarraundin, 20:00etan.***OÑATI Plan B eta Motz taldeak**

Denboraldiko azken kontzertua izango da. Sarrerak, bost euro.

*Ikatz tabernan, 21:00etan.***ESKORIATZA Helduentzako ipuin kontaketak**Mari Sol Andradek bi ipuin kontakutako ditu: *Non zaz ama?* euskaraz eta *Olatzen lagun-minak* gazteleraz, euskaraz eta ingelesez.*Zaldibar antzokian, 22:00etan.***OÑATI Raperu eta Odei zuzenean**Odei Barrosok *Terapia* lana aurkeztuko du, Peru Del Hoyo rap kantari galdakoztarraren laguntzarekin.*Gaztetxean, 22:00etan.***BERGARA Bertso musikatuak**

Ane Labaka, Haizea Arana, Ane Zuazubiskar, Aner Euzkitze, Libe Goenaga eta Jone Igartua, Bergarako Sortuk gonbidatuta.

Kartzela zaharrean, 22:30etan.

ZAPATUA 28

ARRASATE Arte azoka

Hamalau margolariren lanak ikusgai ipiniko ditu Arrasate Margo Taldeak. Tartean, akuarelak, olio lanak eta akrilikoak.

*Seber Altube plazan, 10:00etan.***ESKORIATZA Eskoriatza KEren eguna**

10:00etan, jokalarari ohien partidua; 12:00etatik aurrera, txarangaren kalejira, umeendako eskulanak eta bigarren eskuko azoka; 14:45ean, paella bazkaria; 17:15ean, saskibalo txapelketa; 18:00etan, kalejira kiroldegiraino, Eskoriatza-Sasikoa partidua ikusteko; 19:30ean, DJ Goiko; eta 23:00etan, parrillada.

*Fernando Eskoriatza plazan.***BERGARA Aranzadi Ikastolaren 50. urteurreneko jaia**10:30ean, txistularien diana, eta azoka; 11:00etan, haurrentzako jolasak; 12:00etan, dantza emanaldia; 13:00etan, *flashmob*-a; 13:30ean, trikitilarien kalejira; 14:00etan, bazkaria; 16:00etan, bingo girotua eta *photocall*-a; 17:30ean, musika maratona, eta erraldoi eta buruhandien kalejira; 18:30ean, ikastolako txaranga; 19:30ean, Mugi Panderoarekin erromeria; eta 22:15ean, Gozategi eta Txapito Guzman & Ibarako Langostinuk taldeak.*Bergaran.***ESKORIATZA Llargero Eguna**

10:30ean, largero batzearen hasiera, Mendiola auzoan; 14:00etan, bazkaria hango

elkartean; 18:00etatik aurrera, largero batzearen amaiera eta osteko jaien hasiera: besteak beste, gaztetxoendako jokoak eta guztiendako luntxa.

*Mendiola elizatean.***ARRASATE '50 urte inklusioa bermatzen' erakusketa**

Aspace erakundearen ibilbidea errepasatzen duen bilduma.

*Kulturaten, 12:00etan.***ARRASATE Gaiteroen emanaldia**

Arrasate Musikaleko ikasleak.

*Arrasate Musikalen, 12:00etan.***ARETXABALETA Txakolin Eguna**

Getariako Txakolina jatorri izeneko sei upategitako txakolina dastatzeko. Herriko ekoizleek hanburgesak eta pintxoak eskainiko dituzte. Eguerdia parte girotuko dute Buztintxuriko (Iruñea) eta Bihotza (Urduña) erraldoi eta buruhandien Konpartsek.

*Mitarte kalean, 12:30etan.***ARETXABALETA II. Kuartel Eguna**

12:30ean hasita, bat-bateko saioa, Ekiñe Casado, eta Joe Pieman & Gusilu; 14:30ean, bazkaria; eta 17:00etan hasita, Jot Abe, Inalektrik, Dear Flakutxo, Trigger, Oihu!, Lehen Lerroa eta Eten taldeak, eta BRGS, Margumision eta Gorka DJak.

*Kuartelean.***ANTZUOLA Antzuolako Triala**

Zazpi kategoriatan banatuta, 15:00etan abiatuko da lehen pilotua hamar guneko zirkuituari bi itzuli ematera.

*Antzuolan.***ANTZUOLA Carcassonne txapelketa**

Jolasenea elkartarekin, Madrilgo finalerako txartela jokoan.

*Olaran etxean, 17:30etan.***ARRASATE Hiruko txapelketa**

Gaztetxoendako.

*Musakolako gazte txokoan, 17:30etan.***ARAMAIO Musika klasikoko kontzertua**

Musika Astearen baitan.

Kultura etxean, 19:00etan.

ODEI BARROSO

OÑATI Odei eta RaperuRap doinuak izango dira protagonista. Odei Barrosok *Terapia* lana aurkeztuko du, Peru Del Hoyo rapero galdakoztarraren laguntzarekin.

Sarrerak: soldatadunek bost euro eta soldata bakoek hiru.

Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:00etan.

DOMEKA 29

ARRASATE Murugaini biraUntzilla eta Suña artean mendi ibilaldia. Izenak: 943-25 20 00 edo *turismo@arrasate.eus*.*Herriko Plazan, 09:00etan.***BERGARA 'Dolmenen ibilbidea' bisita gidatua**Gaur, euskaraz, Karakateko aparkalekutik irtenda. Izenak, 657 79 46 77 telefonoan edo *Debabarrena.turismo.com* atarian.*Karakaten, 10:00etan.***ARETXABALETA Leizarra dantza taldearen eguna**

11:00etan, dantzari eta musikarien elkarketa Arkupen; 11:30etik 13:00etara, kalejira herrian zehar, dantza egiteko geldialdiak eginda; eta, 13:00etan, alardea Herriko Plazan.

*Aretxabaletan.***BERGARA 31. Udaberriko Jaia**

11:00etan, musika emanaldiak auzoetan; 12:30ean, kontzertua San Martin plazan; eta 13:15ean, plaza dantzak.

*Bergaran.***OÑATI Gaztelekuko bertso-paper lehiaketa: sari banaketa**

Maider Arregi eta Andoni Egaña bertsolariek eta Unai Gaztelumendi marrazkigileak parte hartuko dute ekitaldian. Sarituek euren bertsoak kantatuko dituzte.

*Gaztelekuan, 11:30etan.***DEBAGOIENA Bertso-bazkaria Elorregin**

Aitor Tatiegi, Ekhiñe Zapiain, Joanes Illarregi eta Xabat Illarregi bertsotan. Sarrerak, Sanprubusean eta Oñatiko eta Bergarako Arrano tabernetan.

*Elorregin, 14:30etan.***ARAMAIO 'La familia Belier' filma**

Musika Astearen baitan.

*Kultura etxean, 19:00etan.***ARRASATE Anporretan merienda**

Gazte txokotik irtenda.

*Musakolako gazte txokoan, 17:30etan.***ESKORIATZA 'Muertos de risa' antzezlan**

La Farandula de Elburgo taldea. Sarrerak, bost euro.

Zaldibar antzokian, 19:00etan.

ASTELEHENA 30

ARRASATE Goienagusiren batzar orokorra

Bazkideendako.

*Amaia antzokian, 10:00etan.***OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea**

Pentsio duinak eskatzeko.

*Foruen plazan, 12:00etan.***ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea**

Pentsio duinak eskatzeko.

Herriko Plazan, 12:00etan.

ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Herriko Plazan, 12:00etan.

BERGARA Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
San Martin plazan, 12:00etan.

ARETXABALETA 'Contakids' saioa
Jaiki eta Kuku Miku elkartekoan eskutik. Debalde.
Kuku Mikuren egoitzan, 18:00etan.

ARETXABALETA Gitarra emanaldia
Leizarra musika eskolakoan eskutik.
Arkupen, 18:00etan.

ESKORIATZA Larrain dantzaren entsegu orokorra
Ekainaren 4ko dantzaldirako azken entsegua.
Pilotalekuan, 20:00etan.

MARTITZENA 31

ARETXABALETA Baxu elektrikoan emanaldia
Leizarra musika eskolako ikasleen eskutik.
Arkupen, 18:00etan.

ARRASATE 'Mass' pelikula
Martitzenetako emanaldia.
Amaia antzokian, 19:30etan.

EGUAZTENA 1

ESKORIATZA Odola emateko autobusa
Gipuzkoako Odol Emaileen Elkartearen eskutik.
Fernando Eskoriatza plazan, 16:30ean.

ARRASATE Bigarren eskuko liburu azoka solidarioa
Amerika elkartearen eskutik, liburuak trukatzeko aukera.
Kulturaten, 17:30ean.

BERGARA Baserritarren azoka
Herriko baserritarren garaiako produktuak erosteko aukera.
Oxirondon, 18:00etan.

OÑATI 'Oñati XIX. mendean. Hirigintza eta etxegintza' liburuaren aurkezpena
Xabier Zelaia Arzak idatzitako liburua argitaratu du Oñatiko Udalak. Egilea bera egongo da ekitaldian, Iزارo Elorza alkatearekin.
Osoko bilkuren aretoan, 18:00etan.

ARETXABALETA 'Adarbakar urdina' antzezlan
7x7 kultura kalean egitasmoaren lehen ekintza. Debalde.
Santakurtz plazan, 19:00etan.

EGUENA 2

OÑATI Garbigune ibiltaria
Azoka ondoan egongo da egun osoan.
Berdura plazan, 10:30ean.

ARRASATE Bigarren eskuko liburu azoka solidarioa
Amerika elkartearen eskutik, liburuak trukatzeko aukera.
Kulturaten, 17:30ean.

BERGARA Solasaldia Kattalin Minerrekin
Moio liburua izango dute hizpide kartzela zaharreko irakurketa taldekoek. Egilea bertan egongo da, iritziak partekatzeko.
Kartzela zaharrean, 18:30ean.

ARRASATE 'Relatos para adultos' saioa
Carolina Rueda kolonbiarrak egingo du helduendako saioa, gaztelera.
Kulturaten, 19:00etan.

EGUBAKOITZA 3

BERGARA Pentekoste jaiek
Askotariko ekintzak jaietako lehen egunean. Jaietako emateko txupinazioa Bergarako Aspaze elkartearen eskutik izango da, 19:30ean. Informazio gehiago eta jaietako egitaraua osorik, aldizkari barruko gehigarrian.
Bergaran.

ARRASATE Bigarren eskuko liburu azoka solidarioa
Amerika elkartearen eskutik, liburuak trukatzeko aukera.
Kulturaten, 17:30ean.

ZINEMA

ARRASATE
AMAIA ANTZOKIA
Red Rocket
Zapatutik astelehenera: 19:30.
Go fish
Zapatua eta domeka: 16:30.

BERGARA
SEMINARIXOA
Alcarrás
Domeka eta astelehena: 19:30.
Go fish
Domeka: 16:30.

OÑATI
KULTURA ETXEA
Cinco lobitos
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:30.

GASTEIZ
BOULEVARD
Top gun
Zapatua eta domeka: 16:00.
Egunero: 17:00, 18:40, 19:40, 21:20, 22:20.

Egubakoitzetik domekara eta eguaztana: 17:30, 20:10, 22:50.
Egubakoitzetik domekara: 18:00, 20:40.

Jujutsu kaise
Egubakoitzetik domekara: 15:50, 18:00.
Egubakoitzetik domekara eta eguaztana: 20:15, 22:30.
Astelehenera: 18:00, 20:15, 22:30.

En otro lugar
Egubakoitzetik eguenera: 16:00, 20:30.

El comensal
Egunbakoitzetik eguenera: 17:40, 22:30.

Los tipos malos
Egubakoitzetik domekara: 17:40. Zapatua eta domeka: 16:30. Eguaztana: 17:00.

Cinco lobitos
Astelehena, martitzena eta eguena: 17:00, 19:15, 21:30. Egubakoitzetik domekara eta

eguaztana: 18:45, 21:00.
Eguaztana: 19:15, 21:30.

Espejo, espejo
Zapatua eta domeka: 15:50. Egunero: 18:00.

El arma del engaño
Egunero: 19:50, 22:30.

El sastre de la mafia
Egunero: 20:20, 22:40.
Egubakoitzetik eguenera: 22:45.

El hombre del norte
Egubakoitza: 23:15.

Ojos de fuego
Zapatua: 23:15.

El secreto de Vicky
Zapatua eta domeka: 16:05.

La ciudad perdida
Egunero: 17:50.:00.

Doctor Strange en el multiverso de la locura
Egunero: 17:05, 19:45, 22:25.
Egubakoitzetik domekara: 18:45, 21:25, 23:30.

Animales fantásticos
Zapatua eta domeka: 15:50.

Sonic 2
Zapatua eta domeka: 15:45. Egunero: 18:15.

Juego de asesinos
Egunero: 22:30.

GORBEIA
Los tipos malos
Egubakoitza eta zapatua: 17:10. Domeka: 12:00, 17:10.

Sonic 2
Egubakoitza eta zapatua: 17:15.

La ciudad perdida
Egubakoitza eta zapatua: 17:25. Domeka: 12:00, 17:25.
Astelehenera eguenera: 17:30.

El hombre del norte
Egubakoitza eta zapatua: 21:30. Domeka: 11:30, 19:35.

Tog gun
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 17:45, 19:35, 20:20, 22:10. Domeka: 11:45, 17:00, 17:30, 19:35, 20:05.
Astelehenera eguenera: 17:30.

Alcarrás
Egubakoitza eta

zapatua: 19:20, 21:50.
Domeka: 19:20. Astelehenera eguenera: 17:20.

Juego de asesinos
Egubakoitza eta zapatua: 19:45, 22:00.
Domeka: 12:00, 19:45.
Astelehenera eguenera: 20:00.

Cinco lobitos
Egubakoitza eta zapatua: 19:45, 22:00.
Domeka: 12:00, 19:45.
Astelehenera eguenera: 20:00.

El arma del engaño
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:35, 22:05. Domeka: 17:00, 19:35.
Astelehenera eguenera: 17:30.

Tog gun
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 17:45, 19:35, 20:20, 22:10. Domeka: 11:45, 17:00, 17:30, 19:35, 20:05.
Astelehenera eguenera: 17:30.

eguenera: 17:20, 20:00.

La desvida
Egubakoitza eta zapatua: 17:40, 19:35.
Domeka: 17:40. Astelehenera eguenera: 17:30.

FLORIDA
Los tipos malos
Zapatua eta domeka: 12:00.

Sonic 2
Zapatua eta domeka: 11:45.

Maigret
Egubakoitza: 17:45, 19:40, 21:35. Zapatua: 11:30, 17:45, 19:40, 21:35.
Domeka: 11:30, 17:45, 19:40. Astelehenera eguenera: 17:30, 20:00.

Cinco lobitos
Egubakoitza: 17:30, 19:40, 21:50. Zapatua: 11:30, 17:30, 19:40, 21:50.
Domeka: 11:30, 17:30, 19:40. Astelehenera eguenera: 17:30, 20:00.

Cinco lobitos
Egubakoitza: 17:30, 19:40, 21:50. Zapatua: 11:30, 17:30, 19:40, 21:50.
Domeka: 11:30, 17:30, 19:40. Astelehenera eguenera: 17:30, 20:00.

KRITIKA

Alcarrás

Zuz.: Carla Simón. **Herr.:** Espainia (2022). **Aktoreak:** Jordi Pujol Dolcet, Anna Otín, Berta Pipo. **Iraupena:** 120 min. ★★★★★

Sustraien garrantzia

ANTONIO ZABALA

Carla Simonek sustraien garrantziaz hitz egiten digu: langileek lurrarekin duten loturari buruz eta belaunaldi ezberdinez osatutako familia baten lotura afektiboei buruz. *Alcarrás*-ek nekazari familia baten bizimodua eta izaera azaltzen digu. Lurraren ustiapena ez da familiaren enplegua edo sostengua bakarrik, desagertzeko arriskuan dagoen bizimodua ere bada. Hainbat belaunaldik osatzen dute familia: aitona-amonek, seme-alabek eta bilobek. Denak lurraren inguruan bizi dira, eta guztien arteko harremanak zehaztuta eta integratuta daude nekazaritzarekin.

Alcarrás ikusita, ematen du filmeko zuzendariak, haren kamerarekin, Lleidako nekazari-familia baten egunerokoa



erregistratzen duela; baina, egia esan, atzetik, ordu asko daude aktoreekin entseguak egiten eta gidoia lantzen. Carla Simonek naturaltasun harrigarria ematen die irudiei eta aktoreen interpretazioari. Naturaltasun hori, xehetasun txiki esanguratsuekin, intentsitate guztiarekin heltzeko. Ekintza

behartu gabe, fikzioaren bidez desagertzeko arriskuan dagoen bizimoduaren errealitate hori eta lotura emozional guztiak atzemateko, komeni da filma jatorrizko bertsioan ikustea. Bergaran, domeka eta astelehen honetako emanaldiak katalanez izango dira, gaztelaniazko azpitu-luekin.



AZKEN BERBA

AINTZANE OIARBIDE

Zientzia, gure esperantza

Azken bi urteotan bizitzen ari garen kalamidadeak badirudi ez daukala amaierarik. COVID-19aren pandemia, Ukrainako gerra, tximino-baztangaren zabaltze arraroa...

Guregan sentsazio gazia daukagu oraindik egoera ez delako nahi genukeena, baina, esaten den bezala, "esperantza da galtzen azkena". Aste honetan jakin berri dugu minbiziaren metastasiaren aurkako botika giza emakumeekin frogatzen hasi direla eta Euskadin sortutako botika izaki, gainera!

Denok dugu familiartekoren bat minbiziak, edo norberak pasa duen esperentziaren bat. Gaixotasun honekin ere maitatu ditugun eta oraindik maite ditugun familiarteko eta lagun asko joan zaizkigu, eta ziur naiz guztiak gogoratu ditugula berri on hau entzun dugunean; niri, behintzat, zirrara bat sartu zitzaidan eta negar egiteko gogoia ere bai. Botika sendatzailea lehenago izan bagenu!

Baina garrantzitsuena da zientzia aurrerapausoak ematen ari dela, esperantza ez dugula galdu behar eta askorentzat garaiz iritsiko dela.

Gaixorik zaudeteno indarra eta besarkada handi bat bidaltzen dizuet, eta ez ezazue inoiz etsi. Muxu bana bakoitzari.

GOIENA OKM GIDA

"Zerbitzu integrala ematen diegu bezeroei"

ESPE HERRERA ETA PEIO RAPUN ARRASATE BERRIA EHORZTETXEA

Arrasate Berria Ehorztetxeak azpimarratu dute euren zerbitzua edozein konpainiak eta kofradiak aukera dezakeela, "inolako plus ekonomikorik ekarri gabe"

Idoia Aranbarri Arzuaga ARRASATE Rafael Herrera eta Pilar Morenok ehorztetxea ireki zuten 1981. urtean. Erretiratu zirenean, seme-alabek hartu zuten ardura, eta orain, Espe Herrera eta neba-arrebek zuzentzen dituzte Arrasaten, Oñatin eta Aretxabaletan dituzten ehorztetxeak. Arrasatekoa, gainera, Araba etorbidera lekualdatu dute. Azken urteetan, Peio Rapun hileta-teknikaria gehitu da taldera. **Behar duen orori zuzendutako zerbitzua da, ezta?**

Zerbitzua edozein familiari, konpainiari eta kofradiari eskaintzen diogu. Familiak aukeratu beharko luke ehorztetxea; batzuetan, ez da hala. Premia sozialeko zerbitzua eskaintzen dugu; hau da, agurra. Horren mingarria den egoera osasun baldintzak bermatuz eta giroa kontrolatuz egiten saiatzen gara. **Zer eskaintzen duzue?**

Gure kulturaren heriotza errefusatzen dugu; benetan pasako dena ez dugu ikusi nahi. Horregatik, gehienek ez dakite ze izapide egin behar diren; heriotzaren unean, nahiz hurrengo hilabeteetan. Uste dugu bailaran zerbitzu integrala ematen dugun bakarrak garela, inor azpikon-



Espe Herrera eta Peio Rapun, Arrasate Berria Ehorztetxe gela batean. I.A.

Heriotzak tabua izaten segitzen du

"Gertaera naturala da, eta onartu egin behar da. Ez dago hilerria baino ezer triste eta ilunagorik. Frantzia, Ameriketako Estatu Batuetan eta Ingalaterran jendea oinez ibil daiteke hilerrietako lorategietan. Hemen oso barrokoak eta gogorak dira, eta egunen batean zer tokatuko zaigun ez dugu nahi ikusi. Hori irakatsi digute. Galera bezala ikusten dugu, trantsizio edo beste modu batera ikusi beharrean. Heriotzak tabua izaten jarraitzen du".

tratatu gabe. Deia jasotzen dugunean, familiak nahi badu, kudeaketa guztien ardura hartzen dugu. Gure lana bezeroak esaten digunean amaitzen da. Hau da gure eguneroko ogia, eta horretan espezializatuta gaude.

Zer egin behar du zuen zerbitzua behar duenak?

Deitu. Gu zerbitzua emateko gaude, eta bezeroen neurria egokitzen gara. Hemen ez daukagu ordutegirik.

Familiaren egotea gogorra da?

Hasieran, hala uste genuen. Familiak ezberdin erreakzionatzen dute. Zerbaite txarra esaten badizute, ordea, badakizu ez direla zuri ari. Ukapena dolauren parte da, eta haserrea ateratzen da. Datu-hartze batzuetan, berriz, barrez amaitzen dugu. Nola da posible? Mina oroitzapenak dira, eta horiek ez dira ahazten, aldatzen saiatzen gara.

Teknologiaren aldeko apustua egin duzue, ezta?

Bai; *Alife* daukagu. Gaur egun, posible da *whatsapp* batekin, deitu gabe, lagun guztiei behar den informazioa mezu bakarrean bidaltzea. Esaterako, beilatokiaren ordua eta lekua, nola heldu eta hiletaren xehetasunak. Kanal pribatuak ere sortu daitezke, eta, adibidez, gurean egiten den hileta-elizkizun zibila zuzenean jarraitu dezake etortzerik ez duenak, talde horren bidez.

Hileta zibilak hazi egin dira?

Hemen ez dira hainbeste egiten. Egia da ekitaldi erlijiosorik gabeko agurrak geroz eta gehiago egiten direla.

Goiena OKm
Gidaren
eskaintza
osoa



goiena
Okm
gida

Euskaraz Profesionalekin Telebista

Komunikazio Campusa

Kamera aurrekoak 2022 Podcastak Sare sozialak Fotokazetaritza

ANIMA ZAITEZ ETA EMAN IZENA EKAINAREN 18A BAINO LEHEN!

Mondragon Unibertsitatea Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA